



Gehigarri berezia
Inauteriak → 27-42

BORTZIRIAK → 10
Arreta psikologikorako zerbitzua aurten ere bai

BAZTAN-BIDASOA → 24
Patziku Irisarri da turismo erakundeko presidentea

BAZTAN → 50
Otordu eta garbiketa zerbitzua martxan

ZUGARRAMURDI → 53
2017an, 135.000 bisitari baino gehiago lezeetan

Miguel MINDEGIA LABAIEN | Ezkurrako aizkolaria

Handienetan handiena

Ikusgarria da Ezkurrako aizkolariaren palmaresa. 16 urte zituela, ustekabean eman zuen plazarako urratsa, eta geroztik, asko dira jokatu eta irabazi dituen txapelketak eta apustuak, baita egin dituen markak ere. Berak dioen bezala, «askoren gogoetan ongi errotuak gelditu diren erronkak». Dударik gabe, historiako aizkolaririk onenetakoa da Miguel Mindegia.

ERREPORTAJEA → 4-5



ARGAZKIA: Joseba URREBIZKAIA

LESAKA → 12
Nafarroako IV. Trikitixa Jaialdia

Euskal Herri osotik etorritako musika-riak elkartuko dira urtarrilaren 27an Lesakan egingen den Trikitixa Jaialdian.



ELKARRIZKETA → 3

Friedreichen zerebelosa-ataxia gaixotasuna duen **Tomas Belzunegi** elizondarrak bere bizipenetan oinarritutako liburua kaleratu du.

ERREPIDEAK → 48

N121A errepi-dean nazioarteko **kamioiak mugatzea** nahi du Baztango Udalak.

ZOKKETAK → 59



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi **info@ttipi.eus** helbidera.

ALMACO BAZTAN GRUP GATMA

www.almacobaztan.com

Berritu zure etxea!



Ekarri neurriak eta guk aurrekontuak eta proiektuak konpromisorik gabe eginen dizkizuegu! ...denetarik daukagu eta eskaintza arras interesgarriak!

Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

berako
agenda
EUS



* Otsaila *

berako
agenda

Ekitaldien gaineko informazio
gehiago: 948 012 012 telefonoan
edo www.berakoagenda.eus



INAUTERIAK

03 KALDEREROAK
LARUNBATA 19:00 Illekuetatik Herriko
Etxeko plazara
Ibilbidea: Illekueta > Alzate >
Legia > Zahar Etxea > Eztegara > Iturlandeta >
Eztegara > Bidasoa karrika > San Esteban karrika
> Herriko Etxea
(* Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, Alzateko
pilotalekuan

07 INAUTERIE TAKO
ASTEAZKENA KONTZERTUA
18:00 Kultur Etxean

Artokaitzailea: Gintxo Euzogaga Udal Musika Eskola

08 ORTZEGUN GIZENA
ORTZEGUNA ZINGAR-
ARRAUTZEA
Goizean zehar

15:45 Suhiltzaileen Parketik Eztegara
pilotalekura

(* Oharra: Eguraldi txarra eginez gero,
Eztegara pilotalekuan 16:00etan.



11 INUDE ETA
IGANDEA ARTZAI AK

10:00etatik aitzinera
goiz osoan herrian barna Eztegara pilotale-
kutik hasita.

18:00
Eztegara pilotalekutik Alzateko karrikara

12 INAUTERIE TAKO
ASTELEHENA ZINGAR-
ARRAUTZEA
Goizean zehar

BATUKADA BATUKLANG

TALDEA

19:00-20:00
Alzateko karrikan Argia ikuskizunarekin

10 MERKATUA
LARUNBATA BERTAKO
EKOIZLEEN
MERKATUA

10:00-13:30
Ricardo Baroja eskolako arkupeetan

17 SOLASALDIA
LARUNBATA BORTZIRITARRAK
TERNUAN

BAKAILAO-ARRANTZAN
Rosa Arburua | 18:00 Kultur Etxean

DOKUMENTALA

ARTE AL AGUA

Olivier Van der Zee
18:30 Kultur Etxean
Sarrera: 3 € (aitzinetik salgai Agara prentsan)

23 JOSKINTZA ETA
ORTZIRALEA LITERATURA TAILERRA
ISTORIOAK
JOSTEN

Marga Matxiarena
17:30 Herri liburutegian
7-12 urte | Gehienez ere 20 parte-hartzaile
traupena: 2 ordu

24 ANTZERKIA
LARUNBATA TXORIAK ETA
ZAURIAK

Mairu Antzerki Taldea
19:00 Kultur Etxean | Sarrera: 3 €

Friedreichen zerebelosa-ataxia izeneko gaixotasuna du Tomas Belzunegi Arizmendik (Elizondo, 1950). Etengabeko borroka izan du da bere bizitza, halaxe aitortu digu

berak. Eta orain, bere bizipenetan oinarrituz, liburua argitaratu du: *El otro lado de la enfermedad* (Gaixotasunaren bertze alde). Pertsona «arrunta» dela dio Tomasek,

baina gaixotasunak gauzak bertze modu batera ikusten erakutsi diola kontatu digu, «gauzei alderdi positiboa ikusarazten» lagundu diola, hain zuzen.

Tomas BELZUNEGI ARIZMENDI | Zerebelosa-ataxia duen elizondarra

«Nahiz eta buruak ukatu, gertatzen zaigun guztia gure onerako da»

G. PIKABEA | ELIZONDO

22 urterekin Friedreichen zerebelosa-ataxia gaixotasuna diagnostikatu zizuten. Nolako oroitzapenak dituzu? Haurtzaroan ez nuen deus ere nabaritu, baina nire nerabearoa eta gaixotasuna diagnostikatu zidaten arteko garaia arras gogorak izandu ziren. Iluntasun eta zalantza betetako sasoi izandu zen; etengabe 'zer gertatzen zait?' galdera egiten nuen.

Horren ondotik, Bizi-Higienean murgildu zinen. Nola izandu zen? Bizi-Higienea bertzeekiko errespetuarekin eta norbere organismoarekin bat datorren bizitzeko modu bat da. Barua hidrikoa da bere metodo nagusia, osasuna zaindu eta gaixotasunetik libratzeko erreminta. Mallorkan bizi, baina jatorriz belgikarra den gizonezko batekin harremanetan jarri nintzen eta berak egin zizkidan Frantziako osasun zentro batean barua egitera sartzeko papera. Izan ere, orduan espainiar estatuan ez zegoen halakorik. Nire osasuna berreskuratzeko bide bat bazela jakiteak itxaropena piztu zidan. Bete-betean murgildu nintzen horretan.

Kanpoan ere ibilia zara. Tartean, Indiara egindako bidaiak arrasto sakona utzi omen zizun... Ez dut aunitz bidaiatu,



UTZITAKO ARGAZKIA

Tomas Belzunegik abenduan aurkeztu zuen bere liburua Elizondon.

baina hainbat herrialde-tako garaiko etxe higienistak ezagutzeko aukera izandu dut. Eta lagun batekin Indiara joateko zortea ere izandu nuen. Hiru hilabeteko bidaiak izandu zen. Ezin izanen nuke bidaiak hark nire barrenean utzi zuen arrastoa nolakoa izandu zen azaldu. Han ikusi nituen miseriak, aberastasunak, handitasunak, probezia haundiak, jendearen aurpegi alaiak, adeitasunak, jaso nuen maitasunak, lasaitasunak... hunkitu egin ninduen, eta animalako arrastoa utzi zuten nire barrenean.

Gaur egun, nolakoa da zure egunerokoa? 09:30ean jaikitzen naiz, eta ordenagailuaren aitzinean jartzen naiz gero.

GARAI GOGORRAK

«Nire nerabearoa eta gaixotasuna diagnostikatu zidaten arteko garaia arras gogorak izandu ziren. Iluntasun eta zalantza betetako sasoi izandu zen. Etengabe, 'zer gertatzen zait?' galdera egiten nuen».

BIZI-HIGIENEA

«Bete-betean murgildu nintzen Bizi-Higienean. Nire osasuna berreskuratzeko bide bat bazela jakiteak itxaropena piztu zidan».

Orain arte, liburua idazten aritu naiz. Baina beti bada zerbait egiteko. Mandatuak egiteko laguntzailea etxera etortzen zaidanean, igerilekura joaten gara. Nire salbamendu-jakarekin ibiltzen naiz, eta hankak arrauk bezain zuzen jarrita, hiru ordu laurden pasatzen ditut bizkarrez igeri egiten. Gisa honetara, nire bizkarrak indartzen dit, eta ez gogortzeko nahikoa mugitzen naiz. Bazkaldu ondotik, siesta eder bat egiten dut eta ondotik, ordenagailu aitzinean jartzen naiz berriz; gimnasia pixka bat... eta afaltzeko ordua. Urte-saioaren eta eguraldiaren arabera, batzuetan portxera ateratzen naiz eguzkia hartu edo leitzera.

Eta orain, zure bizipenetan oinarritutako liburua idatzi duzu...

Denbora-pasa gisa hasi nintzen liburua idazten. Menpekotasun haundia dugunok asti libre aunitz dugu eta ahal den bezala pasatu behar dugu. Ehun bat orri idatziak nituenean, itxura polita zuela eta erraz irakurtzen ahal zela konturatu nintzen, argitaratzeko modukoa. Nire esperientzia batzuetan oinarritutako autobiografia da, baina beti nire gaixotasunaren bueltan eta pasatu behar izan dudana proba horren inguruan idatzi dut. Liburu arina, atsegina eta irakurtzeko erraza da; ipuintxo batzuke ere baditu, eta hausnartzera garamatzen historia ttikiak ere bai, baita anekdota eta argazki aunitz ere. Denei aholkatuko nieke liburua, gaixorik daudenei eta ez daudenei laguntzen ahal die.

Gaixotasunaren bertze alde da liburuaren izenburua. Zein da bertze alde hori?

Gaixotasunaren alde positiboa ikusi izana da bertze alde hori. Gaixotasunak gauzak bertze modu batera ikusten erakutsi dit, eta alderdi positiboa ikusarazten: gertatzen zaigun guztia gure onerako delako, eta gure eboluzio-prozesuan aitzinera egiteko balio duelako, nahiz eta buruak behin eta berriz ezetz erraten digun.

MIGUEL MINDEGIA LABAIEN → AIZKOLARIA

«Indarrak, kontrolak eta iraupenak bat egitean lortzen da garaipena»

16 urte zituela, oharkabean, eman zuen plazarako urratsa aizkolari handiak. Ordutik, aizkora sorbalan hartuta, han eta hemen ibili izan da, txapelketa eta apustueta. Azkena 60 urte zituela jokatu zuen. Orain, plazetan ibiltzeko asmoa itzalia izanagatik, ezin esan enborren bueltan ikusiko ez dugunik.

Nerea BAZTERRIKA

1949an Ezkurrako Ibi-ko bordan sortu zen Miguel Mindegia. Hogei urte zituela, Zubietara ezkondu zen, eta ordutik, Azkarateko borda izan du bizitoki punta-puntako aizkolari ezagunak.

Lehendabiziko aizkora kolpeak, txikitana emanak izaki, «oroitzapen lausoz gogoratzen ditut». Baina, urteen buruan, begiz jo zutenen ahoetatik entzundakoen bidez, «osatzea» lortu du. Aizkora txiki batez, edozein landare, zuhaitz ebakitzeko «ahalegine-tan» ibiltzen omen zen, inguruan bizi zen gizon batek *hau, hau zer infernuko demonio aterako ote da!* esaten zion bitartean. Hastapeneko kolpe horien oihartzunak urrutu iritsi dira.

NOLAKO EGURRA, HALAKO EZPALA

«Familia» izan da bere zaletasunaren iturburu. Osabak aizkora aritzen ziren, anaia zaharra-

goa zaletua zen... Iturri horretatik edatea aski ez eta, «orduan herrian eta inguruan aizkolariak bazeuden. Horiek behatuz, mendira joan eta entrenatuz, ahaleginak egin nituen».

Gaur egun aizkora aritzen ez bada «ez da gaitasunik ez izatearen seinale, plazan ibiltzeko asmoak itzali zaizkidalako» baizik: «bestela ere nahikoa lan izaten dut baserrian».

Enbor gainean ez ikusteak, ordea, ez du enborraren bueltan ikusiko ez dugunik esan nahi. Izan ere, «semea zaletzen hasia da eta egurra jartzen, kentzen, aizkora prestatzen eta, ahal dudan heinean, duen gaitasun hori fintzeko laguntzen saiatzen naiz».

ETXETIK PLAZARA

Oharkabean, eman zuen etxetik plazarako lehen urratsa Mindegia, «herriko pestetan, hama-sei urte nituela». Lehendabiziko ikuskizun hura



JOSEBA URREBIZKAIK UTZITAKO ARGAZKIAK

Miguel Mindegia, bere ibilbide oparoaren adierazle diren txapelak begira.

irabazi ondotik, urte beretan, gazteen txapelketan parte hartu zuen, Leitzan. Hortik aurrera, «errorrak bata bestearen ondotik etorri ziren», eta batzuk, izan zuten arrakastarteko, «askoren gogoetan ongi errotuak gelditu dira».

LEHENDABIZIKO APUSTUA

Lehendabiziko apustua «berezia» izan zen, «anaiak anaien aurka aritu ginen, eta Tolosako zezen plaza bete samar zegoen, 3.500 ikusle inguru hurbildu ziren». Koinatuak, arreba zaharrenaren gizonak, Latasa zena-rekin zuen hartu-ema-

na baliatuz, «berarekin aritu ginen entrenatzen».

Anaia aurkariak «Antonio Eizagirrekin, Armalozeritzotenarekin, jardun zuten, gizon ezaguna garai hartan».

Buru-belarri prestatuta, mendean hartzea lortu zuten. Gerora, «apustu asko egin ditut, baina gehienak banaka». Bakarren bat «ospetsu» egin bazen «Polipasorena» izan zen: «berrogei katu naerdiko, erakustunik gabeko, hemeretzi urteko mutila Euskadiko txapeldun izan berri zen beterranoaren aurka... Ordura arte seguru aski inork ez zuten horrenbeste egur

ebaki plazan, eta beraz, ez zen erronka makala!»

Eskarmentu handiko gizona zen Polipaso, «eta, haren aurrean nik irabaztea inork gutxi espero zuen. Askok lana bera «bukatzerik izan ez nuela» pentsatzen zuten».

Apustueta ez ezik, txapelketetan ere sona handia izan du Mindegia eta horren lekuko dira «ongi gordetzen» dituen txapelak. 1967an, Euskadiko kintopekoena irabazi zuen, bi urte geroago bigarren mailakoa eta 1977an berriz go mailako lehena.

Urte gutxian urrats han-

MARKA-MARKATUAK

«Kirol guztietan markak hobetu dira, aizkorian izan ezik. Oraindik nire markak marka-markatuak dira»

TELEBISTAREN ERAGINA

«Telebistak jendea geldiarazten duela iruditzen zait. Lehen plazetan ibili gabe jendeak ez zuen punta-puntan nor zebilen jakiterik izaten. Gaur egun hori ez da gertatzen»

Miguel MINDEGIA
Ezurrako aizkolaria

diak eman zituen. Areago, 80ko hamarkada borobila izan zen, Euskadiko bederatzitxapelketa irabazi zituen, Espainia mailako bi, Donostiako Urrezko Kopak...

MUNDUKO TXAPELKETA

Australian eta Ameriketara barna ere ibilia da Ezurrako aizkolaria. Ongi oroitzen ditu «australiarren aurka txapela lortzeko izaten zituzten «zailtasunak». Han «enbor txiki bat edo bi, sprintean mozteko ohitura» izaten zuten «eta hara joan eta zegoenera egokitzea besterik ez genuen! Egia esan, ni nahiko poliki moldatzen nintzen».

Lehendabiziko aurrez aurrekoa «hiruk hiruren aurka egin genuen», eta «beraiek irabazi zuten». Halere, Mindegiak berak «haiek baino azkarrago» ebaki zituen: «nik bezala egin balute, irabazia izanen genuen!», kontatu digu, irria ezpainetan. Bi urteren buruan, «Munduko Txapelketa, lan bera eta baldintza beretan» jokatu zuten. Horretan «gu gailentzea lortu genuen, Arria ibili zen txukunen».

Australiarrekin aritu izanak ekarpenak ere era-

gin zizkien Euskal Herriko hainbat aizkolariri: «bestelako lan ohituretan trebatzeko bide eman zigun, eta beren aizkorak ezagutu genituen». Ordutik, «horiek erabiltzen hasi ginen eta dezentehobetu genuen, hongoi kanaerdikotan bost minutu inguru».

INDARRA, IRAUPENA ETA KONTROLA

«Zaletasuna izatea eta aizkora onak izatea» ez dira halako uzta jasotzeko eroin beharrekot hazi bakarrik: «indarra, iraupena eta lanaren kontrola behar-beharrezkoak dira». Hiru osagai horiek «bat egiten dutenean lortzen da maila gorena».

Haatik, osotasun hori lortzea ez da erraza: «indarra izanagatik, erresistentziak huts egin dezake eta azkarregi has-teak ere baditu bere arriskuak». Hori guztia «kontrolaren bidez» kudeatu behar da, eta «zenbat eta aurkari gehiago izan, zailagoa bihurtzen da».

Txapelketek eta apustuetek «zentu horretan», badute alde nabaria. Izan ere, «apustuetan, normalean, aurkari bakarra izaki, errazagoa da bestea non dabilen jakitea»; txapelketetan, berriz, aurkariak gehiago direnez, «kontrol arreta aurkari adina aldiz biderkatu behar da». Noski, horretarako «kontzienteki jardun behar da, urduritasunak etxean utzi eta non zauden argi izatea beharrezkoa da».

Baina guztiaren oinarria, «gorputza zaintzea» da: «erlojua da gorputza. Zuzen ibili behar da loarekin eta janarekin». Garraio baliabide urriak tarteko, Ezurrako aizkolaria «ahal bezala» zaintzen saiatzen zen. «Gaur egun ikerketen bidez asko aurreratu da, bereziki elikaduran; guk haragi freskoa edukitzeko hozkailurik ere ez genu-

en, ez eta dutxarrik ere. Nik txandala zer zen hongoita hamar urtetan jakin nuen».

BALIABIDEEN GARAPENA

Aldaketak «nabarmenak» izanagatik, «oraindik orain, nire markak hor daude, ez dira ontzera ailegatu. Eta egia esan, gustatuko litzaidake barnetik bizi ditudan markak horiek kanpotik, ikusle gisa, ikustea».

Horren arrazoi izan daiteke «gure bizimoduak». Gehiago «sufritu dugu, gogorragoak izan gara, eserita denbora gutxi eman izan dugu: aitzurra ez bazen sega, sega ez bazen sardea, ez ginen gelditzen...». Prestaketa aldetik ere, «serio hartzen genuen»

ZALETASUNAREN GAINBEHERA

Gaur egun, «aizkolaria izan badaude, Iker Vicente, Arria... gazteak dira, oraindik hobetuko dira... Apustuak ere jokatzen dira, baina «zaletasuna gainbeheran doa». Telebistak «jendea geldiarazi» du. Lehen, «plazetan ibili gabe nekez jakin zenezakenez zegoen punta-puntan, eta horiek sorpresa politak ziren ikusleentzat».

Edonola ere, itxaropenaren ikur izan daitezke gazteak: «guk egiten genituen lanetatik urrunago egonagatik, eskarmentu handikoek baino jende gehiago mugitzen dute eta hori bada jarraipenaren seinale».

LIBURUA ETA OMENALDIA

Gazteek jendea plazaz plaza mugiarazten duten bitartean Miguel Mindegiak «niretzat eta nire lanaz oroitzen direla» sentitzen du, eta ez da gutxiagorako.

Berriki, Xilbarit argitaletxearen eskutik, Iñigo Goñiren testuz eta Joseba Urretabizkaia argazkilaria irudiz hornituta, *Miguel Mindegia aizkolariliburua* aurkeztu dute, Zubietan.

Sorterrian ere bere ibilbidea gorai patuz, omenaldia egin diote. «Ilusio handiz» bizi zuten momentua, «kirolean puntu-puntuari ezean, atzundu egiten da, eta su hori indarrean dela ikustea oso pozgarria da».



JOSEBA URRETABIZKAIAK UTZITAKO ARGAZKIAK

Goitian, 1976an Arria II.aren aurka egindako apustuan, Tolosako zezen plazan. Beheian, berriz, Mindegia, ezkerrean Ugarteburu eta eskuinean Arria II.a dituela, Australian.



Nire txanda
Joseba URROTZ

Gaixoa ni, gaiztoa zu

Hitz joko hau gogotu zitzaidan jarrera asertiboa azaldu nahian ari nitzela, gure hizkuntzaren bitxikeriak. Bakoitzaren eskubideak defendatzea, urkoa erasotu gabe, omen da asertibitateazaltzeko modu bat.

Errate baterako, barride, lagun, ezagun edo edozein delako batek, gure eremuan sartu (berdin fisikoan edo harremanetan) eta gure gogoko ez dena erran edo egiten duenean da aukera modu asertibo hori erabiltzeko. Eta ezta ez gero erraza. Aserbitibitatea bi muturren erdibidea da: pasibitatea edo geldotasuna eta agresibitate edo oldarkortasunaren artekoa. Alegia, batzutan ezatsegin dugun hori egiten digutenean, eztabaidan ez sartzeagatik, isildu egiten gara, irentsi, eta gero barrendik edo bertzeekin harendako amorrua kanporatzen aritu. Gero, afera denboran luzatzen denean, *express* eltzeak bezala presioa hartu eta azkeneko leher-tu eta jasaten egotetik erasora jotzen dugu. Hortxe ba koska, letra bat, "t" bat bertzerik ez, pasibitatea "gaixoa ni" litzeke, eta agresibitatea "gaixtoa zu", erdibideko horri nola erranen genioke? Nahi baduzue bilatu...

Ezpala

Aitor AROTZENA

Oinak eta zangoak

Bi izarrek elkar agurtu dute Anoeta futbol-zelaiaren erdian. Batek, bere oinekin dantzan jartzen du mundua. Arerioek eta ikusleek zertarako gai den jakin arren, beti topatzen du zirrikituren bat ihes egiteko eta jendea eta kontrarioa harritzeko, noiznahi badu bertzea txunditzen duen ateraldiren bat. Munduko onena da berean. Bertzea Leo Messi da eta zangoak erabiltzen ditu.

Nabarmentzekoak



Patxiku IRISARRI
Baztan-Bidasoa Turismoa

Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoko presidentea berria da etxalartara, hiru urtez lan hori bete duen Mikel Albusuren ordeaz. Iazko kontuak eta aurtengo asmoak azaldu ditu elkarteak.



Harkaitz DELGADO
Leitzako liburuzain berria

Azaroan Jose Luis Huarte jubilatu zenez geroztik itxita egon da Leitzako liburutegia, baina urtarrilaren 11n berriz ere ireki ditute. Harkaitz Delgado da liburuzain berria.



Irune IZKUE
Urrezko Aizkolaria buruz buru

Estreinakoz egiten ari den Emakumeen buruz buruko Urrezko Aizkolaria lehiaketako lehen bi jardunaldietan nagusi izan da Elgorriagakoa, Maika Ariztegi eta Nerea Sorondori irabazita.

Atzera begira → 2008-I-17 • TTIPI-TTAPA 462. zk



Bost gazte leitzarren esperientzia Saharan

Leitzako bost gazte Saharan izan ziren 2007ko abenduan, udan etxean jasotako hango umeak eta euren familiak bisitatzen. Tindufeko kanpamenduetan izan zirenen artean, Lorea, Maia eta Jon Arantzeta anai-arrebak zeuden. «Sahararrak leku irekian bizi dira, baina hura kartzela bat da» aipatu zioten TTIPI-TTAPARI. Izan ere, beraien esanetan, «egoera penagarria da eta ez dago eskubiderik. Bertara joan eta ez dela ezer pasatzen ematen du, baina militarrez eta minaz inguraturik daude, eta edozein unetan lehertu daitezke». Zorritzarrez, hamar urte beranduago egoera ez da aunitz aldatu Sahara aldean.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola, Nerea Bazterrika **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Arkaite Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Martin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitzu, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitzu	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



Bortzietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Hamar urte

Maddi Ane TXOPERENA IRIBARREN

Oroitzapen lauso bat bertzerik ez dut 2008ko urtarrilaren 6 hartan Lesakan gertaturikoa. Orduan ez nintzen herrian bizi, eta uste dut komunikabideetatik izan nuela gertaturikoaren berri. Biharamuneko irudiek inpaktatu ninduten, bereziki: Igorren aurpegia ubelduraz josia, lepoko zuria eta kablez beteriko gorputza, ospitaleko ohe batean. Eta titular bat han eta hemen, bueltaka: Guardia Zibilaren torturaren ondorioz Donostia Ospitalera eraman zutela lesakarra, saihets bat puskatuta eta birika perforatua.

Ordurako jada Lesakan barrera lagunekin-eta ibiltzen hasia nintzen arren, orduan ez nekien nor ziren gerora argazki, pegatina eta pankartetan ikusiko nituen Igor, Mattin, Ioseba eta Mikel. 13 urte nituen orduan, eta kontzientzia politikorik nuenik ere ez dakit: zaplazteko hark ekarriko ninduen, agian, errealitatera. Gerora kontaturikoei esker jakinen genuen anitzez zabalagoa zela titularren gibelean ezkutatzen zena. Herritar anitzek oroituko duten bezala, Guardia Zibilek itxia eduki zutela herriaren parte bat, ustez miaketak egiteko, edota herria bera beldurtuta eta isil edukitzea. Jakinen genuen, baita ere, Igor ez ezik Mattin ere eduki zutela bertz egunez inkomunikatuta, eta hark ez zuela ospitalera joateko moduko kolpe zakarrik jasotzeko “zorterik” izan.

«Herritar anitzek oroituko duten bezala, Guardia Zibilek itxia eduki zutela herriaren parte bat, ustez miaketak egiteko, edota herria bera beldurtuta eta isil edukitzea. Jakinen genuen, baita ere, Igor ez ezik Mattin ere eduki zutela bertz egunez inkomunikatuta, eta hark ez zuela ospitalera joateko moduko kolpe zakarrik jasotzeko “zorterik” izan»

Hamar urte pasatu dira ordutik. Aise erraten da: hamar urte. Batzuentzat haize bolada bat baililtzan pasatu izanen dira urteak, errutinaren egunerokoa sartuta. Bertze batzuentzat, ordea, luze: *Hamar urte kartzelan...* kantuak dioen bezala. Hamar urtetan Lesakan eta Euskal Herrian oro har gauzak anitz aldatu baitira. Horregatik da horren garrantzitsua ordutik horrenbertze denbora pasatu denean ere gure herritarrak oroitzea, eta ezagutze-ko aukerarik izan ez dugunok ere bertze modu batera haiekin harremanak egitea: izan gutun, bisita edo bertzelakoen bidez. Urteurrena oroitzeko prestatu duten leloak dioen bezala, herritik *ehunka kilometrora* egonda ere, *bihotzetatik gertu* egon daitezten.

Sexismoaren izeberga I: Musika

Elurre IRIARTE BAÑEZ

Segur aski, noizbait ikusiko zenuten izebergaren irudia. Izebergak bere %10a bakarrik erakusten du. Matxismoa irudikatzen du. Matxismoa irudikatzen du: azpian dagoen %90a ez baitugu ikusten. Emakumeak zanpatzen gaituztelarik, bortxatzen gaituztelarik edo hiltzen gaituztelarik argi ikusten dugu. Ikusten ez duguna berriz egunerokoa dugu eta tarte hau erabili nahiko nuke puskaren bat agerian uzteko.

Sexismoaren izebergaren azpiko aldean konparazio, musika dugu. Maiz musika aditzen dugularik ez gara ohartzen letrak zer erraten duen. Ez gara ohartzen gainera dantzatu eta kantatzen dugun hori buruan gelditzen zaigula eta gero normala bilakatzen dela: *musukatu beharko zintudan, gero biluztu, gero jo eta gero bortxatu*. Bai, leitu duzuen bezala kantatua.

Batetik, arruntak egiten zaizkigu hain hedatua dagoen maitasun erromantikoa indartzen edo bulkatzen duten kantak. *Joan zarenetik burua galtzen hasi naiz, Zu gabe zertarako bizi?* Halakoak buruan barneratzen ditugu, eta maitasuna holakoa izan behar duela sinesten dugu, norbait maite dugula adierazteko hitz horiek erabiltzeraino. Maitasun erromantiko horrek dependentzia eta mendekuan oinarritua dago eta horren ondorioz bikotearen kontrola eta esklusibitatea gauzatzen da.

Bertzetik, emakumeak gauza gisa erakusten duten kantak daude. Euskal kantagintza ez da libratzen. Arrakasta handiko talde batek “*nere andrea... erositako prezioetan pozikan salduko nuke*” kantatzen du plazetan, edo geronek mahai bueltan. Musikarekin sortu dugun irudian *regeton* dugu matxismoaren gailurra. Aunitzen ustez kanpotik etortzen zaigu matxismoa musikan, bertze kultura batzuetatik. Bertze kulturak beti zapaltzaileagoak dira uste dugu, eta beraz beren musika ere bai. Baina erne: musika industria bera da matxista, eta ez estilo zehatz bat. Edozein estiloak musika erabiltzen ahal du sexismoa indartzeko edo erabiltzen ahal du kontrako irudiak garatzeko. Azken hauek dira hautatu beharko genituzkeenak gure belarrietarako: ‘Ez naiz ez zurea ezta inorena ere’. Hori regeton kantari batek dio.

«Edozein estiloak musika erabiltzen ahal du sexismoa indartzeko edo erabiltzen ahal du kontrako irudiak garatzeko. Azken hauek dira hautatu beharko genituzkeenak gure belarrietarako: ‘Ez naiz ez zurea ezta inorena ere’. Hori regeton kantari batek dio.»

Halakoak buruan barneratzen ditugu, eta maitasuna holakoa izan behar duela sinesten dugu, norbait maite dugula adierazteko hitz horiek erabiltzeraino. Maitasun erromantiko horrek dependentzia eta mendekuan oinarritua dago eta horren ondorioz bikotearen kontrola eta esklusibitatea gauzatzen da.

Bertzetik, emakumeak gauza gisa erakusten duten kantak daude. Euskal kantagintza ez da libratzen. Arrakasta handiko talde batek “*nere andrea... erositako prezioetan pozikan salduko nuke*” kantatzen du plazetan, edo geronek mahai bueltan. Musikarekin sortu dugun irudian *regeton* dugu matxismoaren gailurra. Aunitzen ustez kanpotik etortzen zaigu matxismoa musikan, bertze kultura batzuetatik. Bertze kulturak beti zapaltzaileagoak dira uste dugu, eta beraz beren musika ere bai. Baina erne: musika industria bera da matxista, eta ez estilo zehatz bat. Edozein estiloak musika erabiltzen ahal du sexismoa indartzeko edo erabiltzen ahal du kontrako irudiak garatzeko. Azken hauek dira hautatu beharko genituzkeenak gure belarrietarako, hauek bezalako mezuak: *ez naiz ez zurea ezta inorena ere*. Hori ere regeton kantari batek dio.



Irakurleak mintzo

Ez erran nehoiz nehoiz ere ez

Ainara MAIA URROZ (Irun)

Urteroko bertso-saioa dugu Oiartzungo urte berrikoa, tradizioa bilakatu dena halaber harrez, baina urtero azkena izatea desio duguna: euskal presoen hurbiltzea edota etxeratzeari eskatzeko antolatzen iragan ilbeltzaren 7an Oiartzunen, bertso-lari onenekin, eta azkena izanen ahal da helburu horrekin!

Oiartzungo bertso-eskolako gazteek jarritako puntuei erantzun zieten zortzi bertsolari-ek, eta haubate ere agertu zen oholtza gainean motxila bete ilusio eta ametsekin, laster preso dagoen gurasoa etxean egoteko desirarekin alegia.

Oiartzungo bertsoaldi gozagarrian penak sakelari sartzeko gonbita egin ziguten, poza-ren bila abiatzeko, ametsak eta irribarreak motxilatik atera, eta arazoa elkarbanatuz motxila arintzeko. Eta ez erran nehoiz nehoiz ere ez, azkena ez da izanen, azkena denak aske garelarik egiten baitugu bertsoaldirik ederrera.

Beraz, abia gaitzen Zilarrezko Itsasoan

Urrezko Orraziaren bila, zorionaren bila, gure barnera alegia, norbere bihotza entzuteko ausardia ukanez, eta ni neu ere urrezko soltera edo ezkongabea naiz beldurrei aurre eginez gizon ausarta agertzen zaidan arte.

Ametz Arzalluzek bizarra mozteko makina aurkitu bitartean, ez du mozteko bizarrik, eta nik ere ez dut ile-adatsik moztuko preso guztiak libre izan arte!

Zenbat gehiago?

[Lekarozko bizilagun talde baten izenean](#)

Errege gauean, Lekarozko gazte batzuk duela gutxi eraikitako pasabide kanadiar batean behor bat aurkitu zuten. Hau guztiz trabatua zegoen burdina artean eta bizirik ateratzea ezinezkoa izan zen.

Zorigaitzezko gertaeraren egunean, elurra mara-mara ari zuen eta herrian dauden bertze pasabideak guztiz estaliak zeuden. Hala ere, zenbait herritarrek diote landa-bide hau zehazki, behin eta berriz garbitua izan zela. Dena dela, zaldia pasabideko burdinen artean



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zorigaitzeko gertaera Lekarozko pasabide kanadiar batean izan da.

geratu zen atera ezinean. Gaueko hamaikak aldera aurkitu zuten eta ordurako bertatik ateratzeko borrokan ibili izanaren markak zituen. Larrialdietara deitu zuten eta Elizondoko Foruzaintza bertara hurbildu zen. Behorrak, bere indar guztia erabiltzen zuen zulotik ateratzeko, baina horrek, egoera larriagotu egiten zuen, zauriak itxusten ari baitzitzaizkion. Bertze artean, beso batean "torniketean" egin behar izan zioten ebaki sakon bateko odoljarioa geldiarazteko. Behorraren hilzoria behar baino gehiago iraun zuen, baina deus egiterik ez zegoela ziurtatu zu-



tenean, albatariari deitu eta behorra sakrifikatua izan zen.

Bertze behin, pasabide hauek ez dute bere funtzioarekin behar bezala bete, eta are ge-

hiago, hauen diseinua zoritxarreko gertaera baten eragilea izan da. Soluzio baten beharra ezinbertzekoa da gisa hauetako gertakari gehiago pasa ez dadin.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Blai gazte telebista sortuta, telebista alternatibo bat sortu dugula uste dut, ikuspuntu kritikotik, eduki propioak ekoiztu eta argitaratzeko aukera emango diguna. Hedabide handiek Euskal Herriko gazteen inguruan sortzen dituzten irudi estereotipatuak baztertu nahi izan ditugu. Gazteok gazteontzat sortu dugu (...) Ikaragarritzko erronka izan da».

Garazi CONDE ORUBE
Blai gazte telebistakoa
ARGIA 2018.01.04



«Helburua ez da gazteek gazteentzako telebista bat sortzea bakarrik; aunitzetan, telebista bakoitzak bere etxean ikusten duen gauza bat dela ikusten genuen, modu indibidualean, eta, helburua gazteei gonbidapena egitea izan da, nor bere etxean ikusi ordez, modu kolektiboan ikusteko, gaztetxeetan, ostatuetan... deialdi publikoak egitea gustura».

Maddi Ane TXOPERENA
Blai gazte telebistakoa
HITZA 2018.01.12

11 galdera labur

Nor da Julen Arozena?

Goizuetako gaztea...

Animaliazale edo animatzaile?

Animatzaile beti, eta animaliazale gehienetan. Gehiegi animala biharamunean animalien lanak egiteko gauza izan behar, ordea... Eskerrak aita ardurtzen den batzuetan, ni baino seguruagoa baita!

Inauteriak bereziak omen dira...

Dudarik gabe! Adin guztietako jendea biltzen gara eskean eta otorduetan. Gainera baserri eta etxeetakoek beso zabalik eta ilusioz hartzen gaituzte, giro ezin hobea sortuz.

Nola uztartzen dira lana eta bes-ta?

Ahal den bezala. Lantokian bes-ta eskatzen saiatzen naiz... baina ezin bada, inbidiatan egon behar!

Hutsik egin ezin den momentua?

Hasten direnetik bukatzen diren arte ez dago huts egiterik... baina bat gomendatzekotan, astearte arratsaldeko zahagi dantza.

Mozorrotzen al zara?

Astelehen nahiz asteartean zuri-gorritz janzen gara, eta astearte ilunabarrean izaten da mozorrotzeko tenorea... nik, berriz,

ez dut arropak aldatzen denborarik galtzen!

Bertsotan ibiltzen omen zara. Gairik ez zaizu faltako, ez?

Halakoetan denok izaten dugu gaia edo nahia. Ondo pasatzen dugu nahiz eta gaitasun handiegirik ez izan!

Zerk egiten zaitu zorionsu?

Inauterietako asteleheneko lehenengo korneta hotsak.

Asteburuko planik ederrena?

Bordara edo mendira joan eta bueltatzeko bat egin ondotik lagun artean gosari eder bat egitea.

Goizuetako xokorik politena?

Porrostako erreka.

Amets bat?

Asko ditut, baina baten bat betetzea bera ere izan daiteke amets.



Julen AROZENA → Goizuetako gaztea

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altxate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

tanatorios IRACHE
24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404
BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA
TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

caser residencial www.caserresidencial.es
Laguntza zerbitzuak
• Medikua • Farmazia • Erizaintza • Psikologoa • Gizarte langilea • Okupazio terapia
• FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA
• Animazio soziokulturala • Nutrizioa • Podologia • Odontologia eta dentista • Logopedia • Audioprotesista
Ostalaritza
• Harrera • Garbiketa • Ikuztegia • Sukaldea • Mantentze zerbitzua
Bestelakoak
• Ile-apainketa • Jostuna • Erijiro zerbitzuak-Meza • Laguntza teknikoan kudeaketa • Kanpora laguntzea
ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

BRANDONEA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

JAIONE - COXOTEGIA
948 630 786
Altxate, 21 · BERA

BORTZIRIAK

GIZARTEA → AMAIA PANDO ARAMENDI PSIKOLOGOAREM ESKUTIK

Arreta psikologikorako zerbitzuak segida izanen du aurten ere

laz, hamar hilabetetan 61 lagun artatu zituzten

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Elkarri-zan Laguntza Emaile Taldeak ohiko laguntza lanez gain, Arreta Psikologikorako Zerbitzua martxan jarri zuen iaz, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen eta La Caixaren Gizarte Ekintzaren laguntzarekin. Hiru entitate horien elkarlanari esker, aurten ere zerbitzua eskaini egingen da.

Mankomunitateak Etxalarren dituen bulegoetan, Lesakan duten bulegoan eta Bera-ko Udaletxean ematen du zerbitzua Amaia Pando Aramendi psikologoak. Arreta goizez eskaintzen du, baina pertsonaren batek hitzordua arratsaldean behar izanez gero, ordutegia honen beharretara egokitzen dute. Zerbitzua- ren egonkortze eta mantenturako, oraindik koordainketa bat ordainduko da: 25 euro saioko. Hitzordua eskatzeko Gizarte Zerbitzuen telefono zenbaki honetara deitu behar da: 948 635 036.



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaia Pando, Elkarri-zan, Mankomunitatea eta La Caixako ordezkariekin, aurkezpenean.

Orain arte egindako ibilbidearen balorazioa «hagitz positiboa» da. 61 pertsona artatu zituzten joan den urteko lehenengo urrats horretan. Datu horiek interpretatzerakoan, kontutan izan behar da nahiz eta zerbitzua otsailean hasi, lehenengo hilabete hori antolaketa eta difusiorako erabili zutela, eta beraz, herritarrei martxotik aitzinera eskaini zietela arreta zerbitzua. Honela, pertsona kopuru hori hamar hilabetetan artatua izan da. Erabiltzaileak hainbat modutan ailegatu dira zerbitzura: batzuk zuzenean hitzordua bulegoan eskatuta, bertze batzuk Osasun Etxetatik eta Gizarte Zerbi-

tzetatik deribatuta, baita ikastetxeetatik aholkatuta ere. Aipatutako entitateekin elkarlana sendotzea, erlazioak hastea eta, batez ere, jendaurrean ezagutzera ematea, populazioak zerbitzua ezagutu eta erabiltzea dira aurten-go helburu nagusiak.

Tratatutako kasu edo arazoan artean nagusienak antsietatea, depresioa, dolua eta familia bizikidetasunean arazoak (banaketak, komunikazio arazoak, haurren hezkuntzako zailtasunak...) izan dira, baina baita fobiak, adikzioak (droga menpekotasunak, ludopatía, internet, mugikorra, erosketak...), jokabide arazoak, autoestimu edo se-

gurtasun falta, bortizkeriatik edo tratu txarretatik ondorioztatutako kalte emozionalak eta jazarpen kasuak ere. Artatutako pertsonen adinari erreparatuta, gehienak helduak izan dira, 36-55 urte tartean daudenak; ondotik adin tiki-koak, 18 urte baino gazteagoak; gero gazteak, 18-35 adin tartekoak; eta bukatzeko helduadinekoak, 55 urte gorakoak. Eta terapiaren bukaerari begiratuta, kopuru handienak psikologo eta pazienteak adostutakoan bukatu du terapia; baina oraindik terapiaren daudenak eta terapia bertan behar uzten dutenak (psikologoarekin adostu gabe) ere badaude.

BAI EUSKARARI

Zozketako zenbaki saridunak atera dituzte


TTIPI-TTAPA

Euskara Mankomunitateak, urtero bezala, Bai Euskarari Zozketa egin du eta saritutako zenbakiak honakoak izan dira: 1.007 eta 5.158.

Lehenbiziko zenbakia, 1.007a, Aran-tzako Telleri landetxeak banatu du eta Igantziko Biltoki elkarteak eskainia, Errigorren saskia izanen du saritzat.

Bigarren zenbakia, 5.158a, Lesakako Ibaiondo janari-dendak banatu du eta Bera-ko Larun Haizpe elkarteak eskainia, 50 euroko erosketatar-tela izanen du saritzat, Larun Haizpeko denda eta zerbitzuetan gastatzeko.

Otsailaren 28a arteko epea dute irabazleek saria jasotzeko, Bortzirietako Euskara Mankomunitatera deituta (948 634 125 telefonoa). Ordu-rako ez bada inor agertu sariak eman gabe geldituko dira.



okaNe

 HARATEGIA / URDAITEGIA

 Enaut & Nekane

 Kanttonberri 12 • BERA

 T. / Fax: 948 630 018



ANTZUZELAI

 S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK

 Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587

 Irungo errep. BERA

 www.antzuzelai.com

 info@antzuzelai.com



 Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

KIROLA → URTARRILAREN 13AN

200 lagun baino gehiago XI. Mendi Egunean

51 bikote eta hirukotek parte hartu zuten Santa Barbarako igoeran

TTIPI-TTAPA

Arrakastatsua suertatu da aurten ere Mendi Egunaren hamaikagarren edizioa urtarrilaren 13an, Xabier Zubieita, Loro Pikabea eta Xabier Saralegi Taillon mendian hil zirela hamaika urte bete ziren egunean.

Goizean, 70 bat neska-mutikok parte hartu zuten kiroldegiko eskalada tailerrean. Arratsaldean, Santa Barbarako oinezko mendi ibilaldia, 50 bat lagunengatik parte-hartzearekin, eta binakako kronoigoera egin ziren. Manttaleko haurrek ere lasterka egin zuten.

5,5 kilometroko erlojuaren kontrako lasterketan 51 bikotek eta hirukotek parte hartu zuten parte, tartean Manttaleko hainbat korrikalarik. Ricardo Baroja eskolaren

paretik minutuero atera ziren parte-hartzaileak eta jendearen animoak bildu zituzten ibilbide osoan. Ohikoa denez, lasterketa ez da konpetitiboa, baina bikoteen denborak hartu zituzten eta panel batean erakutsi. Horien artean, Manttaleko Asier Apezetxea aranztarrak eta eta Unai Santamaria hernaniarrak osatutako bikoteak lortu zuten denborarik onena (25 minutu eta 37 segundo), baina parte-hartzaile guztiek 46 minutu baino guttiago behar izan zituzten ibilbidea osatzeko.

Probaren ondotik, parte-hartzaileentzako berendua eskaini zuten eskolako jangelan eta opariaren zozketak ere egin zituzten.

Beranduago, Kultur Etxean, Pitxi Egillor mendizalearen *Pirinioak eta Himalaya artean* proiektzioa eskaini zuten. Iruñean 1948an jaioetako mendizaleak munduko mendietan izandako bizipenak laburbiltzen dituen emanaldi honetan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Momentu ederrak utzi ditu aurtengo Mendiaren Eguneak.

'Origenes' antzezlanak

Compagnie Des Vents et Marées taldeak *Origenes* antzezlanak

eskainiko du hilaren 27an, larunbatean 19:00etan Kultur Etxean. Sarrera 5 euro kobratuko dute. Alexia Papan-

tchevek sortutako ikuskizuna da, oroimenagaldutik pertsonen abiapuntu hartuta.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Futbola adin guztietarako egokia dela erakutsi dute

Ane Bergara, Lorea Sarobe eta Mikel Esnaolaren eskutik, zenbait futbol ekin-tza egin dituzte Eguberrietan, Txikifut, Baietz Futbolean eta Oinez futbolean goiburuean, adinaren arabera. 5 eta 7 urteko umeentzat Txikifut izan zen abenduaren 26tik 29ra, Berako Toki Ona kiroldegian, 16 neska-mutikorekin. 8 eta 12 urteko gaztetxoentzat Baietz futbolean kanpusa antolatuko zuten urtarrilaren 2tik 5era, 38 parte-hartzaileekin. Helduagoentzat, 50 urtetik goitikoentzat, Oinez Futbolean ere egin zuten abenduaren 22an eta 29an eta honetan, baloiarekin ez ezik, maha-inguruan ere ongi moldatzen direla erakutsi dute.

MARITX

• Ingeniaritza elektrikoa • Boletín industria
• Proiektu elektrikoak • Instalazio elektrikoak

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

xuga

tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera

744 484 361

ttipi-ttapa

LESAKA

KULTURA → URTARRILAREN 27AN, HARRIONDOAN

Nafarroako IV. Trikiti Jaialdia larunbatean ospatuko dute

Zazpi herrialdetako musikarien artean, Kepa Junkera eta Niko Etxart izanen dira

phael Ferreira (Lapurdi).
- Kepa Junkera eta Sorginak (Bizkaia).
- Patrik Larralde eta Christian Larralde (Behere Nafarroa).
- Niko Etxart (Zuberoa).
Zuriñe Hidalgo eta Estitxu Pinatxo izanen dira aurkezleak.

Aitor AROTZENA

Laugarren urtez Nafarroko trikiti jaialdia ospatuko da, aurtengoan urtarrilaren 27an Lesakako Harriondoa Kultur Etxean, 17:30ean. Nafarroako Trikitixa Elkarrekin antolatuta, Lesakako Trikitixa Taldearen, Udalaren, EITBren eta Tiriki Trauki esku-soinu dendaren laguntzaz.

Aurtengoan Euskal Herriko lurralde guziko trikitilariak izanen dira jaialdian. Hauek dira parte hartzaileak:

- Elgorriaga anai-arrebak eta Egoitz Telletxea (Lesaka).

- Igon Olaguenaga eta Egoitz Uriarte (Araoba).

- Eneko Dorronsoro, Ixak Arruti eta Gari Otañendi (Gipuzkoa).

- Erika Lavillard, Sabine Ferreira eta Ra-

Oraindik jaialdirako sarrerak geratzen dira (12 eurotan). Erreserba egiteko nafarroakotrikitixaelkarte@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Jaialdiaren ondotik afaria izanen da Irubide jatetxean (20 euro) eta seguru gaude trikiti doinuek goizalderarte irauten dutela.

Guttitan ikusiko dira Euskal Herri guziko trikitilariak horrela elkarrekin jaialdi batean. Gainera sorpresa bat baino gehiago ere izanen omen da jaialdian.

Zakozarren bilera

Inauterietan zakozar ateratzeko intenzioa dutenak bilera batera deituak daude otsailaren 3an, larunbatean 16:30ean Arrano elkarrekin. Horretaz gainera,



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Kartzelan hamar urte bete dituzten herritarrak gozoan

Urtarrilaren 6an hamar urte bete ziren Mattin Sarasola eta Igor Portu herritarrek atxilotu zituztela, eta aldi berean, Joseba Iturbide eta Mikel San Sebastianek herritik alde egin behar izan zuten. Hamargarren urteurrena dela eta, elkarretaratzea egin zuten hilaren 7an Lesakakako Beheko Plazan, Onin erreka-ko zubian. Jendetza handia bildu zen zubian eta erreka-ko aldeetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztandarrek irabazi dute emakumeen III. Frontenis txapelketa

Hirugarren urtez, emakumezkoen frontenis txapelketa antolatu dute herrian. Sei bikote aritu ziren Urtezahar egunean. Final estuan, Oronozko Gurutze Aizpuruk eta Irurritako Begoña Argain baztandarrek 25-24 irabazi zieten Lesakako Miren Egues eta Berako Jone Zelaletari. Txapeldun eta txapeldun ordeek botil bana ardo, gozokiak eta bonboiak izan zituzten sarritzat, baina finalera ailegatu ez zirenek ere izan zuten ardoa eta gozokiak etxera eramateko aukera.

Arrano elkarteak dei berezia egin du inauterietako igandean zakozarrek prestatzeko la-

guntzaile bila. Otsailaren 11ko 16:30etik aitzinera, zakozarrak berlarrez bete eta josteko

nahi duten guztien laguntza eskertuko dute. Jakinarazi dute Arrano elkartetik.

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattogorria
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 8TIK 13RA

Inauteriak prestatzen ari dira herritarrak

Astearteko bazkarirako izen emateko epea otsailaren 2ra arte zabalik

Irene ELIZAGOIEN

Oraindik inauterietarako egitaraua erabat itxi gabe egon arren (gehigarri berezian ageri da aurtengo programa), egun berezi hauek prestatzen hasiak dira herritarrak.

Ortzegun Gizenarekin emanen zaio hasiera besta egun hauei eta Astearte Inaute egunarekin bukatuko dira. Tartean izanen den Astelehen Inaute egunerako izena emateko zerrendak dagoeneko osatuetan paratuak daude. Baita astearteko bazkarian apuntatzeko ere. Otsailaren 2a da izena emateko azken eguna eta 10 euro ordaindu behar da astelehenerako eskerako apuntatzeko eta bertze 10 euro astearteko bazkaria joan ahal izateko.

Inausketa eta txertaketa ikastaroa

Larraburuak elkartek inausketa eta txertaketa ikastaroa antolatuko du otsailaren 3rako. Goizeko 9etan Larraburuak elkartu eta bertatik joanen dira inausketa eta txertaketa egiten den lekura. Apuntatzeko epea urtarrilaren

26an bukatuko da eta Mari Luzeri deitu behar zaio (664-387343-948635166)

Larraburu mus eta partxis txapelketa

Urtarrilaren 14an izanen den Larraburu mus eta partxis txapelketa. Guztira 16 lagunek parte hartu zuten, 8 lagunek musean eta 8 lagunek partxisean. Musean txapeldunak Manuel Arrosamena eta Joxemari Maia izan ziren eta bigarrenak Joxemari Olagarai eta Xanti Elizagoien. Partxisean, berriz, txapeldunak Maria Esther Bereau eta Maitere Zubieta eta bigarrenak Enkarna Iparagirre eta Juanamari Arburua izan ziren. Txapeldunek gasna erdia eta ardo botila irabazi zuten eta bigarrenak, berriz, ardo botila. Ondotik denentzat berendua izan zen.



Pertsonaia
Patxiku IRISARRI

Baztan Bidasoa Turismoko presidentea

Baztan-Bidasoa Turismoak iazko balantzea egin eta 2018rako aurrekontuak eta egitasmoak onartu zituen hilaren 10ean. Horrez gain, lehendakari berria ere hautatu zuten. Patxiku Irisarri herritarrak hartuzion lekukoa orain arte karguan izan den Mikel Albisuri bi urterako. Orain arte egingako bideari eusteko asmoa du, egitasmo berriak martxan jarri.



ARGAZKIAK: ANA INDABURU

Herria zuri

Azken urteetan ez bezala, herria zuriturik ikusteko aukera izan zuten herritarrek urtarrilaren 6an eta ondoko egunetan. Gehientzako sorpresa, ilusioa, gozamena eta poza ekarri bazuen ere, hainbat kalte eta zuhaitzen erorka ere izan ziren.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

Zanpingorri mendi taldea Oinez Gailurrekin bat

Lesakan ospatu zen Nafarroa Oinez lagundu zuen Etxalarko Zanpingorri mendi taldeak. Horretarako Ibantelli mendia babestu zuten eta eguraldi txarrari aurre eginez, urtarrilaren 14an egin zuten Oinez Gailurra irteera. Urtarrilaren 28an ere mendi ateraldia egiten dute, Sunbillako inauteriak direla aprobetxatuz bertako giroa ikustera. Goizeko 7:30ean da hitzordua herriko plazan. Ondotik nahi duenak Larraburuan bazkaltzeko aukera izanen du.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

ARANTZA

GIZARTEA → KULTURA BATZORDEAK ANTOLATUTA

Martxoaren 10ean egingen da aurtengo trikitixa jaialdia

Ehun muskaritik goiti bilduko dira frontoian

Nerea ALTZURI

Hondarreko urteetan bezala, aldi honetan ere, Trikitixa Jaialdia antolatu du Udaleko Kultura Batzordeak. Martxoaren 10ean izanen da eta herriko trikitilari eta panderojoleez gain, inguruko hainbat eskoletako musikariak bilduko dira. Trikitixa eta panderosoinuak nagusituko dira herriko frontoian, baina dantzariena saioaz goatzeko aukera ere izanen dute hurbiltzen direnek. Oraindik hilabete eta erdi gelditzen bada ere, prestatzen hasiak dira.

Inauteriak

Otsailean 1ean hasi, eta hiru egunez ongi pasatzeko aukera izanen dute herritar eta bisitariak inauterietan. Aurten, 25 bat Mozorro Zuri ibiliko dira etxez etxe eta baserriz baserri Beñat eta



ARGAZKIA: AITZIBER ALMANDOZ

Gure inguruko sagar basatia hizpide

Joan den urtarrilaren 12an, gaian aditua den Juan Gamio labaindarrak sagar-rondo basatien inguruko solasaldi interesgarria eskaini zuen Ekaitza Elkartearen.

Andoni musikariekin eta ohiko ekitaldiek ere ez dute hutsik egingen. Larunbat ilunabarreko herri-kirol saioan, berriz, Urrezko Aizkorako saioa jokatu dute: gizonekoetan, Donato Larretxea eta Mikel Larrañaga, Iker Vicente eta Ruben Saralegiren kontra ariko dira; emakumezkoetan, Maite Ariztegi eta Nerea Sorondok elkarren aurkajokatuko dute; Iban Ugartemendiak harri-jasotze erakustaldia eskainiko du. Xehetasun guztiak 28. orrialdean dituzue.



ARGAZKIA: IGOR UGALDE

Bazterrak zurituak

Abenduaren lehenean, neguan sartu aitzinetik, lehenbiziko elurtea izandu genuen. Urte berriarekin, estreinekoa ilbeltzaren 6an izandu zen. Elurra mara-mara bota zuen eta inguruak ederki zuritu ziren.

FLASH

Frontoia erabilpena

Ekaitza Elkarteak antolatutako pilota eskola eta txapelketako partidengatik, frontoia hartua izanen den egunetako tarteen berri eman du Udalak. Astelehenetan pilota eskola izaten da, 16:00etatik 20:00etara. Ordu tarte berean, ortziralero, pilota eskola eta partidak izaten dira; eta larunbatetan, 10:00etatik 12:00etara partidengatik frontoia hartua izanen da martxora arte.

Bilera deialdia

Herrian etxebizitza berriak egiteko proiektuaren berri emateko, bilera informatiboa antolatu du Udalak ortziralero arratsalderako. Hitzordua urtarrilaren 26an da, 19:15ean, Herriko Etxean. Bilera irekia da.

Mendiko aseguruak

Ekaitza Elkartearen bidez, mendiko aseguruak egin nahi duenak urtarrilaren 31 izanen du apuntatzeko azken eguna. Interesatuak NAN zenbakia eta federazioko zein kategoria nahi duten erran beharko diote Xabi Zugarramurdiri. Lehendik federatua izanagatik, kategoriaz aldatu nahi duenak ere epe bera izanen du aldaketen berri emateko.

Lehen jaunartze eguna

Menu ezberdinak
Haurrentzako animazioa

Bazkal ondoren haurrek jolastu, dantzatu eta ongi pasatzeko espazio berezia dugu, **animatzailer** baten eskutik. Eguraldiak ez badu laguntzen egokitutako leku estalia dugu.



ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

KONTSULTATU GURE ESKAINTZAK



GERTAERAK → URTARRILAREN 6AN

Kalteak eragin ditu Errege Eguneko elurteak

Elurraren kargaren eraginez, ehundaka zuhaitz erori ziren

tuz. Arratserako, pixka bat epeldu zuenez, elurra urtzen hasi zen, kalte ikaragarriak utzita halere. Ehundaka zuhaitz lurrera botatuak zituen ordurako, kargari ezin eutsiz. Klase guzietakoak hondatu zituen ekaitzak baina akaziak eta urritzak kaltetu zituen bereziki.

Larunbata arratsaldean bortz orduz egon zen herria argindarrik gabe. Berrizaun auzoa, berriz, egun oso batez, igande arratsaldera arte. Iribarrengo bordako bide zaharrean, orain dela bi urte sute beldugarria sortu zen leku berean, zuhaitzak berriz ere linearen gainera erori izanak eragin zuen mozketak.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Berrizaun inguruko paraje hau hamaika burukomin ematen ari azken urteotan. Erortzeak, suteak... maiz ikusten ditugu langileak bertan.

Biltokiko batzarra

Larunbaterako, ilbeltzaren 27rako, deitu ditu Biltoki Elkarteak bere 217 bazkideak, urteroko batzar nagusira. Urteko ekintzei errepa-soa, kontuen gora-beherak, bertako garbitasun lanpostua eta juntaren berritzea izanen dira jorratuko diren gaiak, berteak berte.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Maiana, Eider, Andrea, Maria, Ainara eta Iker, iaz mozerro.

Inauteri goiztiarrak

Inauteri goiztiarrak izanen dira aurtengoak, otsailaren 2a eta 3an os-

patuko baitira. 40 gazte roen taldean. Ea aurt-baino gehiago kontatu ten ere bertze hainber-genituen iazko mozo-tze elkartzen diren.



bai euskarari zozketa BIZI EUSKARA!

SARIDUNAK

2018ko urtarrilaren 12an, 09:30ean, Bortzirietako Euskara Mankomunitatean eta idazkariaren aitzinean, saritu beharreko bi zenbakiak zozketatu dira

Saridunek mankomunitatera deitu behar dute (948 634 125 tel.) 2018ko otsailaren 28a baino lehen. Ordurako ez badira zenbaki saridunak agertzen, sariak eman gabe geldituko dira.

1.- Biltoki Elkarteak (Igantzi) eskainia, ERRIGORAREN SASKIA
1.007 zenbakia, Telleri landetxeak (Arantza) banatua

2.- Larun Haizpe elkarteak (Bera) eskainia, 50 €ko EROSKETA TXARTELA
Larun Haizpeko denda eta zerbitzuetan gastatzeko
5.158 zenbakia, Ibaiondo janaridendak (Lesaka) banatua

Sustatzaileak:



Lan eta bizi euskaraz



Babesleak:



BORTZIRIAK

GIZARTEA → URTARRILAREN 25EAN, ORTZEGUNEAN, ERRETOREBAITAN

Izarra Tanatorioaren aurkezpena eginen dute Igantzín ere

Zerbitzua Bortzirietako herri guztietan eskaintzeko urratsa eman du

TTIPI-TTAPA

Izarra Tanatorioa taldearen aurkezpena izanen da Igantzínko Erretorebaitan urtarrilaren 25ean, ortzegunean. Dagoeneko, ehorzketa zerbitzuak eskainiz, urtebeteko ibilbidea egin du Izarra Tanatorioak.

Lau beilatoki ireki ditu, Iruñean eta Sakanan. Areago, uda bukaeran zerbitzuak Berako San Jose zahar-etxean eskaintzen ibili ondotik, zerbitzua Bortzirietako herri guztietan eskaintzeko urratsa eman du. Mikel Idoate gerenteak dioenez, «Bortzirietara zabaldu gara eta hila-bete pare baten buruan Elizondón ere ireki-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikastolen hasierari buruzko liburua aurkeztu dute Beran

Nafarroako Ikastolek 1969tik 1991 arte egindako ibilbidea kontatuz, *Bidea Eginez* izeneko liburua argitaratu du Juan Luis Larrazak eta idazlea Berako Bera-landetan izandu zen urtarrilaren 9an, liburuaren aurkezpena egiten, Labiaga ikastolako sortzaileetako bat izan zen Helena Santestebanekin batera. Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendari ohia da Juan Luis Larraza Lakuntza eta ikastola izandu zen herri guztietako ordezkariekin bilduz, tokian tokiko kontakizunak eta bakoitzean bizitako pasadizo garrantzitsuenak jaso ditu liburuan.

ko dugu, baztandar guztiei zerbitzua emateko».

Izarra Tanatorioak, tokian tokiko filosofia ardatz, berrikuntza du

oinarri: «hurbiltasuna eta errotzea da gure zerbitzuen berezitasuna». Hori horrela, «Igantzín egin nahi dugun proiektu

herreritarrei azaldu nahi diegu» adierazi du Fernando Berasainek, Bortzirietako arduradunak.

OSASUNA

Estresa kudeatzeko hiru tailer prest dituzte Lesakan

TTIPI-TTAPA

Lesakako Osasun Zentroak estresa kudeatzeko hiru tailer antolatu ditu, otsailaren 20an, otsailaren 27an eta martxoaren 6an, 11:00etatik 12:30era bitarte, *Estresa nola gobernatu* goiburupean. Saioak osasun zentroaren parean Lesakako Udalaren Erabilera Anitzetarako Areatoan izanen dira (Koskontako Bidea 7, 2.ean) eta Osasun Zentruko langileek eskainiko dituzte.

Izena emateko osasun zentrorra joan behar da. Bertzalde, lantalde gehiago egiteko asmoa dutenez, orduetegi edo egun horietan saioetara joateko aukerarik ez duten interesdunek ere izena emateko deia egin dute.

ZER DA ESTRESA?

Estresa tentsio fisikoa edo emozionala eragindako sentimendua da. Urduritasunak, amorratioak edo frustrazioak eragindako edozein egoera edo pentsamendu izan dezake jatorrian. Neurri tiki-an estresak onurak eragin ditzake, giza-kiak arriskuaz ohartu eta horiek saihesteko edota gauzak tenerez egiteko prestatzen baititu. Bertzalde, estresak aunitz irauten duenean, osasunean kalte larriak eragin ditzake.

Erabili Ttapi txartela pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 26AN

Eskolan ere inauterietan murgiltzeko prest daude

Kaldereroak izanen dituzte gaitzat ikasleek

Maider PETRIRENA

Eguberriak akitu eta segituan giroan murgiltzeko prest daude herritarrak eta urtarrilaren 26ean ospatuko dituzten eskolako inauteriak prestatuak dituzte. Gaia: Datozen ikasturteetan, inauteriak Sunbillara datozela iragartzen duten kaldereroak izanen dira.

Egitarauari dagokionez, ortziralean 14:20ean etxean bazkaltzen dutenak, eskolara jantziak etorriko dira. Jangelakoak, berriz, eskolan prestatuko dira bakoitza bere gelan. 15:00 aldera, txikiak eta handiak, frontoian elkartuko dira. Bertan kantak abestuz eta joz kalejira hasiko dute. 16:00 aldera frontoian bukatuko dute. Animatu kalejira ikustera eta parte hartzera!

Jakina, eskolan ez ezik, herritar guztiek ospatuko dituzte inauteriak asteburu honetan. Ortziralean, gazteek baserri auzoetan eginen duten puska biltzeare-

kin, dantzaldiarekin eta emakumeen afariarekin hasi eta jendetza handiena biltzen duen igandeko karrozen desfilearekin akituko dituzte ospakizunak. Aitzineko aleko gehigarrian duzue egitarauaren berri eta denak ongi etorriak izanen zarete!

Malerreka kantuz otsailaren 3an

Malerrekako Euskara Zerbitzuak hilero antolatzen duen Malerreka Kantuz ekimeneko urteko lehen saioa Saldiasen egin zuten urtarrilaren 13an.


Ondotik, hilabetero, normalean lehenbiziko larunbatean bilduko dira urte osoan, udan izan ezik: otsailaren 3an Sunbillan izanen da hurrengo hitzordua.

Herrian eginen den saioaren ondotik, martxoaren 3an Iturenen, apirilaren 7an Donamarian, maiatzaren 5ean Donezteben, ekainaren 2an Urrozen, urriaren 13an Zubietan, azaroaren 3an Oizen eta abenduaren 1ean Ezkurran. Beraz, apuntatu agendan eta animatu herriz herri kantzera!



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Eskolako neska-mutikoak 2015eko inauterietan. Aurtan ere gogotsu daude mozorrotzeko.



ARGAZKIA: BIDAD IBARRA

Herriko mendigoizaleak Mendaurrera eta gero Auñamendira

Sunbillako Mendigoizaleak Mendaurrerako irteera egin zuten urtarrilaren 7an eta irudi paregabeak ikusteko aukera izan zuten. Otsailaren 11n, berriz, Auñamendira (Anie) joateko asmoa dute. Hitzordua igande goizeko 5:30ean eginen dute herriko plazan.



ARGAZKIA: RUBEN IRIGOIEN

Aspaldiko elurterik handiena Errege Egunean

Urte berriarekin batera Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak etorri zitzaizkigun azken urteetan bezala eta beraiekin batera elurte ederra ere aspaldiko urteetan herrian ikusi ez zena. 1985az geroztik ez dela horrelako elurterik izan aditzen zen karrikan. Herriko haurrak disfrutatzeke aukera izan zuten herrian ohiturarik ez baitago elurra ikusteko.

Ba al zenekien

Eguberrietako atsedendialdiaren ondotik, **Jubiletaka zerbitzua urtarrilaren 11n berriz ere hasi zela? Animatu parte hartzera!**



DONEZTEBE

GIZARTEA → URTARRILAREN 12AN

1.662.000 euroko aurrekontua onartu du Udalak

Aurrekontua onartuta, zehazturiko lehentasunei helduko die

Marga ERDOZAIN

Urtarrilaren 12an egindako udalbatzak aho batez onartu du 2018ko aurrekontua. EH Bilduko sei zinegotzi eta PSNko bat bertaratu ziren aipatutako bilkura-ra.

Diru-sarrerei dago-kionez, azpimarragarria da, Udalak ez duela zerga eta tasen prezioa goitu. Sarreren %45a hortik jasotzen duen heinean, %25a Nafarroako Gobernu funtsetik lortzen du.

Aurrekontua onartuta, Udalak ezarritako lehentasunei helduko die. Bertzeak bertze, San Migel ikastetxeteko egoitzan leihoak aldatuko dituzte (guztiak erabat berrituta geldituko dira), Haur Hezkuntzan, berriz, komunak zaharberritu egiten dira eta segurtasunean ere hobekuntzak egiten dira.

Liburutegiko zerbitzuen informatizazioari eta mobiliarioari dago-kionez, moldaketa lanak egiten dituzte. Bertalde, herri lanetan espaloien moldaketari bukaera emanen zaio, farola gehiago paratuko dira, zakurrentzat gune bat egien da, herri osoan zehar aparkatzeko tokiak margotuko dira...

Intzakardi parkearen berritzea izanen da 2018rako aurreikusita-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Uholde-arriskuari aurre egiteko udal plana homologatu du Nafarroako Babes Zibilerako Batzordeak

Nafarroako Babes Zibilerako Batzordeak udal-ekimeneko hiru planen homologazioa onartu du uholde-arriskuaren aurrean: Doneztebekoa, Atarrabiakoa eta Baztangoa. Homologazio hori Nafarroako Jauregian urtarrilaren 16an egindako batzarrean onartu zen. Doneztebeko planak udalbatzaren onespina izan du. Otsail erdialdera doneztebarrei aurkezpena egingen zaie. Etxe guztietara horri dagokion diptikoa banatuko zaie, azalpenak eta larrialdietarako jarraibideak emanez. Uholde-arriskuaren aurkako udal-ekimenerako plana erreminta baliotsua da: informaziorako, alertarako eta mota hauetako balizko larrialdietarako jarduna kudeatzeko, hau da, larrialdi dispositibo iraunkor eta eguneratu bat ezartzeko. Populazioa babestea du helburu, eta, ahal den neurrian, gerta daitezkeen kalteak saihestu edo txikiagotzea. Plan honek, bertze aspektu batzuen artean, uholde baten aurreko jardun-prozedura jasotzen du, eta baita tokiko entitatearen eta SOS Nafarroaren arteko alerta- eta komunikazio-prozedurak ere. Udaletako bilkuretan onartzen dira planok, eta Babes Zibilerako Batzordeak homologatzen ditu, Nafarroako Gobernuaren Uholdeen Plan Bezian osoki integratzen diren ziurtatzeko. Doneztebeko plana Nafarroako Gobernu teknikariek burutu dute udalaren laguntzaz.

ko bertze lehentasunetako bat. 2018an Osasun Zentroaren urbanizazioa ere egiten dute.

Heldu den urtean herriak ur-depositoa aldatzeko asmoa du; eta horretarako, aurten dagozkion aurre-lanak burutuko dira.

Aurrekontu horrekin kultur agenda ere atonduko da (11.000 euro eskainiz), bestek eta feriek ere aparteko aurrekontua izanen dute. Gai-

nera, bertako kirol talde eta bertze herriko hainbat talderi dirulaguntzak banatuko zaizkie. Azkenik, gure

zerbitzu guztien funtzionamendua eta langileen gastuak ordainduko dira.

Ba al zenekien

2017ko urtarrilaren 1ean 1.732 bizilagun zituela herriak, 2016an baino 32 gehiago. Horietatik 884 gizasemeak dira eta 848 emakumeak. Aipatzekoa da 2015ean 1.658 bizilagun zituela herriak, beraz bi urtez 74 herritar gehiago ditu. Mende hasierako datuei erreparatuta, 2000. urte hasieran 1.359 bizilagun ziren. Hortaz, hamazazpi urtez 373 biztanle gehiago dira.

FLASH

Zirko familia tailerrak otsailean

Agendaren barrenean Udalak otsailaren 3, 17 eta 24rako eskoletako gimnasioan Zirko Familia tailerrak antolatu ditu, goizeko 11:30-etik 13:00etara bitartean. Tailer horien helburu nagusia akrobazia eta jolasak era dibertigarri batean familian lantzea da. Familia bakoitzak tailerreko bortzina euro ordaindu beharko ditu. Izena emateko honako telefonora deitu behar da: 659 797195 (Janire).

Gimnasioko urteko bonoak ateratzeko epea zabalik

2018an kiroldegiko gimnasioa erabiltzeko bonoak eskuratzeko epea zabalik dago dagoeneko. Aitzineko urteko bonoa duenak hori berri beharko du; aitzitik, erabiltzaile berriek bonoa eskatu beharko dute. Prezioak iazko berak dira. Informazio eta argibide egiago nahi izanez gero, Rosariok emanen ditu.

Zine emanaldiak

Urtarrilaren 14an hasita, zinema emanaldiak antolatzen jarraitzen du Erreka guraso elkarteak. Hurrengo hitzordua urtarrilaren 28an, igandean 16:30ean izanen da.

Errekako eskubaloi talde nagusia Txapeldunen fasera

Oraindik lehen fasea akitzeko lau partida jokatzeko zituela, Errekako talde nagusikoek aurten Txapeldunen fasea jokatuko dutela jakin dute.

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 19TIK 21ERA

Giro ederrean joan dira inauteriak aurten ere

Larunbatean batukada eta igandean mozorro lehiaketa eta mus txapelketa egin ziren

Mattin LARRALDE

Giro ederra izan dugu herriko inauterietan. Urtarrilaren 19an 20:00etan, trikitixaren doinupean, herrian barna ibiliz hasi genituen. Segidan, afaldu eta mahai-inguruan euskal

kantu eta kontu zaharrak kantatzen eta kontari ibili ginen.

Larunbatean, gosari ederra eginez hasi genuen eguna. Gosal ondotik, Frantziskoren musika lagun, mozorroa jantzi eta herrian barna ibili ginen, saldaren truke igandeko zozketarako txartelak banatuz. Herriko Ostatuan bazkaldu ondotik, batukadan parte hartzeko aukera izan zen, mutilak animatzailez eta neskak futbol edo errugbi jokalariz jantzita. Eguna bohorobiltzeko Zorrollo elkar-

tean afaldu genuen, Mikelo ostatutik ekarritako jaki gozoak dastatuz. Besta biharamunera arte luzatu zen, Frantziskoren akordeoilarien soinupean.

Igande goizak ez zuen nahi bezala argitu asorentzat, baina Herriko Ostatuan indarberritzeko bitartekoak eskaini zitzaizkien. Trikitixa soinurik ez zen falta izan, eta mozorro lehiaketa jende andana bildu ginen. Eguerdian pintxoz pintxo ibili ondotik, mus txapelketa jokatu genuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bikain hasi da Iruñe Izkue banakako Urrezko Aizkolaria lehiaketan. Lehen bi jardunaldietan, Maika Ariztegi iturendarrari eta Nerea Sorondo beratarrari (argazkian) irabazi die.



Ba al zenekien

Urtarrilaren 27an, larunbatean, herri-batzarra izanen dela, 18:00etan. Pintxoak ere izanen dituzte, solasaldia pintxo zapoz goxatzeko.



Zure jaunartzean besta egun zoragarria!

Menu aukera zabala • Jangela pribatua • Bazkal ondorengo festa (aukeran)



ITUREN

GIZARTEA → URTARRILAREN 25ETIK OTSAILAREN 4RA

Puska biltzearekin hasiko diren inauterietarako prest daude herritarrak

Kontuen eguneko apustuan ateratako dirua Enaitzi laguntzeko izanen da

Arkaitz MINDEGIA

Urteroko hitzordua haundia ate-atean daukagu herrian. Osteguneko puska biltzearekin hasiko dira, eta Iturenen Kontuen egunakin eta Aurtitzen Zaharren Afariarekin bukatuko dira.

Gure herriko txoko guzietan, bai joare, baita musikaren soinua erhedatuko da. Astelehenean, Itureneko egun handian, eta asteartean, Zubietakoan, ez ezik, gainerako egunetan ere giro goxo eta polita izanen da herrian. Aitzineko alean gure herriko inauterien informazio luzea eskaini ondotik, oraingo honetan, gonbidapena luzatzen dizuegu.



ARGAZKIA: MARIA LARRETXEA

Aurten ere Pulunpa eskolako ikasleek kolorez beteko dute herria.

HERRI-KIROLAK

Iturenko inauterietako kontuen egunean bazkari eta bertsoez gainera, urtero herri kirolen loturiko ikuskizuna izaten da, kanpoko kirolariak batzuetan, eta bertakoak bertzeetan.

Aurtengoan ere herritarrak parte hartuko dute beraien artean lehiatuz. Egur lote bat ekarri eta talde batek zein bertzeak egur lanak egin beharko dituzte. Motozerra, aizkora... erabiliz egurra moztu eta pilatuz ariko dira. Lanak egin

bidenabar boletu batzuk salduko dituzte, saria mozturiko lotea izanen da. Aterako dirua Enaitzendako izanen da.

BIRZIKLAPEN TAILERRA

Pulunpa eskolako 2. eta 3. zikloko ikasleek Nafarroako kudeaketa enpresaren eskutik, birziklapen tailerra egin zuten. Batukadako tresnak sortu zituzten inauterietarako desfilean parte hartzeko. Haur Hezkuntzakoek ere parte hartuko dute beraiek sorturiko tresnekin.

Guraso elkartea martxan

Ikasturtean zehar Pulunpa eskolako guraso elkartea buru-belarri dabil hitzaldi, tailer eta gisa guzietako ekitaldiak antolatzen. Azken ekitaldia urtarrilaren 17an izan zen, Umeak eta Izurak izeneko hitzaldia eskaini zuten.

Ekitaldi horiek guztiak aurrera eramateko dirua behar zuten, egutegiak eta kamiseta polit-politak saltzen ibili dira.

Herriko bertsolariak

2017an herriko bertsolariak Nafarroako eta Euskal Herriko bertso txapelketetan parte hartu zuten, baita Bertsoakabi sariketan ere.

Ereindako uztaren fruitua ere jaso dute, txapela herrira ekarri baitute. Aitzitik, ez dira txapelketetan bakarrik ibiltzen, han eta hemengo herriko besta edota ekitaldietan ere kantatzen dute. Gorosterrazu anaiak dira horren lekuko.

Egoitz Gorosterrazu San Anton egunean Elizondon izan zen, Iker Gorosterrazu, berriz, Iruñeko Maravillas Gaztetxeko I. Bertso traman.

Saioa Alkaiza, Aina Jeregi, Josu Sanjurjo eta Irati Majuelorekin batera bertsoekin marka baten hilketaren inguruko misterioa argitu zuten. Orain, berriz, Bardoak txapelketan parte hartuko dute. Hurrengo zenbakian izanen dituzue horren inguruko xehetasunak.

EN plus A1
ES 025

BEROPEL
egurrezko pellets

ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

Osatuz
Psikologia- Psikoterapia
Haurrak-helduak

Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA
BIKOTE ETA FAMILI PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK:
haurrak, nerabeak, helduak

619 343 755 Altzate 1 BERA

BORDALARREA

Gure Haragia
Nuestra Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27
MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444
Fax. 943 473 726
carnesein@bordako.com

OSPAKIZUNAK → BI URTEKO LANAREN ONDORIO

Bete-betean inauterietan sartzeko aiherrak daude herritarrak

Igandeko merendurako txartelak okindegian daude salgai

Fermin ETXEKOLONEA

Urtea festaz festa hasi dute herritarrek. Horren adierazle dira Errege bezperako joare soinu eta bertsoak, San Anton Eguneko musika... Baina horiek guztiak urtarileko azken aste festarako gorpuzta berotzeko bitartekoak baino ez dira izan.

ERREGE BEZPERA

Urtarrilaren 5ean, urteroko ohiturari eutsiz, herriko ttikiek joareak astindu zituzten, etxez etxe eskean ibili zirelarik. Gauean, berriz, bertso afarian bapojan ondolik, Agin Laburu eta Jon Maiak hartu zuten lekukoa, lehendabizikoz joare kolpeak emanez. Eguraldia kaxkarra izanagatik, goizean goizetik hasitako mugimendua biharamunera arte luzatu zen batzuentzat.

SAN ANTON EGUNA

Errege bezpera eta inau-



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Errege bezperako argazkiak ederki islatzen duenez, joaldunek badute etorkizuna herrian.

terien artean beste hitzordu bat ere badute zubietarrek, San Anton egunekoa, zehazki.

Goizean elizako buelta egin ondolik, herritar batzuk Errandonea ostatuan elkartziren, gosaltzeko. Arratsaldean, berriz, haurrendako txokolatada eta Joxe Angelen musikaz gozatzeko izan zuten.

INAUTERIAK

Larrua eta joareak ganbaretarra goitu gabe utzi izanen dituzte herritar askok. Izan ere, hitzordu batetik atera orduko bestea ate joka

ari zaigu herrian.

Prestaketak ere egin dituzte. Besteak beste, urtarrilaren 11n, joan den urtean sortutako zalaparta galarazteko, Forruzaingoarekin bilera izan zuten herrian.

Gazteen otordu guztiak prestatzen dituen sukaldaria, Patxiku Mitxelena, eta beste langileak ere, buru belarri ari dira aurrera daitezkeen egitekoak egiten. Eta Herriko Ostatura hartzeko Udalak ateratako deialdiak ere erantzuna izan du. Mikel Elizalde eta Maria Mitxelenak hartu dute ardura.

Aurreko zenbakian

aipatu bezala, astelehena Iturenen eta asteartea Zubietan izanen dira egun handiak. Baina horiez gainera, larunbateako afaria, igandeko bazkarian eta asteazkenean ere izanen da non gozatua.

Igandean, gainera, azken urteetan bezala, herriko ttikientzat mozzorro festa antolatuta dute gurasoek. Besteak beste, mozzorro, kantu eta dantza artean, Herriko Ostatuan merendu gozoa dastatzeko aukera izanen dute. Txartelak urtarrilaren 25era arte daude salgai, 3 eurotan, okindegian.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Merkealdia

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

GIZARTEA

POPULAZIOA → INEKO UDAL ERROLDAREN ARABERA

Ez da gorabehera handirik izan bizilagun kopuruan

2017 urte hasieran 26.299 biztanle zituen Ttiipi-Ttaparen Nafarroako eremuak, urtebete lehenago baino bat gehiago

TTIPI-TTAPA

Espainiako Estatistika Institutuak argitaraturiko datuen arabera, 2017ko urtarrilaren 1ean, 26.299 herritar zituen eskualdeak, 2016 hasieran baino bat gehiago. Datu bitxi bezala, urtebeteko alde horretan 44 emakume gehiago eta 43 gizaseme guttiago zituen eskualdeak.

Azken 50 urteetako goraldiaren ondoren Ttiipi-Ttaparen Nafarroako eremuko herrietan biztanleria kopurua dezentente egonkortu dela esan dezakegu. Salbuespen argi bakarra Doneztebe da. 1960an 785 biztanle zituen Doneztebek, eta orduetik, izugarri hazi da herritar kopurua, 2000n 1.359 ziren heinean, egun 1.732 bizilagun dira.

Banaketari dagokionez, gorabeheraren bat antzeman daiteke: 8.557 dira Bortzirietan erroldatuak, joan den urtean baino 18 gehiago; eta 7.736 Baztanen, 17 herritar gehiago. Gainerakoek beherakada izan dute: 5.436 biztanle ditu Malerreka-Bertizaranak, 2016an baino 19 biztanle gutxiago; 3.944 Leitzaidea-

BIZTANLERIAREN BILAKAERA HERRIKA 2000-2017						
Herria		2017	2015	2010	2005	2000
ARANO	▼	110	108	122	143	151
ARANTZA	▼	623	638	647	625	655
ARESO	▼	261	260	277	291	293
BAZTAN	▲	7.736	7.792	8.081	7.798	7.598
BEINTZA-LABAIEN	▼	232	231	249	268	290
BERA	▲	3.763	3.768	3.730	3.666	3.490
BERTIZARANA	▼	591	590	647	678	657
DONAMARIA	▲	434	443	438	414	387
DONEZTEBE	▲	1.732	1.658	1.688	1.504	1.359
ELGORRIAGA	▼	203	219	221	223	206
ERATSUN	▼	154	150	159	178	180
ETXALAR	▲	808	801	827	801	789
EZKURRA	▼	154	154	163	200	232
GOIZUETA	▼	717	736	778	814	903
IGANTZI	▲	626	618	632	617	588
ITUREN	▲	519	515	502	473	470
LEITZA	▼	2.856	2.888	2.934	2.953	2.939
LESAKA	▲	2.737	2.742	2.822	2.680	2.681
OITZ	▼	130	141	151	147	144
SALDIAS	▼	119	116	116	122	151
SUNBILLA	▼	675	648	670	670	688
URDAZUBI	▲	394	402	361	367	392
URROTZ	▼	185	186	177	184	208
ZUBIETA	▲	308	323	315	299	307
ZUGARRAMURDI	▼	232	227	212	241	234
Denetara	▲	26.299	26.354	26.919	26.356	25.992

DATU-ITURRIA: INE UDAL ERROLDA, URTE BAKOITZEKO URTARRILAREN 1EAN

Urumealdeak (5 guttiago); 626 Urdazubi eta Zugarramurdi, 10 laguneko beherakada jasanez ondolik.

UDALERRI TTIKIENETAN, ARGIA AUNITZIK EZ

Eskualdean zortzi udalerririk 300 biztanletik beheratik dituztenak eta horietatik erdiak baino gehiagok, bortzek, zehazki, herritarrek galdu dituzte. Oizek izan du beherakada nabar-

menena, 146 biztanle izatetik 130 izatera igaro baita. Elgorriagatik 9; Zugarramurdi 5; Beintza-Labaienek 3; eta Aresok 2 lagun gutxiago dituzte. Izan ere, sortzek heriotzak ordezkatzeko gaitasunik ez dute izan. Gorakada izan duten gainerako lau herri ttikien kasuan, datuak ez dira nabarmen aldatu (Ezkurran 5, Eratsunen 3 eta Aranon biztanle 1 gehiago).

Urtebetean aldaketa handirik ez bada ere, goitiko koadro horretan ikus daiteke mende hasieratik zenbait herritan alde nabarmenagoak direla. Erraterako, Doneztebek 2017an 2000. urtean baino 373 bizilagun gehiago zituen. Goizuetak, aldiz, ia 200 biztanle galdu ditu epe horretan. Eskualde osoan mende hasieran baino 307 bizilagun gehiago bizi gara orain.

URTARRILAREN 26AN ELIZONDOKO GAZTETXEAN

Iraultza boltxebikearen mendeurrena hizpide izanen dute Baztanen

TTIPI-TTAPA

Joan den azaroan iraultza boltxebikeari buruz Elizondon egitekoa zen mintzaldia elurerauntsiarengatik eleketaria etortzen ahal ez zelako bertan behera gelditu zen. Hor-taz, oraingo hitzordua urtarrilaren 26an, ortziralean

19:30ean izanen da Elizondoko Gaztetxean.

Eneko Compains (EHUko irakaslea) ete Iraitz Agirre (Emagin elkarteak) izanen dira hizlari, *Iraultza boltxebikeak 100 urte. Oraingo Euskal Herrirako ze irakaspen?* gaiaren inguruan.



GIZARTEA → URTARRILAREN 11N NATUR PARKEAN

Elkarretaratzea egin dute basozainari eginiko erasoak salatzen

Isabel Elizalde gertakaria «larria eta jasan ezina» dela adierazi du

TTIPI-TTAPA

Landa Garapen, Ingarumen eta Toki Adminis-

trazioko kontseilariak, Isabel Elizalde, eta Ingarumen zuzendariak, Eva Garciak, joan den urtarrilaren 6an Bertizen basozain bati eginiko erasoak salatzen zuten elkarretaratzean parte hartu zuten. Nafarroako Basozainen Elkarteak, UGT, ELA, LAB,



AFAPNA eta CCOO sindikatuekin batera iragarritako elkarretaratzea Iruñeko departamentuan egin zen, *Basozainei erasorik ez* lelopean.

Kontseilariak gertakari hori «larria eta jasan ezina» dela aldarrikatu zuten, «gure elkartasuna eta babes adierazi nahi diogu bai egoera hori pairatu zuten basozainari bai eta basozain talde guztiari ere. Langile horiek eginiko lana ezin da

zalantzan jarri, ingurumen zaintza eta babeserako beharrezkoa da».

Gertakaria urtarrilaren 6an gertatu zen, 10:00 aldera. Elizondoko foruzainek isileko ehiztaria, basozainari eraso eta mehatxu egin izanaleporatuta, atxilotu zuten. Horrekin batera, azpimarragarria da, elurte garaian eta natura parkeetan ehizan ibiltzea guztiz debekatuta dagoela. Orain, kasua epai-

learen esku gelditu da.

Departamentuak kasuotako protokoloa martxan jartzeaz gainera, laneko arriskuen prebentzioari dei egin dio eta basozainari laguntza psikologiko eta juridikoa eman dio. Elizalderen hitzak ekarri, «Departamentuak basozain taldearen lan baldintzak hobetzeko lanean jarraituko du. Hori bera islatzen dute azken bi urteetako aurrekontuek».

DONEZTEBE

Hasi dira **MALERREKA PROMOZIOAK** promotorak egindako etxebizitzak eraikitzen.

Dagoeneko 2. faseko etxebizitzak salgai



Ez galdu aukera!

- ✓ Zure beharren **araberako finantziazioa**, Rural Kutxaren babes eta abalarekin
- ✓ **B ziurtagiria**, isolamendu berriak, sistema aerotermikodun berogailua (kontsumo baxua)
- ✓ **Material nobleetan** eraikia
- ✓ **Barne materialak aukeran**: egurra, azulejoak...
- ✓ Sukaldea eta lokala gurekin erosiz gero, **%11 aurreztuko** duzu

Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170



ZURE BEHARRIN ARABERA,
2 eta 3 logelako etxebizitzak.
Zuk erran eta guk egin!

58 m²koak:
sukaldea/egongela, 2 logela, 2 komun.

74 m² eta 90m² inguruak:
3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.

135.000 €tik goiti

LOKALAK ere baditugu,
txoko, garaje edo
lokal komertzialak egiteko

BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → MIKEL ALBISUREN ORDEZ

Patxiku Irisarri da Baztan-Bidasoa Turismoa erakundeko presidentea

Urteko batzarrean 2017ko balantzea egin eta 2018ko egitasmo eta aurrekontuak ere onartu dituzte



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxiku Irisarri eta Mikel Albisu, presidente berria eta orain artekoa.

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak urte hasierako batzar orokorra egin du, 2017ko balantzea egitearekin batera, 2018ko egitasmoak eta aurrekontuak onartzeko. Balantzearen emaitzak positiboak izan dira, eta aurrekontu kontinuitateak ez ezik, lehen-dakari aldaketa ere onartu da. Orain artean Mikel Albisuk zuen kargua Patxiku Irisarri etxalartarrak hartu du. Apartamentuen ordezkaritza, berriz, Haizea Des-

tribatseri egokitu zaio.

Baztan-Bidasoa Turismoa, eskualdea eremu turistiko gisa indartzea du helburu. Eta bide horretan, bidelagun gehiago izateko, hotel, landetxe, jatetxe, jarduera enpresa eta turismoarekin loturiko establezimendu guztiei kilarde egiteko gonbidapena luzatu die. Interesdunek 948 592323 tele-

fonora deitu edo info@baztan-bidasoa.com era idatzi behar dute.

2017KO BALANTZEA

2017 urtea 2.478,53 euroko diru-sarrerekin itxi dut eta turismo sektorean ona izan dela irizten du Elkargoak. Hori horrela, ez dio muzin egin turismo gorakadak sortutako eztabaidari. Bertako ondare, kultu-

ra, natura, tradiio, bizi-modu eta hizkuntza errespetatuko dituen kalitatezko landa turismoa sustatu nahi du.

2018A PROIEKTUZ JOSIA

Urte hasieratik 18 egitasmo aurkeztu eta onartu ditu batzar orokorrak. Bertzeak bertze, web gunea eta erreserbak egiteko informazio zentroaren eraberritzea;

Zer-Egin Baztan-Bidasoan eskuorriaren berredizioa; bisita gidatuen eskuorria; eta baliabide-gidaren berredizioa.

Ehiza Jardunaldi Gastronimikoen 26. edizioa beteko dute. POCTEFA egitasmoaren baitan, Ederbidea proiektuko kide da, Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Pirinées Atlantiques eta Cederna Garalurrekin batera.

Honen baitan aurrean, "Ederbidea jardunaldia/Bizikleta eskola" burutuko da eta "Mapa Ziloturista/Ederbidea" kaleratuko da. Mapa kaleratzeko, eskualdeko Udalekin harremanetan jarri da Baztan-Bidasoa Turismoa, mapan Bide Berdea igarotzen den herrietako ibilbideak agertzeko.

Egitasmo horiek guztiak aurrera eramateko, 64.305 euroko aurrekontua onartu du.

MALERREKA, BORTZIRIAK ETA BAZTAN

Hondakin zerbitzuen egutegiekin zozketatutako urteko lehen 300 euroak Etxalarrera joan dira

Mari Asun Irigoien Sanzberri egokitu zaio erosketa txartela

TTIPI-TTAPA

Azken urteetako ohiturari ertsiz, aurrean ere Baztango Udalak eta Bortzirriak eta Ma-

lerrekako Mankomunitateek zonaldeko etxe guztietan banatu den egutegia prestatu dute. Informazio interesgarria ematearekin batera, hiru hilabetetik behin egiten diren zozketetan parte hartzeko aukera ematen du egutegiak. Saria eskualdeko dendetan gatzatzeko 300 euroko erosketa txartela da. 2018ko lehen sa-



UTZITAKO ARGAZKIA

Txomin Elgorriaga teknikaria eta Mari Asun Irigoien sariduna, saria eman eta jasotzerakoan.

riduna Etxalarko Mari Asun Irigoien Sanzberri da. Txomin

Elgorriaga teknikariak eman dio saria.

BERTSOLARITZA → OTSAILEKO LEHEN ASTEBURUAN

Bardoak bertso ekimena Beran eta Leitzan abiatuko da

TTIPI-TTAPA

Bardoak, Nafarroako taldekako bertso ekimenak, laugarren edizioa izanen du aurten goa. Otsailaren 2an Beran hasi eta martxoaren 24an Lekunberrin jokatuko den finalera bitarte 23 saio antolatuko dituzte. Bertso-eskoletatik abiatuta bertso-eskolen sarea indartzeko proiektu horrek bertsolari eta bertsozaleen ha-

rrobia berritu, gune berriak zabaldu eta bertsolari gozamen gisa eskaintzea du helburu. 16 taldek hartuko dute parte, 185 parte-hartzaileekin. Guztira, 74 bertsolari aterako dira plazara, inoizko kopururik handiena.

Lehen fasea otsailaren 2tik 18ra bitarte jokatuko da, 16 saiorekin. Bigarren fasea berriz, martxoaren 2tik 11ra (6



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2016ko finaleko irudia, Etxarri-Aranatzen. Xabat Illarregi leitzar gaztea kantari.

saio) eta finala, martxoaren 24an izanen da Lekunberrin.

Ohikoaenez, eskualdeko hainbat taldek parte hartuko dute txapelketan eta zenbait saio eskualdean jokatuko dira. Lehenbizikoa, otsailaren 2an, 20:30ean, Berako Katakuko ostatu-

an, herriko *Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi* eta *Sakana Zirt* taldeen artean. Otsailaren 3an, Leitzako Atekabeltz gaztetxean ariko dira Leitzako *Aldatzea komenieta Topa bardo kopa!* taldeak, 18:00etan.

Otsailaren 9an, 19:00etan Lesakako

Arrano elkartearen ariko dira *Unibertsolariak* eta *Barakinak* taldeak.

Lehen faseko azken saioa Elgorriagako Ostatuan jokatuko dute otsailaren 17an, 18:00etan, Malerreka-ko *Addams familia* taldeak eta *Barañetak* taldeak.



nafarroako taldekako bertso ekimena

Otsailak 2, OSTIRALA

Berako Katakuko tabernan,
20:30ean, bertso merendua

IBARDIN: HIRU TA LAU DIRA ZAZPI

(Bera)

Patxi Castillo
Aitor Elexpuru
Julen Zelaieta

(Sakana)

Idoia Granizo
Eneko Lazkoz
Unai Artieda

Otsailak 3, LARUNBATA

Leitzako Atekabeltz gaztetxean,
18:00etan, bertso merendua

ALDATZEA KOMENI TOPA BARDO KOPA

(Bera)

Diego Riaño
Mikel Azpiroz
Aitzol Eizmendi
Xabat Illarregi
Joanes Illarregi

(Iruñea)

Saioa Alkaiza
Irati Majuelo
Ander Perez

informazio osoa
www.bertsozale.eus

Antolatzailea



Iaguntzailea



ARKUPEAK

GIZARTEA → OTSAILAREN 22AN

Urteko lehen bidaian Baiona eta Azkaine bisitatuko dituzte elkarteko kideek

Azkaineko oihal fabrikari eta Baionako karraketan ibiliko dira

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak Elkarteko 17. buletinean zehazten den bezala, urtarrian lehendabiziko urteko mendi irteera egin ondotik, dagoeneko, otsailaren 22rako lehen bidaia antolatzen ari dira. Lehendabiziko bidaia hori Baionara eta Azkaineko oihal fabrikara egiteko asmotan dabilta eta bi autobus antolatu nahi dituzte, bidaia bi taldetan banatuz.

Hala, talde bat Azkainera joanen litzateke. Bertan, oihalak ikusi, museoa bisitatu eta, nahi duenak, erosketak egiteko aprobetxatu ahalko du.

Era berean, 1910etik historia luze eta ekoizpen oparoa izan duten oihal fabrika ikusi eta oihalaren diseinutik bukaerako ekoizpenerako ibilbidea ezagutuko dute. 80ko hamarkadan euskal oihalak modan egon ziren, nazioartearaino hedatu zirelarik. Orduko tendentzia izan ziren oihalak tradizionalki eta artisau-lanen bidez prestatzen

ziren. Lan hori bisita gidatu baten laguntzaz bertatik-bertara ikusteko aukera izanen dute.

Azkainen ordu eta erdi inguru egon ondotik, Baionara abiatuko dira, bertako txoko eta karrika nagusienetan ibiliko direlarik. Bertzeak bertze, alde zaharrea, katedralean, euskal museoan, udaletxean, merkatuan eta gotorlekutara barna han eta hemengo toki esanguratsuenak ikusiko dituzte.

Bide batez, bertako produktu tipikoak diren txokolata eta Ezpeletako magra eta piperrak dastatzeko parada ere izanen dute. Bi talde osatuko balira, bertze taldea lehendabiziko Baionan, eta gero, Azkaineko fabrikari ibiliko litzateke.

Ondotik, 14:00 aldera, Dantxarineko Oihana jatetxean, mahaiaren bueltan, denak elkartuko dira. Bertan bazkaldu eta Joseanen musikaz gozatzeko aukera izanen dute, kantuan eta dantzan ibiltzeko aukera paregabea.

110 bidaiari baino gehiagok izena emanen balute, bertze bidaia bat antolatuko litzateke. Edonola ere, kasu horretan, aurretik, behar besteko denboraz, jakitera emanen litzateke.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko eskulangile guztiek beren lanak ezagutzera emateko bilkura egin dute

Joan den urtean, Arkupeak elkarteko kide artistek beren lanak Leitzan, Donezteben eta Elizondon aurkeztu zituzten. Halere, ez dira elkarteko artista bakarrak, eta guztien lanak ateratzea helburu, berriki, Oronoz-Mugairin bildu ziren, elkarteko kide diren gainerakoen lanak atera eta ezagutzera emateko helburuz.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA


44 lagun Berako mendi irteeran

Urtarrilaren 16an, 08:30ean Zalain jatetxean elkartu eta, ohiko argazkia atera ondotik, Ibardinerantz jo zuten Arkupeak elkarteko 44 mendizalek. Lakuan gozatzeko asmoa zuten, baina eguraldiak lagundu ez zuenez, Ibardingo benta ingurura hurbildu eta Elizalde jatetxe inguruan gosalduta zuten. Mendibizkarerra igo ziren, 6. eta 7. mugarrietan barna, parajeaz gozatzera. Ondotik, ibilbidea hasi zuten tokira joan ziren, eta bertan bazkaldu zuten. Bortz ordu inguruko ibilaldia egin zuten. Bazkalondan, Donejakue Bidea egiteko aukera mahai-gainera atera zuten. Ibilbidea zehazteke utzi zuten, eta beraz, aurrerago adostuko dute, baina 16 mendizalek parte hartzeko borondatea erakutsi zuten, bi aukerarekin: Frantziako Bidetik edo Iparraldeko Bidetik egitea.



IGANTZI

INAUTERIAK 2018



EGITARAU

OTSAILAK 2, ORTZIRALEA

10:00 aldera Berrizaun auzotik hasita, etxez etxe eta baserri baserri **eskean** ibiliko dira gazteak Azpeitiako trikitilariekin. Herrira bueltan, bidegurutze aldeko **etxeetara bisita** egingen dute eta gero, Frain auzora joanen dira. **Bazkalondoan** herrian eta Sarrola eta Lasaga auzoetan **eskean** ibiliko dira gazteak. **Gauean** **afaria** egingen dute.



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
E. zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es



TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK S.L.

Piedadeko auzoa, 8 · 31790 IGANTZI
Tel. 608.202.126 / 618.901.810

OKILA
zurgindegia

- tarimak, leihoak, atek, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein
Mikel Anburua

Ongi pasa inauteriak!

607 88 39 68 · mikel@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI

ONGI PASA INAUTERIAK! Ingurumen Zerbitzuak


ezpala

- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- MENDIETAKO DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA
- INGURUMEN TXOSTENAK OKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA · T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com

OTSAILAK 3, LARUNBATA

08:00etan Mozorroak elkar-tu eta Irisarri auzora joanen dira gazteak. **11:00 aldera** herrira bueltatu eta Unanu auzora eta Piedade gainera joanen dira. **Ilunabarrean** etxez etxe **eskean** ibilita banatuko dituzten boletoen **zozketa** egingen dute gazteek. **Gauean** **afaria** egingen dute.



IGANTZIKO UDALAK
inauteri zoriotsuak
opa ditzkie igantziar
eta bisitari gutziei



EGITARAU

OTSAILAK 1, ORTZEGUNA

09:00etan Mozorro Zuriak Primi ostatuan **gosalduko** dute. **Ondotik** eskolako neska-mutikoei bisita eginen diete bizkarrekoak parartzeko. Segidan bi taldetan banatuta Mozorro Zuriak lau baserri auzoetara joanen dira Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilariekin. **Egun osoan baserriz-baserri** ibiliko dira eskean. **Arratsaldean** eskolan inauterietako besta. **Arratsean** Mozorro Zuriak Primi ostatuan afalduko dute.

OTSAILAK 2, ORTZIRALEA

Goizean, Mozorro Zuriak Primi ostatuan **gosalduko** dute eta ondotik, musikarien laguntzarekin, herrian barna ibiliko dira etxez etxe. **Eguerdian** Mozorro Zuriak Burlada jatetxean **bazkalduko** dute. Egun osoan eskolako neska-mutikoak baserriz baserri eta herrian etxez etxe **puxka-puxka ibiliko** dira. **Arratsean bertso afaria** izanen da Aterpean Jon Maia eta Alaia Martinekin. Aldi berean, **Emakumeen afaria** Burlada jatetxean. **Gauerditik aitzinera dantzaldia** izanen da Gorapean Beñat eta Fernando-ekin.

OTSAILAK 3, LARUNBATA

Eguerdian Mozorro Zuriak Pabloenean **bazkalduko** dute. **17:00etan** haur, gazte eta heldu mozorrotuen **kalejira** eginen da herriko trikitilarierekin. **Ondotik**, txokolata eskainiko dute Mozorro Zuriak eta Guraso Elkarteak. Musika ere izanen da. **Ilunabarrean**, **Urrezko Aizkorako finalerdia** jokatu da frontoian. **Arratsean** Mozorro Zuriak Ekaitza Elkarteak **afalduko** dute. **Gauerditik aitzinera dantzaldia** izanen da Gorapean Obaneuke taldearekin.



Burlada
JATETXEA

BEREZITASUNAK: Haragiak
Arrainak
Etxeko postreak

MENU BEREZIAK: Taldeak, mendizaleak
Jaunartzeak
Otorduak

T. 948 634 027 | www.restauranteburlada.com | ARANTZA

ongi pasa inauterietan!

A

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

PRIMI
ostatua

ongi pasa inauterietan!
Tel. 948 634 052
Goiko karrika, 7 · ARANTZA

ilargi
okindegia

LAPEZENA
ARANTZA

ongi pasa inauterietan!

Enkarguak 948 634 156 · ARANTZA

**ARANTZAKO UDALAK**

inauteri zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei





Xatur LARRALDE IBARROLA

Arantzako inauterizalea

«Kontua ez da zein mozorro paratzen dugun, egoerari zentzua ematea baizik»

Nonahi badira inauterizaleak, baina seguru aski guttiago izanen dira Xatur adina irudimen erabili eta gozaten dutenak. Gustuko ditu inauteriak. Halaxe dio berak, baita bere inguruko bertze edozeinek ere. Haurra zela, Frankismo garaiko inauteriak ezagutu zituen: «inauteriak galara-ziak ziren eta udaberriko bestak deitzen zieten». Orduko Mozorro Zuri eta Beltzen harat-honatez ere oroitzen da: Mozorro Zuriak Frantzian ari ziren mendi-mutilak izaten ziren eta «etortzen zirenean, giro polita sortzen zen». Mozorro Beltzak ateratzean, berriz, «eskapo» joaten omen ziren: «aurpegia estalita, pulunpa handi batekin eta makila eskuetan agertzen ziren, eta jo egiten zuten». Baina hortik haratago, Mozorro Beltzen gaia aztertzeko modukoa dela uste du: «neska eta mutilen harremanak mugatuak eta errepresio haundiko urteak ziren. Moztasun edo ezintasun horiek agertzeko tresnak izandu dira Mozorro Beltzak».

GAZTAROKO INAUTERI MUGITUAK

16 bat urte zituela, Frankismo garaian, euskal kantagintza sustatzen hasi ziren inauterietan. «Trabak traba, urte batzuez kontzertu arrakastatsuak egin genituen». Beranduago, diktadura bukatuta, pantomimak antolatzen hasi ziren: «gauza kritikagarri aunitz ikusten genituenez, bizpahiru urtez, herriko kontu zehatzekin pantomimak egin genituen. Gazte kuadrilla haundia elkartzen ginen eta inauteriak protestarako probesten genituen».

«Errepresio haundiko garaietan, moztasun eta ezintasunak agertzeko tresnak izandu dira Mozorro Beltzak»

Geroztik, inauteriak «aunitz lasaitu» direla dio. Edozein moduz, ez dio gozatzeari utzi: «beti atera naiz». Ez omen du mozorrorik erosten: «arroparik zaharrenak atera eta haiekin moldatzea gustatzen zait». Eta aski modu berezian jauntzitakoa da: «behin, jendea ostatueta afaltzen ari zenean, aurpegia tapatuta, akordeoi batekin agertu nintzen. Akordeoiari barrenean kasete bat sartu nion musikarekin, eta han ibili nintzen musika joko banu bezala nire parafernalia guztiarekin». Beretzat «kontua ez baita gainean zer paratzen dugun, egoerari zentzua ematea baizik. Inauteriek badute xarma, eta jendeak egiten dena onartzen duenez, sinergia hori probestu beharko litzateke».

Maite du Arantza eta maite ditu inauteriak. Hori agerian utzi du. Hala ere, bere irudiko, «ortzegun eta ortziraleko herriko giroa bertze modu batera gauzatu beharko litzateke». Larunbateko herri-kirol saioa, berriz, «jendea zirikatatu, protesta egin edo zerbait agertzeko toki ona dela» dio. Eta bide batez, «zerbait diferentea» egiteko deia luzatu du: «taldean mozorro berdinak erosi eta janzteak ez die berezitasunik ematen inauteriei».

Ez digu argitu aurtengo inauterietarako zein asmo dituen, «sekretua» delako. Akaso Mozorro Zuri aterako da, sekula ibili gabea delako eta garbi duelako «lehentxeago edo beranduxeago» aterako dela. Ez dakigu noiz egingen duen debuta, baina ez da saltsatik urruti ibiliko.



ttipi-ttapa | 702 zk.
2018.01.25 | 29

Gasa ongi pasa
Ura inauteririk!!
Kalefakzioa

froling
Alemanian gehien saltzen
den egurrezko galdara

PATXI MUTUBERRIA
ITURRIA
Tel.: 686 23 52 30
patximutu@hotmail.com
ERAKUSKETA: Bidasoa, 45 - BERA

ecoforest
markako
pelletezko estufak

I.M.
RRIXKO
IGELTSERITZA

IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
661 735 052
ARANTZA

ESTRUKTURAK · TEILATUAK · FATXADAK · ZAHAR BERRITZE LANAK

Luis Ibarra
Zurgin lanak orokorrean
636 701 204

luisibarra86@hotmail.es t2. 690 388 263
Salbatore karrika,28 - 31790 ARANTZA (Na) f

ARMAIRUAK | LEIHOAK | ATEAK
TEILATU BERRIAK | PARKE FLOTANTEA
TARIMA | TEILATU ZAHARBERRITZEAK



BERA
INAUTERIAK 2018
EGITARAU

ARTIEDA ESTANKOA
Estanco Nº 3
Cava de Puros

Plaza Umuña 1, bajo (Aguerna)
31780 Bera
Tel. 948 631 637
Fax. 948 631 654
estanco3@estanco3.e.telefonica.net

ongi pasa inauteriak!

ERREKALDE
PLATER KONBINAITUAK **OSTATUA**
PINTXOAK **ONGI PASA INAUTERAKI!**
BOKATAK

TFNoA: 948 630 259 BERA

ZELAIETA
tabakodenda
egunkariak, aldizkariak...
Iturlandeta • BERA • 948 631 246
ONGI PASA INAUTERIAK

Ongi pasa inauteriak!

LIXOIA
OSTATU - JATETXEA
Itzea, 2 • 31780 BERA • 948 631 271

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 472

HAUTIK!!!
gorrizirudi
INPRENTA - KOPISTEGIA
948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikuluak



OTSAILAK 3, LARUNBATA

19:00etan Kaldereroak Illekuetatik herriko etxeko plazara. Ibilbidea: Illekueta-Altzate- Legia - Zahar etxea-Eztegara- Iturlandeta - Eztegara - Bidasoa karrika- San Esteban karrika - Herriko etxea. (*) OHARRA: Eguraldi txarra eginez gero, Alzateko pilotalekuan.



OTSAILAK 7, ASTEAZKENA

18:00etan Inauterietako kontzertua kultur Etxean. Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak antolatua.



OTSAILAK 11, IGANDEA

10:00etatik aitzinera goiz osoan herrian barna Eztegara pilotalekutik hasita **Inude eta artzaiak**. **18:00etan** Eztegara pilotalekutik Alzatera hasita **Inude eta artzaiak**.

OTSAILAK 8, ORTZEGUNA

Goizean zingar-arrautzea. 15:45etan Ortzegun gizen. Suhiltzaileen Parketik Eztegara pilotalekura. (*) OHARRA: Eguraldi txarra eginez gero, Eztegara pilotalekuan. **16:30ean** Haurrentzako **erromeria** Eztegara pilotalekuan.



OTSAILAK 12, ASTELEHENA

Goizean zingar-arrautzea. 19:00etatik 20:00etara batukada Batuklang taldearekin Alzateko karrikan Argia ikuskizunarekin.



**BERAKO UDALAK
INAUTERI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!**



Maria VILA ERRANDONEA
Berako emakumea

«Bidaietako jantzi eta objektu tipikoekin hornitu izan ditugu mozorroak»

Inauterietako haurtzaroko bizipenen oroitzen lausoak ditu Mariak: «kaldererotan ateratzen ginen. Aitak Irunetik alokaturiko mozorroen bueltan, etxeko lau trapu harturik, ama eta izebaren laguntzaz eginiko mozorroak jantzen genituen, baina etxeko kontuak ziren, mojetan inauteriak ez baike nituen ospatzen, «eskolatik kanpoko ospakizun ttikiren bat baino ez genuen egiten». Urte batean, Juantxo Larramendi margolariarekin eginiko karroza ere gogoan du: «ikasle izan ginenok margotu genuen».

Gazte-gazterik hasita «pare bat urtez huts egin dut. Herritik kanpo ikastera joan nintzen, eta orduan astelehena libre izatea zail izaten zen». Gaur egun, aunitzentzat «pentsaezina» da inauterietan lanera joatea: «astelehena izanagatik, herritarrek libre hartzen dute. Mozorroak ez ezik, karrrika bete ikusle etortzen da».

Hogei bat urte zituela, Fernandorekin, senarrarekin, mozorratzen hasi zen. Senarraren lana tarteko, bi urtetik behin eginiko bidaiak «Jordania, Las Vegas, Egipto, Dubai...» izan dituzte urte luzez inauterietako inspirazio iturri: «toki bakoitzetik jantzi edo objektu tipikoak ekarri eta mozorrotzeko erabiltzen genituen». Seme-alabak izateak «errotik aldatu die» inauteriak bizitzeko modua. Orduetik, «beren arrimuan, aunitzez ere gehiago mugitzen gara». Hasiera batean, musika eskolarekin mozorrotuta

ateratzen zirela ikusirik, «gurasooi, kafe baten bueltan elkartuta, gu ere mozorratu beharko ginela bururatu zitzaigun». Era berean, «inude eta artzainen egunean hamasei urteak arte ezin denez atera, gure aldetik mozorrotu eta bazkaltzera joaten ginen». Hala, «pixkan-pixkan, xingar-arraultze eskean, kaldererotan... egunero jantzen hasi ginen». Seme-alabek itzalita zuen «inauteri grina» piztu diotela esan daiteke. Izan ere, «hagitz lotsatia naizenez, ez naiz batere inauteriazalea izan, nire senarrak bertzela bizi izan ditu: inude eta artzainen konpartsan ibilia da, bai lagunartean baita bere aldetik ere, mozorro bereziak (ikusleei zapatak garbitzen, barkilloak saltzen...) egin izan ditu». Orain, «rolean sartzea kostatuagatik, dena ahantzi eta ongi pasatzea» lortzen du. Seme-alabek kokkortuta ere, beti sortzen zaio inguruan aitzakiaren bat: «duela lau bat urte inude eta artzainetan bikote helduak ateratzeko deia egin zuten, eta orduan ere, senarra bikote, hortxe atera nintzen». Beti gogoratuko duen momentua izanen da: «Berako inauterietan parte-hartzaile zein ikusle moduan bizi beharreko momentua da, bereziki, Eztegarra pasealekura heltzean emozioak gori-gori izaten dira eta».

«Ez naiz inauteriazalea izan baina seme-alabek itzalita nuen inauteri grina pizten lagundu didate».



JATETXEA - OSTATUA
Egunero 09:30etik aitzinera irekita

**BOKATAK | PLATERAK
HAMARRETAKOAK**
Etxera eramateko janaria

T. 657 472 020 · Ileketa, 11 · BERA

Ongi pasa inauteriak!



Oiartzabal
arkitektoa

Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 · 627 955 349



BIZIKLETEN
SALMENTA
ETA
KONPONKETA.

Eta orain,
GIMNASTIKA
ETA FITNESS
MAKINAK,
bizikleta estatikoak
lasterketako zintak

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri 1, BERA

948 631 218

kateabera@telefonica.net

ORBEA CONDA SCOTT BH TREK

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



**INAUTERIETAN LASAI IBILTZEKO
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU
ASTELEHEN EGUERDIAN**

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 w. www.zalain.com

ongi pasa inauteriak!!!

E D A R I A K




MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
T. 948 63 10 27 - F. 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com



LESAKA INAUTERIAK 2018



EGITARAU

OTSAILAK 7, ASTEAZKENA

11.30ean hasita inauterietako **jaialdia** izanen dute Irain eskolan.

OTSAILAK 10, LARUNBATA

Gauean afariak eta mozorroak izanen dira.

OTSAILAK 8, ORTZEKUNA

Goizean arraultze-arraultze **eskean** aterako dira ikastolako haurrak. **Arra-tsaldean**, berriz, **berendua eta musika** izanen dute.

OTSAILAK 11, IGANDEA

Goitarrak **baserriz baserri** ibiliko dira goizean eta arratsaldean herrira jautsiko dira. **17:00etan** **zako zahar ttikien** kalejira izanen da. Udal pilotalekutik abiatuko dira, Lesaka Trikitixa Taldea lagun dutela. **19:00etan** **zako zahar handiek** hartuko dute lekukoa, Mairuekin batera. **18:00etan** **dantzaldia** izanen da Plaza zaharrean.



OTSAILAK 12, ASTELEHENA

Eguerdian **orgak eta mozorroak** ibiliko dira herrian barna. **Arratsaldean**, berriz, **dantzaldia** izanen dute. Astelehen eta asteartean **fraindarrak** baserriz baserri eta herriko txokoetan ibiliko dira.




IZARRA OKINDEGIA
ongi pasa inauterriak!
PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

TRANSPORTES IRIGOYEN
ONGI PASTA INAUTERIAK
629 592 215 - Biurrana auzoa, 1 - LESAKA

IRU BIDE Erretegia · Asador
ONGI PASTA INAUTERIAK!
Biurrana, 3
LESAKA
Tel: 948 637 127

asesoria
Emaitza
AHOLKULARITZA
Kontable · Fiskala · Laborala
ongi pasa feriak!
Eltzeta, 20 beheka LESAKA | 948 638 077 | amaia@emaitza.eu

LEIZA OSTATUA
"Antoiu"
Tel. 948 637 087
Egunero goizeko 6:00etatik irekia.
BOKATAK
RAZIOAK
EGUNEKO MENUAK
ASTEBURUKO MENUA



Ane GURRUTXAGA
Lesakako gaztea

«Lesakar guztiek, bizitzan behin bederen, gozatu beharreko esperientzia da»

Luzaroan buruan zerabiltzan «beldurrei aitzin hartuz», joan den urtean, lehendabizikoz, «baina ez azkenekoz», mozorroaren bertzaldetik bizi zuen zaku-zaharren esperientzia Ane Gurrutxagak: «ordura arte Mairuz jantzen nintzen». Kezka nagusia «belarraren beroa eta karga jasateko gai ez izateak» eragiten zion, baina hori jakiteko modu bakarra «probatzea zen». Izenetik izanera gogoia zubi, eta aitzineko urteetan atera ziren «lagunek animatuta», «jendearen iritziak entzunez» eta «lagun baten arrimuan», animatzea ez zen hagitza zaila izan. Areago, «buruan bizitzan behin probatu behar nuela sartuta nuen, eta aukera ate-joka zebilen, ate zabaldu nion arte». Esperientzia «sekulakoa izan zen, ez nuen uste horrenbertze gozatu nuenik». Zaku zaharrak ikusleen begietatik bizitzea polita denik ez du ukatzen lesakar gazteak. Haatik, «jantzita zaude la, ezagutzen ez zaituzten hori zu zarela pentsatzea eta denon artean, irri, salto eta musikaren itzalean, sortzen den giroa izugarria da, hitzez azaldu ezin dena». Zaku zaharrak Lesakako inauterien berezitasuna dira herritar zein ingurukontzat. Aitzitik, «guretzat ez dira inauterietako egun berezi bakarra», bezperatik hasten duten besta eta biharamunera arte luzatzen da. Bien bitartean, «momentu guztiek dute

bereren xarma, zaku zaharrez jantzita, banda jotzen hasten den unea, «oilo ipurdia eragin zidana», ahanztiko ez badut ere, asteleheneko poteo momentua ez nuke inondik inora aldatuko». Larunbatean, normalki, «kuadrilakoak bakoitza bere aldetik mozorrotzen gara». Hortaz, hein batean, «inauteriek nahi duzun hori bilakatzeko aukera ere eskaintzen dutela» uste du: «norberaren alde bihurria, saltseroa, naturala plazaratzen da». Mozorroa jantzita, kanpotik eta barrutik eraldatzeaz gain, «irudimenak martxan paratzeko eta hurrengo urterako ideiak botatzen hasteko» ere aprobetxatzen dute lagunek: «nahiz eta ondotik, hasierako ideia goitik beheiti aldatu». Aurtengoa, dagoeneko prest dute «baina sekretuak ez dira kontatzen... Ikusi nahi duenak Lesakara etortzea bertzerik ez du!»

«Inauteriek nahi duzun hori bilakatzeko eta kanpotik ez ezik, barrutik eraldatzeko aukera eskaintzen dute».



IÑAKI JANARIDENDA

ONGI PASA INAUTERIAK



Arretxea. 12 • LESAKA • 948 638 287

ZOANSA

ONGI PASA INAUTERIAK



MARKA GUZTIEN KONPONKETA

MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05

e-mail: zoansa@zoansa.com

Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

XAGU LIBURUDENDA

Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA
Tel. / Fax 948 638 232

INTERNETEKO EROSKETEN
BILKETA ETA ITZULKETA ZERBITZUA



gata haren gain balabotak

Amazon
Corte Ingles
Zalando
Fnac
Kiabi
Philips ...

EROSKETAK
JASOTZEKO
GUNEA



KASINO

OSTATUA - RESTAURANTE



*ongi pasa
inauteriak*

Plaza Zaharra • 948 63 72 87
LESAKA



EGITARAU

OTSAILAK 8, ORTZEGUNA

20:00etan trikipotean ibiliko dira, Titi ostatutik hasita. **22:00etan** zopa jatea izanen da Herriko Ostatuan (ortzeguneko afariko eta ortziraleko bazkariko txartelak Titi ostatuan paratuko dira salgai, 25€tan). **Afalondoan** mandar originalena sarituko dute. **Ondotik**, Modestoren **musikak** girotuko ditu bazterrak.

OTSAILAK 9, ORTZIRALA

09:00etan Titi ostatuan elkartuko dira, **baserriz baserri** edo ethez etxe ibiltzeko. **Eguerdian**, eskolako haurrak, mozorrotuta, karriketan barna ibiliko dira, eta **15:00etan**, gazteek Herriko Ostatuan **bazkaria** izanen dute. **Ondoren**, Modestoren **musikaren** laguntzaz, kantuan eta dantzan ibiliko dira.



OTSAILAK 10, LARUNBATA

16:30ean Aparan poligonotik abiatuta **desfilean** aterako dira herritarrak.



MENDIAUR PENTSUA
Nekazari Zerbitzuak
 Vicente Arocena Andueza

DISTRIBUIDOR DE:
Agrovec

Pentsuak • Ongarriak • Haziak
 Oilasko eta oilandak astero
 ortzegunetan • Kaiolak

Mourges, 20 • 31740 DONEZTEBE
 Tfnoa/Faxa: 948 45 18 45 Mugikorra: 610 25 85 95

BAR
DONEZTEBE

ongi pasa inauterik!

Amezti, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271

Belarra jatetxea
ONGI PASA INAUTERIK!

Amezti zeharkarrika, 3 • 31740 DONEZTEBE
 T. 948 450 306 • www.restaurantebelarra.com

MALE REKA
KUSTOM

ARROPA ETA OSAGARRI PERTSONALIZATUAK
 Nagusia, 1 - Doneztebe
 T. 948 451 571
 T. 636 885 190
 male-reka@male-reka.com
 Male-Reka

ongi pasa inauterik!

Arozena
 ostatu • jatetxea

Gosariak bazkariak eta afariak
 ongi pasa inauterik!

T. 948 450 443
 Leitzako errep., 84 • Doneztebe

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24
 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

25. urteurrena
 DESKONTUAK
%75
 arte

LA MASCARA

Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu
 Era guztietako osagarrien salmenta
 Makillaje profesionala

www.lamascara.es
 mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04



Josu TELLETXEA | Doneztebeko gaztea

«Herrian saltsa paratzen saiatzen den doneztebar gaztea» da Josu Telletxea. Orain «urteko besta hoberenen» atarian, bazterrak nahasteko aukerarik ez zaio faltako, ortzegun gaueko dantzalditik larunbateko gaupasara bitarte. Ortzegun gaua eta ortzirale goiza dira «hutsik egin gabe eta gogo haundiekin» hartzen dituenak, «adin guztietako herritarrak biltzen gara, kantuan eta dantzan giro ederra izaten dugu». Halere, ortzirale goizean hasitakoa larunbatera bitarte luzatzeko ez du ahalegin handirik egin behar izaten «iluntzean inguruko herrietako jendearen elkargune izaten da Doneztebe», eta beraz, «horiekin egoteko aukerarik ere ez dugu galtzen».

«Etorkizunean etxeak izanen dira baserriz baserriko tradizioaren gordailu»

ZER IKUSI, HURA IKASI

Baserrian sortua izaki, «barnetik zein kanpotik» bizi izandu du baserriz baserriko giroa doneztebar gazteak: «haurra nintzela, mahai ingurura kostata hurbiltzen nintzen; egun, ordea, baserriarrek ederki kostata botatzen naute». Hamasei urte inguru zituela «txapela eta mandarra jantzita», hasi zen baserriz baserri ibiltzen, «beraz, aurten hamar edo hamaikagarren urtea izanen dut».

OHITURAK ALDATUZ, BAINA BIZIRIK MANTENDUZ

Bizi mantentzen diren ohitura gehienek bezala, baserriz baserrikoak ere pixkan-pixkan «goitik beheitiko» aldaketak izanen dituela uste du. Areago, gauza batzuetan nabaritzen da: «garai bateko boneta lastozko txapelak ordezkatu du. Antzina baserriz baserrikoa zen ibilbidea. Egun baserrietan bizi den jendea edadetua da, eta gazte aunitz elkartzean sortzen dugun zalaparta tarteko, badira gosaria emateari utzi diotenak, baina ulertzekoa da». Duela «lauzpa bortz urte» baserrietako hutsunea ordezkatzeko, «herriko auzo batzuetako etxeak atea zabaltu zizkiguten». Oro har, baserrien gainbehera ikusirik, «xarma bera ez izanagatik, etxeak hasiz gero, hein handi batean, horiek izanen dira baserriz baserriko tradizioaren gordailu».



HERRITARREN HARRERA

Herritarrek «eskuak zabal eta mahaiak jakiz gainezka dituztela» irekitzen dizkigute atea. Aitzinetik gazteei deitzen dietenak ere badaude: «batzuek deitu eta beren etxeetara joateko erraten digute». Borondatea «izugarria» izateaz gainera, beren jarrerak aipamena merezi du, «aunitz, gurekin, bestan murgiltzen dira». Noizbait «arazoren bat edo bertze izanagatik, gaur egun, gure jokamoldeek sor dezakeen gainbehera dela eta, zentzatuago gaude. Baserria bizitokia, eta ez dantzatokia, dela buruan sartzen hasiak gara».



EDERKI tailerra



CITROËN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa inauteriak!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

IBARBURU GASOLIOA ETXERA

KALEFAKZIOA
NEKAZARITZA
AUTOMOBILGINTZA

Vicente Arocena Andueza
T. 610 258 595

Iruña-Irun Errep. 48,5 km. 31740 DONEZTEBE



INAUTERIAK, IÑAUTERIAK,
ARATUSTEAK, INOTEAK...
TXUKUNTASUNEZ ETA ERRESPECTUZ
ELEGANTE PASATZEA OPA DIZUE
DONEZTEBEKO UDALAK
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIEI





PLAZAKO
denda

ONGI PASA INAUTERIAK!
ETXALAR • 948 635 026

ELUTSA 

O S T A T U A

TABAKOAK

INAUTERI ONAK
PASA ITZAZUE!

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

 **HERRIKO OKINDEGIA**



ONGI PASA INAUTERIAK!

Ogi naturalak, ama oreaz eginak:
Espelta | Garia | Zekalea

Egunero irekia: 06:00 > 13:00 • T. 627 033 975 • ETXALAR

 **haritzpe**
Etxalarko okindegia

Ongi pasa inauteriak!

Goikolanda, 8
31760 **ETXALAR**
T. 618 778 328



 **ETXALAR**   **INAUTERIAK 2018**  

EGITARAU

OTSAILAK 8, ORTZEGUNA

Goizean haurrak **eskean** ibiliko dira, etxez etxe. **14:30ean** Landagain eskolako ikasleak plazatik aterako dira trikitilarien laguntzaz eta herriko txokoetan **antzerkiak eta dantzak** egingen dituzte. **Ondotik berendua** izanen da herriar guztientzat, musikaz lagundua.



OTSAILAK 11, IGANDEA

Zaldun Inaute egunean **kinto bestak** ospatuko dituzte.



OTSAILAK 12, ASTELEHENA

08:00etan gosaria izanen da La Basquen. **Egun osoan**, herriko gazteak **eskean** arituko dira goiko eta beheko auzoetan.



OTSAILAK 13, ASTEARTEA

Astearte mozerro egunean, **12:00 alde-rra herriari itzulia** emanen zaio **mozerro eta karrozekin**. **Ondotik bazkaria** Herriko Ostatuan. **18:00etatik aitzine-rra musika** izanen dute, inauteriak giro ederrean bukatzeko.



ETXALARKO UDALAK

*inauteri onak opa dizkizue
etxalartar eta bisitari guztiei*

IV. ARGAZKI LEHIAKETA erran.eus atarian

erran.eus
Mendialdeko Albisteak

Gaia: **ESKUALDEKO INAUTERIAK**



Informazio +
erran.eus



OINARRIAK

1. TTIPI-TTAPA eta XORROXIN zabalzen diren eremuetan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte har dezake.
2. Argazkiak 2018ko inauterietan ateratakoak izanzen dira (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak mugikor, tablet edo argazki kamerarekin ateratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertuko ditugu).
4. Argazkiak ERRAN.EUS arxiboan altxatuko ditugu eta guretzat gordeko dugu jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak ERRAN.EUS atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko du parte-hartzaileak.

EPEAK:

- **Argazkiak bidaltzeko epea:** urtarrilaren 20tik martxoaren 15era.
- **ERRAN.EUSeko erabiltzaileen saria emateko bozketa fasea:** martxoaren 16tik apirilaren 3ra.
- **Irabazleak:** ERRAN.EUS atarian jakinaraziko ditugu apirilaren 6an.
- **Sari-banaketa:** apirilean.

Animatu!

SARIAK

EPAIMAHAIAREN SARIA:
NEKATUR BONO ORLEGIA
2 lagunendako 2 gau eta 2 gosari



**NEKATUR NEKAZALTURISMOA
ELKARTEA**
Tel: 943 327 090
www.nekatur.net



ERABILTZAILAILEEN SARIA:
ELGORRIAGAKO BAINUETXEAN
2 lagunendako zirkuitua + otordua



HOTEL BALNEARIO ELGORRIAGA
Errotaldea, Elgorriaga
Tel: 948 45 60 45
www.sanvirilahoteles.com/
hotel-balneario-elgorriaga/



PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN:
LEGASAKO AROTXA JATETXEAN
2 lagunendako otordua



AROTXA JATETXEA
Sta Catalina, 34 Legasa
Tel: 948 456 100
arotxa.com





ELBETEKO POSADA

Ongi pasa inauteriak!

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Plater ttikiak prezio berezian
- Asteburuetan karta
- Asteburuko menu berezia

ELBETE • Karrikaundi • T. 948 581 519
 info@posadaelbete.com • www.posadaelbete.com



BERTAN JAN edo ERAMATEKO

Deskargatu gure APPa eta egin zure eskaera

... betikoa baina ezberdina

ONGI PASA FERIAK



Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, ensaladak, fritoak...
 Etorri eta dastatu gure berezitasunak!

Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219

onegin

Herbodietetika Ekodenda

Ongi pasa inauteriak!!

- Nutrizionista: AMAIA MEOKI PLAZA
 - Dieta pertsonalizatuak: gehiegizko pisuarendako, diabetikoendako, kolesterolarendako...
 - Coach nutrizionala
- Bioinpedantziaren bidez: grasaren neurraketa, giharraren neurraketa, uraren erretentzioa...
- Kolesterol eta glukosaren odol analisiak
- Elikadura ekologikoa

Jaime Urrutia, 26 Behea
 31700 ELIZONDO | www.oneginelizondo.es
 948 581 932 | oneginelizondo@gmail.com

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Ibilgailuen trasferenziak

Santiago, 15 • ELIZONDO • T. 948 580 804
 anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

ELIZONDO INAUTERIAK 2018

EGITARAU

OTSAILAK 9, ORTZIRALA

09:00etan Gaztetxetik abiatuko dira, eta **puskak bilduz** hasiko dituzte inauteriak.
16:00etan **haurren desfilea** izanen dute, ikastolako parketik hasita (eguraldi txarra eginez gero Baztan pilotalekuan). **Ondotik, txokolatada** izanen dute Foru Plazan (euria ari badu Iriarte pilotalekuan). **20:00etan danborrada** izanen dute, Herriko Etxetik. Izen-ematea: Casino, Intza, Hiru edo Saioa ostatueta (20€ ordainduko dira danborrak eta pintxoak, pintxoak bakarrik 5€. Danborra ongi bueltatuz gero, 10€ itzuliko dituzte).



OTSAILAK 10, LARUNBATA

11:30ean ikastolako parketik egingen dute **orgen desfilea**.





Pili ARRIJURIA | Elizondon bizi den iruritarra

«Bizitzak irri egiteko egunak behar ditu eta inauteriek eskaintzen dute aukera»



Inauteriak «urteko bestarik hoberenak» dira Pili Arrijuriarentzat. Haurtzaroko oroitzenek «nire herria, Irurita» dute kokaleku, eta horiek aipatzean, «etxez etxeko momentua, loredun ator eta lastozko zapel arteko irrien oihartzunak» datozkio gogora. Egun, ordea, «Elizondon bizi ditut». Bata eta bertzearen artean «antolaketa» batetik; eta «desfilea, orgak eta kuadrillek prestatutako emanaldiak» bertetik, «ez dute zerikusirik, herri bakoitza mundu bat da». Areago, «Elizondon bertan, desfilearen indarra itzaltzen hasia zen... azken urteetako ikusiz, ordea, berpizten hasia da: kuadrillak gero eta gehiago dira, eta lan handia hartzen dute, zorionez». Urte de-

«Ikusleak zirrikatzea gustatzen zait, bereziki, isilik gelditzen ez direnak. Hala, gozamina norabide bikoitzekoa da»

zentez «kuadrillan» mozorrotu izan dira, baina orain «bakarrrik» ateratzen da, «gibeletik segitzeko zailtasunak izaten dituztelako...», adierazi digu irriari ezin eutsiz. Ikastolako desfilean ere ibili izan da, «alabak ikastolan hasi zirenean, duela hogeita hamabi urte inguru hasita berriki arte», baina orain «ondorengoei pasa diete lekukoa». Bakarrrik mozorrotzearen zailtasun nagusia «zertaz jantzi erabakitzea» da: «azken orduan prestatzen dudana mozorrotu horren atzean, ideia eraikitzen, denbora luze ematen dut». Mozorrotzen «daramatzadan urteak ez dira gutti baina, urte aunitzez bi egunetan lau mozorrotu paratu izan ditut... eta ondorioz, bitxikeriak, istorioak eta momentuak, oroitzapenak, gero eta gehiago diren heinean, ideiak guttiago dira. Erabakita dagoelarik, «ganbarara joan eta beti aurkitzen dut erabilgarria zaidan zerbait». Hemen eta han arakatzu eta «hau eta hori probatuz irriz lehertzen naiz», momentu horiek «izugarri gustatzen zaizkit, liburu batean idatzirik bildu eta betiko gordetzeko modukoak dira». Halere, mozorroa zein nahi delarik, «horren arabera jarrera hartuz gero, xarma bertzelakoa da, arropak eta osagarriak baino indar gehiago du maiz». Baina horretarako, «lotsagarri ez sentitzea» da sekretua, aunitzez aurpegia tapatzen dute, horrek segurtasuna eskaintzen dielako akaso... «nik, horretan, ez dut arazorik». Ikusleak «errespetatuz baina zirikan ibiltzea» maite du, bereziki, «isilik gelditzen ez direnei adarra jotzea». Hala, haien gozamina eta nirea, «bion artean eraikitako hartu-emanaren ondorio bilakatzen da, norabide bikoitzekoa». Beraz, «gozamen egun bat nahi duenak, irriak opari jaso eta eman nahi dituenak» Elizondora jo dezake: «guztiok behar ditugu horrelako egunak bizitzan, eta inauteriek aukera paregabea sortzen dute, pasatzen uztea baino hobe bizitzea».



ttipi-ttapa | 702 zk.
2018.01.25 | 39

Suteia-Zaldain
PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE
LANAK

15
Urteko
esperientzia

instalazioak
IGOGAILUAK

Santiago, 71 | ELIZONDO
T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako egokitua.



3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Mañonea Agentzia S.L.



GENERALI
Aseguruak

AGENTE ESKLUSIBOA Erregistro Zkia: C0072B71193304

www.manoneasegursl.seguros.generali.es

ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA

T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 | manoneasegur@generalimediadores.es

**KONTABLE, ZERGA, LAN
eta JURIDIKO AHOLKULARITZA**

www.mainoneaagentzia.com

T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
mainonea@mainoneaagentzia.com



MONTXO OSTATVA TABAKO-DENDA

ongi pasa inauteriat!



Plater konbinatuak | Ogitaratekoak | Pintxoak | Menuak enkarguz

Egunero irekia 09:00etatik 02:30era - Dantxarineatik 2 km.tara

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039

EGITARAU

OTSAILAK 9, ORTZIRALA

Bi herrietako haurrak eskolan mozorrotu eta arratsaldean herrira jautsiko dira.



OTSAILAK 11, IGANDEA

Gauñara elkartean **09:30ean** gosaria izanen da. Indarrak hartu eta gero, **mozorrotu** eta Dantxarinea auzoko bentetan ibiliko dira gazteak ilundu bitarte. **Ondotik, herrira** hurbilduko dira, Karretero Ostatura. **21:30ean** mozorroturik etortzen diren haurrendako **sorpresa** izanen da. Egunaren akabailan, **22:30 aldera, pintxoak** eta Modestoren eskutik **dantzaldia** izanen dira.



OTSAILAK 12 ETA 13,

ASTELEHENA ETA ASTEARTEA


Alde batetik, herriko haurrak goizeko **9:30ak aldean** elkartu eta **etxez etxe eskean** hasiko dira. Eskea bukatu ondotik herrira jautsiko dira. Bertzalde, herriko gazteak **10etan** kafea ttantta-rekin hartu ondotik, **etxez etxe** abiatuko dira trikitixa eta panderetarekin. **21:30ean, pintxoak dastatu** eta musikaren erritmoan **dantzan eta kantuan** aritzeko aukera izanen da.



Urdazubiko Udalak inauteri zorionsuak opa dizkizue urdazubiar eta bisitari guztiei !



ONGI PASA INAUTERIAK





**Joseba LARRALDE
IBAROLA**

Urdazubiko inauteriazalea

«Inauterietan gazteriak herritarrekin eraikitako harremana berezia da»

Eltze aunitzetako burruntzalia izan den urdazubiarrak da Jabier Larralde, «baina ingurukoak ez dira gutiago izan». Berezi-ki, «inauterien saltsaren zaporea» gogorazten du, «gazteriak etxez etxe gainerako herritarrekin eraikitzen duen harremana» hein handi batean, egun horietako hartu-emanaren ondorio dena, «arras polita» baita. 90eko hamarkadatik 2005era bitarte «aukerarik galdu gabe, mozorrotuz, etxez etxe eta baserriz baserri ibiliz, egun eta gauetz...» bizi izan ditu inauteriak, baina «kuadrillako lagunak utzi zutenean, horien arrimuan, nik ere utzi behar izan nuen». Egun, oraindik orain, egun horiek «oroiminez» pasatzen ditu, «beti sumatu izan dut eta sumatuko dut hutsunea». Urtez urte «gertakari historikoak» oinarri harturik, mozorro andana egin izan ditu lagunekin. Bertzeak bertze, Corpus Cristhi eguna irudikatu zutenekoa «ongi aski» oroitzen du: «apaiz jantzia paratu eta Dantxarineko Jesus Bentan -gaur egun ez dagoena- meza ospatu genuen, bezeroak parte hartzera animatu eta jatetxe guz-

tia mugiaraziz». Nahiz eta bizitzeko modua goitik beheiti aldatu, azken urteetan «mahai baten bueltan elkartu eta otordu lasaiago bat eginez, «bizirik mantentzen dugu seinalea». Gainera, azken zortzi urteetan, inauterietako mozorroaren ordezkot bilakatu da Burdinaren Egunkoak Jabier Larralderentzat. Izan ere, «frailaz mozorrotu eta rolean sartu behar izaten dut. Hasieran zaila izan zen, baina urteekin ikasi eta gozatu egiten da». Bata eta bertzeak «zerikusi guti» izanagatik, mozorroa janztea «aunitz gustatzen zait, eta zerbait gustukoa denean, modu batera edo bertzera, egokitze arazorik ez da izaten».

«Aukerarik galdu gabe, mozorrotuz, etxez etxe eta baserriz baserri ibiliz, egun eta gauetz...».

VENTA
ZUBIONDOA
Ostatua, supermerkatua, denda

Landibar, 7 Urdazubi | Tel. 948 599 041
www.zubiondoa.com | info@zubiondoa.com

Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

- Fatxadaren zaharberritzea
- Barne-dekorazioa
- Isolamenduak pladurrean
- Pintura industriala
- Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan

pinturasalzuyet@yahoo.es

SANTIAGO VILLARES S.L.
Ongi pasa inauteriak!

LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santogovillares.com
www.santogovillares.com

**ARRETXEAK
ESTANKOAK**

**ZIGARRO
PURUEN CAVA**

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrechea@yahoo.es

GOIZUETA
INAUTERIAK 2018
EGITARAU

Oxeguarda
 ostatua



Ongi pasa inauteriak!

T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA



XIMON
 HARATEGIA

INAUTERI ONAK PASA!!

T. 948 514 056
 Plaza | GOIZUETA



OKINDEGIA
GOZOTEGIA

ONGI PASA INAUTERIAK!



bai
 euskarari
 zerbitzua
 euskaraz

K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242



Zubimuxu
 ATERPEA

ONGI PASA INAUTERIAK!!

WWW.ZUBIMUXU.COM 663 85 85 02



IZKIÑA
 jatetxea

Pintxoak,
 bazkariak eta
 afariak



Etorri GOIZUETAko fauna ezagutzera!!

Tel. 948 514 102 • GOIZUETA

OTSAILAK 11, IGANDEA

17:00etako gaztetxoan **zahagi dantzarekin** hasiko dituzte inauteriak. **18:00etatik 21:00etara** bitarte **dantzaldia** izanen dute, Irati eta Mariaren eskutik eta segidan, **21:30ean**, **mozorroen afarian** biharamunerako indarrak hartuko dituzte.



OTSAILAK 12, ASTELEHENA

8:00etan mozorroak **baserrietara** abiatuko dira. **10:00etan** plazako **apainketa lanak** eginen dituzte, eta **11:00etan gosaltzeko** tenorea izanen dute. **Ondoren**, Afrika gai dutela, herrian **kontrapasa** izanen da. **13:30ean** umeen eta **14:30ean** helduen **bazkariak** izanen dituzte. **14:00etatik 16:30era** umeek **tailerrak eta zineaz** gozatzeko aukera izanen dute, Goxalin. Arratsaldeko **18:00etan**, berriz, **txokole bero-beroa** harturik, dantzaldirako prest izanen dira, 21:00 arte. Bien bitartean, **19:30etatik aurrera** mozorroen **dultzaineroekin** etorriko dira. Eguna borobiltzeko, **22:00etan** mozorroen **afaria** izanen dute.



OTSAILAK 13, ASTEARTEA

09:00etako mozorroen **gosariak** alai-tuko du herria eta **10:00etan** mozorroak dantzan ibiliko dira herriko kaleetan barna. **14:00etan** **bazkaltzera** joanen dira. Arratsaldeko **17:00etan** **Zahagi dantza** izanen da izkina tabernatik hasita. **22:00etan** mozorroen **afaria** izanen dute. Arratsaldez eta gauetz Ainarra eta Dani Narbarteren **musikak** mugiaraziko du herria.



OTSAILAK 17, LARUNBATA

KONTUEN LARUNBATA

13:00etako **poteo musikatuarekin** hasiko dute eguna, Igandea Txaranga-rekin. **14:00etan** mozorron **bazkaria** izanen da, eta **17:30etik aurrera** Igandea Txaranga lagun, bukatuko dituzte inauteriak



GIZARTEA → URTARRILAREN 31 BITARTE

Bazkide egiteko epea zabalik du Umore Onak

25 urtetik beherakoek 300 euro eta gorakoek 510 euro ordaindu behar dituzte

TTIPI-TTAPA

Umore Ona elkartean bazkide berriak apuntatzeko epea zabalik dago.

Epeka ordaintzeko aukera dago. Horrela 25 urte baino gutxiago dutenek 300 euro ordainduz edo hilabetez 25 euroko hamabi kuota ordainduz bazkide izan

daitezke. 25 urte edo gehiago dauzkatenek berriz 510 euro edo 70 euroko kuota bat eta 40 euroko hamaika kuota ordaindu beharko dituzte. Interesatua dagoenak, elkarteko bi bazkideren babesarekin, orain arte bezala, izena eman behar du elkarteko tabloian urtarrilaren 31 baino lehen.

Egur loteak

Negurako egur lotea nahi duenak, Herriko Etxean bere eskaera egin beharko du, Unai Loiarke alkateak sinatutako bandoaren bidez jakinarazi dutenez.



ARGAZKIA: UMORE ONA ELKARTEA

Apezetxea anaiek irabazi dute Umore Onako mus txapelketa

Abenduaren 31n jokatu zen Umore Ona elkarteko Mus txapelketa. Giro ederrean ospatu zen. Txapelketan 17 bikotek parte hartu zuten. Txapelketa Aitor eta Joseba Apezetxera izan ziren, bigarren postuan Martin Huizi eta Joxe Mari Salaberria geratu zirelarik. Irabazleek txuleta eta ardo botila bana jaso zuten eta bigarrenek oilasko eta txanpan botila bana.

Egurra etxera eramanen dute. Izena ematerakoan kontu korrontearen zenbakia eta egurra uzteko lekua eman beharko dira. Izena emateko epea urtarrilaren 26a arte zabalik dago, Herriko Etxeko Bulegoan.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Lucia Etxeberria eta Nafarroako Brigada taldeko hitzaldia

Elurra zela eta atzeratu zen Lucia Etxeberria herritarrek Goizuetako Azaroko Kultur Egunetan eskaini behar zuten errefuxiatuen inguruko hitzaldia. Gazte Asanbladak eta Gizarte Zerbitzuek antolatutako hitzaldia urtarrilaren 12an egin zen azkenean Udaletxeko ganbaran eta Etxeberriarekin batera, Nafarroako Brigada taldeko beste kide batzuk Mediterraneo itsasoko irletako errefuxiatu kanpamentuetan izandako esperientziaren berri eman zuten. Gai interesgarria, dudarik gabe, eta Ganbara hurbildu ziren hainbat herritarren ikusmina piztu zuena.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Umore Onako txapelketa pilotan

Umore Onak bigarren urtez antolatutako pilota txapelketa arrakastatsua izan da. Goiko argazkian, parte hartu duten ttikienak ageri dira eta azpian, Umore Onako txapelketa: Apezetxea eta Sagardui benjaminetan eta Aizkorbe eta Apezetxea jubeniletan. Alebinetan, Errekako Apezetxea herritarrek ere irabazi zuten infantil mailan, Mikelarenarekin batera.

LEITZA

GIZARTEA → URTARRILAREN 15,16 ETA 17AN

Argindar etenen kalteak erreklamatzeko bulegoko txanda guztiak bete dira

Txanda gehiago antolatuko dituzte

JM BARRIOLA

Ilbeltzaren lehen asteburuan izandako elur eta ekaitzak argindar sarean etenaldi luzeak eragin zituen. Etenaldi horiek tarteko, herriko hainbat etxebizitzetan eta komertzioetan kalte nabarmenak izan ziren. Horren aurrean, Udalak Iberdrolak matxurak konpontzeko egindako kudeaketa oso eskasa izan zela uste du eta horregatik, Irache kontsumitzaile elkartearen bidez erreklamazio bulego ireki zuen urtarrilaren 15, 16 eta 17an.

Aurretik 012 telefonora deitu eta txanda hartzeko eskatu zuten. Urtarrilaren 12rako erreklamazioa egiteko bulegoko txanda guztiak bete zirela ikusirik, txanda gehiago antolatu dituzte, nahi duten herritar guz-

tiek beren erreklamazioa egiteko bitartekoak eskaini nahian. Sarri ematen dute horien berri.

Liburutegiak atek ireki ditu

Azaroan, Jose Luis Huartek erretiroa hartu zuenetik, Leitzako liburutegia itxita egon da urtarrilera bitarte.

Urtarrilaren 11n, berriz ere, atek ireki ditu, Harkaitz Delgado liburuzainaren ardurapean. Ohiko ordutegia izanen du liburutegiak: asteleheneetik ostiralera 15:00etatik 21:00etara eta udan 08:30ean hasi eta 14:30era bitarte.

Mus txapelketa

Euskal Herriko X. Mus txapelketan hainbat kanporaketa Leitza izan dira. Otsailaren 23an jokatu da azkena.

Biharamunean, otsailaren 4an, berriz, finala jokatu da Torrean, 16:30ean. Txapeldunek txapelak, axuria eta bi botila ardo; bigarrenek lau txuleta eta bi botila ardo; hirugarrenek bi oilasko eta bi botila ardo; eta laugarrenek bi gazta eta bi botila ardo izanen dituzte saritzat.

NANa egin edo berritzeko datak

Urtarriletik ekainera bitarte, hilabetero egun bat izanen dute herritarrek NANa herrian bertan berri edo egiteko: urtarrilaren 24a, otsailaren 21a, martxoaren 21a, apirilaren 19a, maiatzaren 16a eta ekainaren 12a.

Edonola ere, aurretik hitzordua hartu beharko dute, 948 012012 telefonora deituz.



Ba al zenekien

Miren Otermin herritarrak, beste behin, karateko txapelketa irabazi duela?

UDALAK

Herritarrengana errazago iristeko asmoz, Telegram kanala sortu du


JM BARRIOLA

Udalak leitzar edo kanpokoei beste informazio iturri bat eskaintzeko asmoz, Telegram kanala ireki du. Horren bidez, orain artean sare sozialen bidez zabaltzen zen informazioa herritarrek mugikorrean jasoko dute.

Whatsappen tankerako aplikazioa da Telegram. Aitzitik, honek kanal publikoak sortzeko aukera ematen du, aplikazioan 'harpidetzea' hutsa nahikoa delarik (t.me/LeitzaUdala edo

LeitzaUdala izenez bila daiteke).

Kanalarren bidez Udaleko albisteak eta ekimenak hedatu dira, astean behin bidaliko diren mezuekin; hamabostean behin, berriz, agenda kontuak. Android, iOS eta Windows Phone gailuetarako erabilgarria den eta ordegailetarako ere erabilgarria den aplikazio horrekin herritar gehiagorengana iristea lortu nahi dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elikadura burujabetza hizpide

Herriko ordezkariak Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumeneko arduradunei elikadura burujabetza prozesua azaldu zieten, urtarrilaren 12an. Emaniko urratsak ez ezik, bidean izandako zailtasun eta oztopoak mahairatu zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txikizioak egin dituzte eskolako aterpean

Udalak, hainbat gurasorekin batera, eskola atzeko aterpea egokitu zuen, herriko txikiek jolasgunea izateko. Urte-zaharreko asteburuan, ordea, txikizioak egin zituzten: bankua, panela, bizikleta... txikituta eta zaborra alde guztietatik azaldu ziren. Udaletik «guztiona dena zaintzea denon ardura da» adierazi dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Amazabal pilotalekua jendez gainezka Gabonetako tonbolan

Kaxkabeltza elkarteak bazkideek Eguberrietan zenbakiak banatzen aritu ondotik, ilbeltzaren 7an Amazabal pilotalekuan tonbola erraldoia antolatu zuten. Guztira 3.500 eurotan baloraturiko 40 sari baino gehiago zozketatu zituzten: bi lagunendako Parisera-ko bidaia, mendi bizikleta, telebista...

GIZARTEA → OTSAILEKO LEHENDABIZIKO ASTEBURUAN

Inauteri giroa otsailaren 2 eta 3an zabalduko da herrian



Mozorro
lehiaketa
egingo dute
larunbatean

TTIPI-TTAPA

Otsaileko lehenengo asteburuan kolorez eta umorez beteko da herria. Ostiralean, 15:00-etan eskolako haurren kalejirarekin emango zaie hasiera inauteriei eta hori bukatzean merienda izango da. 17:00-etan trikitilarien emanaldia izango da plazan eta 18:00etatik aurrera herriko eskea egingo da. Gauean Lagun Artekoei afaria egingo dute Pake Toki elkartearen.

Larunbatean egun osoko pestari eusteko gosaria izango dute elkartearen Lagun Artekoei. 10:00etan abiatuko dira baserrietako eskea egitera eta arratsaldera arte batetik bestera ibiliko dira. 17:30ean karrozak aterako dira eta ondoren musika izango da plazan. Herri afaria izango da gero Pake Tokin. 3-12 urte artekoek 8 euro ordaindu beharko dituzte eta 12 urtetik gorakoek 15 euro. Menua: sarrerakoak, zopa, oilasko errea patatekin, gazta eta irasagarra, kafea pastekin eta kopa. Herriar guztiei mozorro-tzeko deia luzatu diete Lagun Artekoei eta mozorro berezientek saria izango dute. Afalondoa trikitilariak girotuko dute eta pestak goizaldera arte segituko du.

ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK



Egindako lanaren etekina ikusi eta harro sentitzen da bat.

Marta Calvo Fernandez
Gasteiz. Ingeniaritza Biomedikoa, 3. maila

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · URTARRILAK 27
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · OTSAILAK 1
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · OTSAILAK 3
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · OTSAILAK 17
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABAETA · OTSAILAK 17
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · URTARRILAK 27
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · OTSAILAK 1
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO · OTSAILAK 8
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 15
OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

ETORBIKO ZARPIA JAN-INA-ARAZI



902 110 436
www.mondragon.edu/prest

BAZTAN

GIZARTEA → HOGEI LAGUN BERTZERIK EZ ZIREN BILDU URTARRILAREN 6KO BATZARREAN

Elizondoko kontuak aurkeztu dituzte Errege Egunean

Zenbait lan garrantzitsu egitearen ondorioz, 10.172,65 euroko galerekin akitu dute urtea

TTIPI-TTAPA

Errege Egunean egindako batzarrean 2017ko herriko kontuak aurkeztu zituzten Elizondon. Hain zuzen, 127.016,08 euroko diru-sarrerak izan zituzten eta 137.188,73 euroko gastuak. Hortaz, 10.172,65 euroko galera izan dira, zenbait lan garrantzitsu egitearen ondorioz. 2017. urte hasieran, 41.795,71 euroko saldoa zuen, gaur egun, aldiz, 31.623,08 euro ditu herriak.

DIRU SARRERAK

Elizondoko bizilagunek ordaintzen duten kuotaren bidez izan ziren diru-sarrera handienak, 37.545,54 euro.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Hogei bat lagun agertu ziren Errege Eguneko batzarrera Elizondon.

Bestetan 28.453 euro bildu ziren, gehienbat programako publizitatearekin (11.160) eta zikiro-jateko txartelen salmentarekin (11.800) lortutakoak.

Udazkeneko ferietako salmenta postuen taseen bidez, 25.146 euro irabazi ziren eta Udalak herri guztiei ematen diren urteko diru-kopuruan, Elizondok 10.931

euro jaso zituen. Erren-tengatik 4.440,79 euro, Orakunden 4.647,40, inauterietan 1.240 eta Txokotoko bestetako bazkarian 795 euro bildu ziren.

GASTUAK

Udalari elkarlanerako emandako 35.298,59 euroak dira gasturik handiena eta horrek eragiten du defizita. Iriarte

pilotalekuari estaldura emateko erabili zen zatiirik handiena eta horri esker, frontoiaren erabilera ere aunitz igo da. Horretaz gain, Foruen Plazako kiosko berriari baranda egiteko ere bideratu zen diru zati bat. Santiago besten antolaketan 51.004,28 euro erabili ziren, Txokotoko bestetan 6.340,74 euro, mantentze-lanetan

3.296,45 euro (mendi-ko plantazioetan garbitze-lanak, erraldoi eta buruhandiak, Herriko Etxean lanak...), Udazkeneko feriak antolatzeko 2.769,97 euro, Orakunde eguneko haurren ospakizuna antolatzeko 5.9991,76 euro eta Beartzun auzoko bestetarako 600 euroko diru-laguntza eman zituzten.

FLASH

Mugaldekoak kontzertuan

Mugaldekoak taldeak *Galdemoduen trilogia* diska aurkeztuko du urtarrilaren 28an, igandean, 19:00etan Arizkunenean.

'Ergela' antzezlanaren 4an Iruritan

Sara Cozar eta Joseba Apaolaza aktoreen eskutik, Begoña Bilbao Lejarzegik zuzendutako *Ergela* helduentzako antzezlanaren 4an, igandean, 19:00etan Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Udaleko Kultura Batzordeak, Nafarroako Gobernuaren 2018ko Arte eta Kultura egitarauaren baitan antolatutako emanaldirako sarrera doan izanen da.

Erabili TTIPI TXARTELA
pegatina hau ikusten duzun
denda eta zerbitzuetan



probextu aukera!

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.
ESTRUKTURALAK



BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA

GIZARTEA → PARLAMENTUAN EGINDAKO GALDERA

Museo Etnografikoak segida bermatua duela uste du Gobernuak

Purioseneko jabeen eta Udalaren artean hitzarmenik ez dagoela eta, etorkizuna kolokan egon daitekeela uste du UPNk

TTIPI-TTAPA

Ana Herrerak, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteria kontseilariak, Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikoko segida bermatua dela uste du. Halaxe adierazi zuen UPNk Parlamentuko batzarrean egin zion galdera bati erantzunez.

Gobernuak, etorkizuna arriskuan jar zezaketan baldintzak ezagutuz, Baztango Udalarekin abenduan egindako batzarren ondotik, segida bermatutzat jotzen du. Foru-gobernuak museoak irekita mantendu nahi izanagatik, kudeaketa Udalaren esku dago.

ETORKIZUNEN BALDINTZAK AZTERTZEKO BATZARRAK

Nafarroako Gobernuak Baztango Udalarekin hartu-emanen ibili da eta 2017an hainbat bilera egin zituzten. Bilkura horietan, «etorkizuna arriskuan jar zezaketan baldintzak» aztertzen ibili ziren. Bertzeak bertze, museoak irekitzeko den Purioseneko etxea ematea edo



TESTUA ETA ARGAZKIA: MAITANE MARITORENA

Basaburuak futbito taldea bikain Doneztebeko txapelketan

Basaburuak herri-kirol taldea izateaz gain, hondarreko urteetan futbito taldea ere sortu izan du Doneztebeko Eguberrietako futbol-areto txapelketan jokatzeko. Aurten 15 taldek parte hartu dute aipatutako txapelketa horretan. Sei partidatitik lau irabazi, bat berdindu eta bertzea galdu ondotik, laugarren gelditu da. Goitian duzue parte-hartzaileen argazkia: Mikel Azkarate (jokatzen ari zela lesionatua) Asier Maritorea, Unai Iantzi, Asier Gamio, Iñaki Iantzi; Aitor Azkarate, Iñaki Zelaieta, Xabier Maritorea, Gabon Gamio eta Patxi Barberena.

ta turismo bulegoaren tokialdatzea izan zitezuten hipotesisak. Egun, Herreraren ustez, «arazo horiek badute irtenbidea». Era berean, Herrerak kolezio museo-erregistroen erregistroak kanpo egoteak dakartzan eragozpenak azpimarratu zituen, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jasotzeko, erraterako.

Bertzalde, UPNko legebiltzarkide den Cristina Altunak museoaren etorkizuna kolokan da-

goela uste du, «Purioseneko jabeen eta Udalaren artean hitzarmenik ez dagoelako».

Objektu etnografikoen gainera, interes handiko Soalarreko Menhirra monumentu arkeologikoa du Museoak. Orain artean, Museoaren lorategian bazegoen ere, abenduan zahar-berritzeko Iruñera eraman zuten; ondotik, Baztango Udalak eskailburuan paratzeko aukera aztertzen ari dira.

KOMUNIKAZIOA

Industrialdetan banda zabala sartuko dute aurten

TTIPI-TTAPA

Nafarroako 45 herriko industriagunetako banda zabalerako sarbidea izanen dute 2018an, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako Departamentuak zabal-kundea lortzeko inbertituko dituen 1,2 milioi euroei esker. Lanak Telefónica SA eta Telecom SA enpresek eginen dituzte eta, beranduenez, urriaren 15erako bukatu beharko dituzte. 45 industriagune horien artean daude Lekarozko industria campusa, Irurritako Zaldubia, Arizkongo Ordoiki eta Elizondoko Dautualde.

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

BAZTAN

GIZARTEA → URTARRILAREN 2KO BATZARREAN HARTU ZUEN ERABAKIA

Batzar Nagusiak Lekarozko Aroztegiko birzaticeta plana errekurrituko du

Inguruko lurjabe guztien sinadurarik edo oniritzirik ez duela izan dio errekurtsioak

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 2an egin zen ohiko Batzar Nagusiaren, batzarkideen gehiengoak Lekarozko Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren birzaticeta plana errekurritzea onartu zuen; plan honek ez baitu legeak eskatzen duen bezala Aroztegi inguruko lurjabe guztien sinadurarik edo oniritzirik izan.

Nafarroako Gobernuak birzaticeta plana behin-betiko onartu ondotik, Batzar Nagusiak aipatu prozedura hausteagatik aurre-errekirimendua egin zion Gobernuari, baina azaroaren 22an aurre-errekirimendua ez onartzea erabaki zuen.

Horrela, urtarrileko batzarrean administrazioarekiko auzi epaitegirat jotzea erabaki zuen Batzarrak. Erabakiaren alde hemeretzi batzarkide agertu ziren eta UPN, Geroa Bai eta Baztan Auzolaneneko zazpi ordezkariak kontra bozkatu zuten.

LEKAROZKO

ALKATEAREN SALAKETA

Bilkura berean Mattari Plaza Lekarozko alkateak herriko ermitaren defentsan birzaticeta planari buruz, Gobernuari aurkeztutako aurre-errekirimenduaren



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aroztegiko proiektuak zer errana sortzen segitzen du Lekarozen eta Baztanen.

erantzunaren berri eman zuen. Gobernuak Lekarozko herriak eskumenik ez duelako, aurre-errekirimenduaren funtsean sartu gabe aipatu eskaria baztertu zuen. Plazak salatu zenez, eskumena Udalarena da, baina UPNK, Geroa Baik eta Baztan Auzolaneneko Udalan gehiengoak duten alderdiek herriko ermita defendatzeari uko egin eta aurre-errekirimendua ez egitea erabaki zuten.

Bertzalde, bilkura berean, birzaticeta planeko katastro aldaketari buruz, Batzar Nagusiaren lehendakariak, Joseba Otondok, Nafarroako Gobernuari egingdako aurre-errekirimendua berretsi zuen. Kasu honetan, aurre-errekirimendua ogasun eta finantza departamenduan aurkeztu zen, birzaticeta planeko katastro aldaketan espres-

ki sortutako mikro lurzati berriak agertu baitziren, baina legeak paratzen dituen guttienerako neurriak bete gabe. Aldi berean, legeak agindu bezala katastro aldaketa prozeduran interesdunei audientziarik eskaini ez zitzaielela ikusirik, aurre-erre-

kerimenduan puntu hori sartu zen. Gainerakoan, administrazioarekiko auzi epaitegiak Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialari Batzar Nagusiak paratutako errekurtsioari buruz emandako kontrako sententziaren berri eman zen.

FLASH

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots 'Borobilean'

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek *Borobilean* azken ikuskizuna ikusgai izanaren da otsailaren 4an, igande goizeko 11etan Elizondoko Baztan pilotalekuan, Baztan Ikastolaiko Guraso Elkarteak antolatuta. Sarrerak 2 eurotan salgai daude 1-2 urteko haurrentzat eta 6 eurotan hiru urtetik goitikoendako, honako tokietan eros daitezke: Elizondon: Fantxikien eta Axularren. Donezteben: El Cafen. Beran: Errekalden. Lesakan: Haizean. Egunean leihatilan ere salduko dira, 10:30etik aitzinera.



ETXEGARATEN BIDESARIA PARATUTA JOAN-ETORRIA %25 HANDITU DAITEKE

N121A errepidean nazioarteko kamioiak mugatzeko eskaera egin du Udalak

TTIPI-TTAPA

Nazioartean harat-honat zama garraioan ibiltzen diren kamioiek N121A errepidean sortzen duten arriskua dela-eta, Baztango Udalak Nafarroako Gobernuari arriskuak ttipitzeko aukerak aztertzea eskatu zion abenduaren 28an egin zuen ohiko osoko bilkuran. Gipuzkoako Foru Aldundiak Etxegaraten arkupeko bidesaria paratzea erabaki ondotik N-121-A errepidean kamioien joan-etorria %25 handitzen ahal dela aurreikusitako da eta, horrek, gaugergero

arrisku handia duen errepidean arrisku gehiago ekarriko du.

Horregatik, EH Bilduren Baztango udal taldeak «eskualdea helburu ez duen nazioarteko zama garraioa mugatzeko azterketa egitea eta dagozkion neurriak hartzeko» Nafarroako Gobernuari zuzenduriko mozioa aurkeztu zuen Udalan. Mozioak EH Bilduren, Baztango Ezkerraren eta Geroa Bairen aldeko bederatzi bozka izan zituen. UPNK eta Baztan Auzolaneneko abstentziorat jo zuten.

OSPAKIZUNAK → OTSAILKO LEHEN ASTEBURUAN

Orakunde eta inauteriak ospatuko dituzte Zigan

Afariko txartelak urtarrilaren 28an salduko dituzte soziedadean

Virginia OTEIZA

Orakunde eta inauteri eguna batera ospatzen dituzte herrian. Aurtengoan otsailaren 2an, ortziralean, izanen dute hitzordua. Baina, inauteriak larunbatera arte luzatuko dira.

OTSAILAK 2, ORTZIRALEA
10:15ean meza iza-

nen dute. Ondotik, herriko haurrak Zigaurre auzoan eta herrian barna ibiliko dira eskean, Joxe Anjelen musikak alaiturik.

14:00etan Etxezuri-an bazkalduko dute. Arratsaldeko 16:30ean haur jokoak izanen dituzte. Azkenik, 19:00-etako txokolatada eta dantzaldiarekin borobilduko dute arratsaldea.

Egun berean gazte-en gosariarekin hasiko dituzte inauteriak. Indarrak harturik, Zigaurre auzoan eta baserrietan puskak biltzen ibiliko dira, Nerea eta Be-



ARGAZKIA: VIRGINIA OTEIZAK UTZIA

Haurrendako jokoak eta txokolata ere izanen dira, ortziraleko bazkalondoan.

ñat musikariak lagun dituztela.

OTSAILAK 3, LARUNBATA

Biharamunean, otsailaren 3an, gazte gosaria egin ondotik, Nerea eta Beñaten musika lagun, herrian barna ibiliko dira gazteak.

Iluntzean, 20:30ean, frontoian mozorroen dantzaldia izanen dute, Agerraldek alaituta.

22:00etako afariarekin (txartelak urtarrilaren 28an, igandean, soziedadean, goizean zehar erosteko aukera iza-



ARGAZKIA: VIRGINIA OTEIZAK UTZIA

Puska biltzen ibiliko dira gazteak umorez inauterietan.

nen da) eta afaldu ondoko Agerralderen mu-

sikarekin bukatuko dituzte inauteriak.

IKASTOLA EREDUA HEZKUNTZA ERALDATZEN

www.baztanikastola.eu

INFORMAZIO BILERA:
URTARRILAK 26. 17:30ean
(PARKEKO IKASTOLAN)
AURREMATRIKULAZIO EPEA:
OTSAILAREN 1etik 7ra

ikastolenkartea **BAZTAN** Mendinueta z/g. 31700 Elizondo, Baztan. T. 948 45 24 48 - 948 58 02 56. baztan@baztangoikastola.com

IKASTOLA EREDUA ikastolenkartea IKASTOLA EREDUA BAZTANGO HIDALA



BAZTAN

GIZARTEA → UDALAREN ESKAINTZA BERRIA

Otorduak etxerat eramateko eta arropa garbitzeko zerbitzua eskaintzen hasi da

Hirugarren adinekoen egoerari buruzko azterlana egiteko kontratazio prozedura ere abiatu du

TTIPI-TTAPA

1987az geroztik eskaintzen duen etxez etxeko laguntza zerbitzua osatzeko, etxez etxeko janari banaketa eta arropa garbitzeko zerbitzua eskainiko ditu hemendik aitzinera Udalak. Halaxe aurkeztu zuten urtarrilaren 15ean Balleko Etxean Joseba Otondo alkateak, Udaleko eta Gizarte Zerbitzuetako ordezkariekin batera.

Etxez-etxeko zerbitzua Udalak ematen duen zerbitzu bat da eta bere eguneroko egin-beharrak aurrera eramateko zailtasunak dituzten pertsonen arreta eskaintzea du helburu.

Zerbitzuak, banakako zenbait zerbitzu eskaintzen ditu, garbitasun pertsonalean laguntza, etxeko garbiketa egiten laguntzea edo janaria prestatzen laguntzea, hau guztia pertsonak bere ingurunean ahal den hobekien txertatzeko, bere autonomia pertsonala handitzeko eta bere bizikaltatea hobetzen lortzen saiatzeko helburuz.

Zerbitzu hori 1987tik



UTZITAKO ARGAZKIA

Udaleko eta Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak, zerbitzuaren aurkezpenean.

eskaintzen du Udalak. Urte horietan guztietan beharrak aldatuz joan dira eta eskaintzen diren zerbitzuak handitzeko beharra ikusi dute. Horregatik, bertze bi zerbitzu hauek martxan jartzea erabaki dute.

ETXEZ ETXEKO JANARI BANAKETA

Menpekotasun egoeratik edo adinagatik, erosketak egiteko eta janaria prestatzeko zailtasuna dituzten pertsonen, eguerdiko otordua prestatua etxera eramanen zaie. Eritasunagatik dieta bereziren bat eraman behar badute ere, egoera bakoitzera egokitutako menuak eskainiko dira. Zerbitzua astelehenetik ortziralerara eskainiko da eta menuaren kostua 5 eurokoa izanen da.

ARROPA GARBITZEKO ZERBITZUA

Lehen aipatutako egoe-

ran dauden pertsonen arropa garbitzeko zerbitzua ere eskainiko die Udalak. Beharren arabera, etxetik arropa zikina bildu eta garbia bueltatuko diete. Hilabetean lau zerbitzu eskainiko dira eta zerbitzuaren kostua 40 eurokoa izanen da. Beharren arabera, arropa asfero edo hamabortzetik behin bilduko da.

Baldintzak betetzen dituzten pertsonen zerbitzua eskatu edo informazio gehiago nahi badute deitu dezatela Udalean dagoen Gizarte Zerbitzura eskaera egiteko.

Joseba Otondo alkateak aurkezpenean aipatu zuenez, «Gizarte aitzinatuetako ezauzgarri nabarmenetako bat adinekoek demografikoki goez eta gehiago duten pisua da. Baztanen adibidez, 65 urtetik goragokoak %20,5 inguru dira. Bi-

zi-itxaropena luzatu da eta jaiotze tasa jaitsi. Hori sakoneko joera denez, ondoko urteetan 65 urtetik gorakoen portzentajea handituko da».

Biztanleriaren zahartzearekin batean, mendekotasun egoerak handituko direla eta jendarteak orokorrean baina administrazio publikoak bereziki, horri begira zerbitzu gehiago eman beharko dituela aipatu zuen Otondok: «Helburua adineko jendeak ahalik eta hobekien zaintzea da. Horretarako, azkeneko hilabeteetan Udaleko Gizarte Zerbitzuak Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearen ardura duen IDEaren laguntzarekin otordu eta garbiketa zerbitzua antolatu du. Izan ere otorduen eta arropen garbiketa zerbitzua zaharretxeko baliabideak erabiliz eskainiko da».

HIRUGARREN ADINEKOEN EGOERARI BURUZKO AZTERLANA

Nolanahi ere adinekoen zaintzari buruz Udalaren bulkaldia ez da zerbitzu berri hauetara mugatuko. Urtarrilaren hasieran, Baztanen hirugarren adineko jendeak duen egoerari buruzko azterlana egiteko kontratazio prozedura abiatu du Udalak. Azterlan honekin Udalak adinekoen beharrei buruzko diagnosis izanen du eta oraingo eta etorkizuneko politikak planifikatzen ahalko ditu. Azterlan honetan oraingo zerbitzuak aztertuko ditu gabeziak eta alternatibak ikusiz; baliabide eta dotazioak kudeatzeko ereduari buruzko gogoeta eta bideragarritasunaren azterketa eta, azkenik, diagnosiak heldu direnak kontuan harturik etorkizuneko proposamenak egitea. Guzti horretarako Udalak 12.000 euroko kontusaila bideratu du.

Alkatearen erranean, «Baztango Udalak hirugarren adinekoekin lagunkoia den udalerria izateko bidea hasi du eta, horri buruz, Qpea fundazioarekin lanketa hasi du. Ekimen honen helburua hirugarren adinekoek bizitza independentea eta zahartze aktibo izateko ingurunea egokitzea da. Horretarako osasun, parte hartze eta segurtasun arloetan aukerak hobetuz». Ekimen honetako Udalak 1.800 euroko laguntza bideratu du.

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 17AN

San Anton eguneko zozketa egin dute aurten ere

Aretzea 3.116 zenbakiari egokitu zaio

TTIPI-TTAPA

Gutienez 1867az geroztik egiten da Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte Zahar Etxearen aldeko zozketa San Anton egunez eta aurten ere ohitura bete dute. Balleko Etxeko balkoi-

an egin zen zozketa eta lau umek atera zituzten zenbakiak, Baztan Ikastolako ikasleak lauak: Irati Biguria, Maialen Perez de Nanclares, Julen Urrutia eta Xuban Sahrrea.

Lehenbiziko saria, Arizkun hazitako piriniar arrazako aretzea, 3.116 zenbakiari egokitu zaio, baina sariduna ez zen plazan azaldu;



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Balleko Etxeko balkoian atera zituzten zenbaki saridunak. Beheitian, jendea aterkipean.

gauza bera gertatu zen bigarren sariarekin, zerriarekin: 1.752 zenbakiari egokitu zaio.

Hirugarren saria (bi bildots), 2.785 zenbakiari egoitu zitzaion eta kasu honetan bai, sariduna azaldu zen: Iruri-

tako Martin eta Irati Uterga aita-alabek jaso zuten; laugarren saria, urdaiazpikoa, 6.101 zenbakiari egokitu zitzaion eta Miguel Angel Navarrok lortu zuen.

Zozketa egin baino lehen, txistulariak karri-

ketan ibili ziren, Baztan-zopak banatu zituen Jose Mari Zelaietak gidatutako sukaldari taldeak eta Bittor Elizagoien aritu zen kantari.

Denera, zozketa honenkin 6.900 euroko boletok saldu dituzte.



Informazio bilera:
Urtarrilaren 25ean
arratsaldeko 5etan

Aurrematrikulazio epea:
otsailaren 1etik 7ra



CEIP Elizondo HLHI · Erabeta kalea,11 · 31700 Elizondo (Nafarroa) · Tfnoa: 948581808
cpelizon@educacion.navarra.es

<https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/elizondo-eskola-publikoa/home>

BAZTAN

GIZARTEA → UDALAK 5.548 EUROKO INBERTSIOA EGIN DU, BALDINTZA GUZTIAK BETE DITZAN

Haur eskolako sukaldea bertan sukaldatzeko moduan paratu du

Abuztuan hasiko duten ikasturtetik aitzinera bertan sukaldatzea aurreikusten dute



UTZITAKO ARGAZKIA

Iruñetik ekarri beharrean, bazkariak bertan prestatuko dituzte hurrengo ikasturtetik aitzinera.

TTIPI-TTAPA

Azken asteetan Baztango haur eskolako sukaldean keerauzgailua, suaketa janaria bero mantentzeko altzariak jarri ditu Udalak, 5.548 euroko inbertsioa eginez. Horrela bada, osasun publikoko institutuaren baldintza guztiak betez, haur eskolako sukaldea bertan sukaldatzeko

moduan utzi dute.

Moldaketa horiekin,

Udalak haur eskolan bertan sukaldatzea na-

hi izan du, hortaz, ple-guak, hemendik aurre-

ra, eskaera hori egingen du. Orain arte bazkari zerbitzua Iruñetik ekartzen dute, baina gauzak on bidean joanez gero, abuztuan hasiko den ikasturtean bazkariak haur eskolan bertan prestatuko dituzte.

Tokiko elikadura sistema tokiko garapenerako arlo garrantzitsua da, horregatik, azkenean urteetan *Zer jan, halako Baztan* kanpainarekin bertako baratze-ko jakiak ekoizti eta kontsumitzeko egina hanean ari da Udala, hurbilekoak eta osasuntsuak diren jakiak ekoizten dituen nekazaritzaren alde eta, aldi berean, kontsumitzaileek guzti honetan duten arduraz ohartaraziz.



TESTUA ETA ARGAZKIA: ITXASO ARIZMENDI

Ornoz-Mugairiko inauteriak asteburu honetan

Ornoz-Mugairiko inauteriak 25etik 27ra ospatuko dituzte. Ortzegun goizeko gosaria eta gero baserriz baserri ibiliko dira gazteak puska biltzen; ortziralean herriko etxeetan egingen dute itzulii eta larunbatean Zozaiara joanen dira. Larunbat gauean afaria izanen dute herriko elkarteetan eta Franxixko akordiolaria arduratuko da giroa jartzeaz. Aurtan, Pierresenea itxi dutenez, otorduak herriko elkarteetan egingen dituzte gazteek.



TESTUA ETA ARGAZKIA: MAIALEN IANTZI

Altzugarai irabazi du Berroetako pala txapelketa

Berroetan bigarren urtez antolatu den pala txapelketan Berroeta, Aniz, Ziga eta Almandozko 12 lagunek parte hartu dute. Hilabete pasatxoan partidak jokatu ondoren, urtarrilaren 14an, Xabier Altzugarai almandoztarrak eta Josu Gamio berroetarrak finala jokatu zuten, lehenengoa nagusituz. Giro polita sortu da herrian partida hauek direla eta, ilunabarretan plaza bazterrean jende andana mugitu baita.

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → 2017. URTEKO BALANTZEA

135.118 lagun sartu ziren iaz lezeak bisitatzera

Horietatik
45.000
museoan ere
sartu ziren

Josebiñe eta Koro

Urtea finitu, eta kontuak ateratzeko momentua izaten da. Hori egin dute Sorginen Museo eta lezeak langileek, eta jakitera eman duten datua harrigarria da: 225 lagun bizi garen herri honetara, joan den urtean 135.118 lagun etorri zitzaizkigun lezeak ezagutzera (hoietako 45.042 museoan ere sartu ziren).

Itxita egoten diren egunak kenduz, urteko gaintako egun guztietan etortzen dira bisitariak lezea edo museo ikustera. Eguneko batez bertzekoa 450 lagunekoa da, baina aipagarria da egun markatu batzuetan (Aste Sainduan abididez) egun batez 3.000 lagun sartzen direla, baita negu beltz-beltzenez ere (abenduko zubian), 1.000 lagun egun berean sartu ziren.

Halako jendeketak komerkiak sortzen ditu karriketan, auto sobera mugitzen baitira goiti eta beheiti, baina erran beharra dago Herriko Etxea lanean ari dela arazo honi irtenbidea bilatzeko.



Urdazubi eta Zugarramurdiko haurren emanaldia

Abenduaren 30ean Urdazubiko elizan, Zugarramurdi eta Urdazubiko haurrek emanaldi polit bat eman zuten. Fernando Letek zuzendurik, eta Franco Cavalleri organoa jotzen, Eguberritako kantu ederrak kantatu zituzten. Kanta eta kanta, zintzurra idortu eta gorputza ahuldu egiten baitire, ondotik Indiano-baitan merendu bat izan zuten.

ELIZONDO (NAVARRA)

Ipaunteriak

SABADO 10 FEBRERO / OTSAILA 10 LARUNBATA

MAIN ROOM. MUSICA COMERCIAL SECOND ROOM. MUSICA ELECTRONICA
URTEBETETZE AIMAR / BDAY AIMAR

MIKE MORATO
EL REY DE LOS MASHUPS / MIKEMORATO.COM

JAVI COLINA
weproject

KHRIS RIOS
BLUM

LUDOVIC QUAI7

MIKEL SEVILLANO @Lur

MIKEL ALMARAZ singular

DJ DUBI @Lur

PIEK

AIMAR @Lur

20CTAL @Lur

HORARIO ESPECIAL DE 00:00 A 08:00 - INTRO + COPA 12€

URDAZUBI

GIZARTEA → ALKERDIKO HARROBIA

Marmoles Baztanek 75.000 euroko isuna ordaindu beharko dio Udalari

Enpresak Udal Planaren kontra eta lizentziarik gabe lanak egin dituela dio epaileak


Iñigo IMAZ

Alkerdiko harrobiaren afera aspaldikoa da. Marmoles Baztanek 1984an jaso zuen ustiatzeko eskubidea. Udal Planak 1999an zenbait mugajarri zizkion enpresari, eta baldintza horien arabera, 2003an Udalaren lizentzia eskuratu zuen.

Marmoles Baztanen historia nahiko korapilatsua izan da, ez baitu 2003ko lizentziak ezarritako baldintza guztiekiko begirune berdintsua erakutsi. Erran liteke, harrobiak eta Udalak ez dutela 30 urte hauetan harreman onik izan, Herriko Etxean alkatetza izan duenaren arabera, nahiz eta herritar gehienek ez zioten gehiegi erreparatzen Alkerdiko harrobiari.

2014KO LEHERKETAK

2011n, Marmoles Baztanek ustiapena modernizatzea erabaki zuen, horretarako teknika agresiboagoak erabili eta lan esparru zabala goa planteatuz. Nafarroako Gobernuak 2013an baiezkota eman zion. Egiatzko arazoak orduan hasi ziren; gertaerek berehala utzi zuten agerian garai bateko 'elkarbizitza' ezi-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Harrobiaren jardunaren kontrako salaketan, Guardia Zibilaren SEPRONAK egin zuen mapan ageri dira Alkerdi, Berroberria eta Zelaietako lezeen inguruko eremuak.

nezkoa izanen zela. 2014ko uztaian herria aztoratu eta izutu zuen leherketaren ondorioz, Leorlas auzoan egiten ari zen triskantzaren berri izan zuten herritarrek. Segituan, herritarrek, erantzun bila, protestan hasi ziren. Enpresak eta Udalak, ordea, ez zuten herritarren beldur, kezka eta haserrea behar bezala baloratu.

PROTESTAK PARLAMENTUAN

Herriko lezeak eta bizimodua babesteko eskariak Nafarroako Parlamentura ailegatu ziren. UPNren garaian Nafarroako Gobernuak emandako baimena bertan behera utzi zuen Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerrak osaturiko Gobernu berriak 2016ko udazkenean. Halere, Urdazubiko lezeen babesaren inguruko kontuak oraindik ez dira akitu.

ISUNAK

Joan den abenduan hirigintza arloko isuna baieztatu zuen epaitegiak, eta bertze 60.000 euroko isuna izanen du enpresak.

ISUNAK

Udalak 2003an enpresari emandako lizentzia bertan behera uzteko eskatu izan diote Udalari, baina alkatearen irudiko, Gobernuari dagokio hori egitea.

Alde batetik, gogoratu behar da, gauregun ere, 2003an Udalak Marmoles Baztan enpresari emandako lizentziak indarrean dirauela. Herriko Etxean, oposizioan dagoen Urdazubi Elgarrekin taldeak; eta herri mailan SOS Alkerdi Plataformak, bako-

tzak bere aldetik, 2003ko lizentzia hori bertan behera uzteko eskatu izan diote Udalari. Udal Gobernuan dagoen Azkar taldeak, aldiz, Santiago Villares alkatearen ahotik, Nafarroako Gobernuaren Kultura Sailaren ardura dela erantzun izan du. Hai-ek aldarrikatu zuten, lezeen babesa bermatu gabe, Udalak ezin duela, bere iritziz, herriko plangintzan babes handiagoa paratu.

EPAITEGIAREN ERANTZUNA

Marmoles Baztan enpresakoek beren interesen aldeko borroka epategietan jarraitzen dute. Urdazubiko Udalak 2014an hasitako zigor-espeditenteak, bai hirigintza nahiz ingurumen arlokoak, bertan behera gelditu ziren iraungi edo kadukatu ondotik. 2015ean, agindaldi berria hasi zen, eta

ordutik aitzinera, harrobiaren gaia Herriko Etxean eztabaidagai izan da ia-ia hilabetero. Udalak zigor-espeditente berriak ireki zituen eta Marmoles Baztan enpresak, berriz, helegiteak jarri zituen.

Azkenik, Administrazioarekiko Auzien Auzitegira iritsi ziren bi zigor-espeditenteak. 2017ko urrian, Udalak enpresari irekitako ingurumen arloko zigor-espeditentea konfirmatu zuen epaitegiak, eta hortaz, enpresak 75.000 euro ordaindu beharko dizkio Udalari. Joan den abenduan, hirigintza arloko isuna baieztatu zuen epaitegiak, bertze 60.000 euroko isuna konfirmatuz.

Funtsean, enpresaren errekurtsoa gibelera bota du epaitegiak, Marmoles Baztanek ukatu egiten baitzion Udalari isuna paratzeko eskumena. Epailearen iritziz, Urdazubiko Udal Planaren kontra eta lizentziarik gabeko erabilera eta lanak egin ditu enpresak harrobiaren, eta horregatik helegitea ukatu egin dio auzitegiak.

Frogatua gelditu da, beraz, 2014ko leherketaren ondorioz, Zelaieta III lezearen sarrera hondatu zuela enpresak, Udal Planaren 28.3 artikuluan ezartzen den 50 metroko distantzia errespetatu gabe atarri- lanean aritu direlako. Gauza bera frogatua gelditu da Alkerdi, Zelaieta I eta Zelaieta II- ren kasuan.

GIZARTEA → URTE HONDARREAN

Euskara sustatzeko ekitaldiak asmatu dituzte herritar eta hautetsiek

Gogoeta aunitz eman ondoren, ideiak gauzatu hasiak dira

Pierre BASTRES

Senpere eta Hego Lapurdiko lurraldeko bertze herriek (Ahetze, Ainhoa, Arbona, Azkaine, Biriatu, Donibane Lohizune, Getaria, Hendai, Sara, Urruña, Ziburua) euskararen sustapenaren inguruko tailerak urriaz geroztik antolatzen zituzten, Euskaltzaleen Topagunea elkarrearen laguntzarekin.

Izan ere, badira orain urte batzuk Hego Lapurdiko lurraldean euskararen aldeko politika bat indarrean dela. Antolatzaileen erranetan, «politika horren baitan, tokiko erakunde publikoak herritarrenganako euskarazko zerbitzuak garatzen ari dira. Baina, euskararen biziberritzea ez daiteke

erdiets herritarren parte hartzerik gabe, horiek baitira zerbitzu horien erabiltzaile eta euskal hiztun posibleak», eta honen bidez, «ekintza hori eraginkorra izan dadin, hautetsi eta herritarren arteko lankidetzak sustatu nahi genuke».

Ekintza ahal bezain emankorra izan zedin, antolakuntza berezia hautatu zuten: hautetsiak eta herritarrek bi talde bereziak ziren hastapenean. Talde bakoitzak bere aldetik goetak eta asmoak zerrenduta, beriz elkarretaratu behar zuten, elkarlanean aritzeko eta azken hautuak egiteko gisan.

Herritarren tailera azaroaren 18an iragan zen eta hautetsiena azaroaren 23an. Eta elkarlanean bilkura abenduaren 2an gertatu zen. Karia hortarat proposamen asko eman dituzte herritarrek zein hautetsiek, alor guzietan: gizar-

te zibilia, ekonomia, zuzenbidea, etab.

Adibidez, lehenengo hiru hilabetean, martxoaren 9an, «mintzaperobat egingen dute Azkainen: euskaldun 'berriak' (belarri prestak) eta euskaldun 'zaharrak' (ahobiziaz) elkartuko dira euskaraz tarte goxo baten partekatzen. Horrelatsuko bertze emanaldi batzuk auzo herrietan emanen dituzte urtean barna.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goitiko bi argazkietan, herritar zombait elkarren lan egiten eta partaideak elkar ezagutzen ageri dira. Beheitiko argazkian, tailer batean lanean.



VENTA PEIO
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantzarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

ola *Bertako sagarrarekin egindako sagardoa*

SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus **TXOTX GARAIA IREKIA**
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.eus

SARA

GIZARTEA → OTSAILAREN 10EAN ETA 11N

Herriko gazteen eskearekin hasiko dituzte inauteriak

Biharamunean haur eta gazteen desfilea egingen dute

TTIPI-TTAPA

Bertze herri aunitzetan bezala, otsaileko bigarren asteburuan izanen dira inauteriak Saran.

Otsailaren 10ean, larunbata, herriko gazteak Helbarrun, Ihalar, Istilarte eta Lehenbizkai auzoetan ibiliko dira etxez etxe. Biharamunean, berriz, haur eta gazteek desfilea egingen dute, eta ondotik, ez da animaziorik faltako: mutxikoak dantzatzuko dituzte, dantzariak sorpresa iragarri dute, zan-



ARGAZKIA: TURISMO BULEGOA

Usaian bezala, inauterietako igande eguerdian zanpantzarren epaiketa egingen dute.

pantzarren epaiketa ere egingen dute. Eguna bonobiltzeko, 12:30ean bazkaria egingen dute Lur Berri gelan.

Lan eskaintza

Lezeetan bi langile behar dituzte sei hilabe-

tez lanean aritzeko: martxoaren erdialdetik abuztu bukaera arte, irailko eta urriko asteburuetan aritzeko aukerarekin. Astean 30-35 orduko lanaldia izanen dute eta beraien lanak, ber-tzeak bertze, bisita-gida-

tuak, bezeroei harrera eta mantentze-lanak egitea izanen dira.

Interesatuak aurkezpen-gutuna eta curriculum sarakolezea@gmail.com helbidera edo Herriko Etxera bidali beharko dituzte.

FLASH

Kirol hitzorduak

Sara Korrika elkarteak urteko kirol hitzorduak zehaztu ditu. Martxoaren 25ean, Sara Korrika Trail mendi lasterketa egingen dute eta dagoeneko zabaldu dute 22 kilometroko lasterketarako izen-ematea. Internezez bakarrik eman daiteke izena, www.pborganisation.com atarian eta 22 euro ordainduta. Gehienez, 650 partaide onartuko dituzte, eta martxoaren 4an bukatuko da izena emateko epea. Halere, tokia izanez gero, martxoaren 5etik aitzinera apuntatzen ahalko da, 28 euro ordainduta. Kontrabandisten lasterketa, berriz, abuztuaren 26an egingen dute eta Sara Korrika irailaren 8an.

Larrun Ez Hunkiren bilkura

Larrun Ez Hunki taldeak deituta, urtarrilaren 27an bilkura irekia egingen da Lur Berri gelan. 10:00etan hasiko da.



Jose Antonio MAIA TAPIA

Lesakan hil zen, 2018ko ilbeltzaren 9an

*Maite ditut maite
gure bazterrak
Lanbroak izkutatzen
dizkidanean...*

ZURE FAMILIA



Oxokin AIOROA FAGOAGA

Ituren 1931-IV-7/2017-1-24
I.URTEMUGA

*Zurekin bizi izandu gera
hainbeste urte pila
elkarrekin pasa izan ditugu
momentu onak mila.
baina orain dela urte bat
ailegatu zen akabila
eta zure heriotzak gure
bihotza zuen korapila
geroztik zure gelara joan
ohi gera zure bila
baina han dena hain dago triste
iluna eta ixila
nahiz eta zure gorputza ez egon
guregandik hurbila
zure anima oraindik
gure artean dabila*

ZURE FAMILIA



Juan Mari MAKAZAGA AIZPURU

Goizueta, 2018ko urtarrila

*Nahiz eta 41. aulkia
hutsik gelditu,
gure artean
egongo zara beti.*

UMORE ONA ELKARTEA

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

t tipi-ttapa
Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzirietan
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

HERIOTZAK

Maria Luisa Tena Urrutia, NARBARTEKOA, urtarrilaren 4an, 70 urte.
Amador Alvarez de Eulate Maeztu, ELIZONDOKOA, urtarrilaren 5ean, 72 urte.
Mariana Dolhagarai Larregi, ELIZONDOKOA, urtarrilaren 6an, 96 urte.
Maria Luisa Iñarrea Etxalar, ARRAIOZKOA, urtarrilaren 7an, 95 urte.
Rafael Goñi Larralde, ARIZKUNGOA, urtarrilaren 7an, 80 urte.
Felix Elizetxe Elizetxe, AMAIURKOA, urtarrilaren 9an, 62 urte.
Trinidad Mitxelena Telletxea, BERAKOA, urtarrilaren 9an, 94 urte.
Jose Antonio Maia Tapia, LESAKAKOIA, urtarrilaren 9an, 67 urte.
Paquita Urtizberea Etxabide, URDAZUBIKOIA, urtarrilaren 9an, 73 urte.
Pedro Lukanbio Maiz, ARANTZAKOIA, urtarrilaren 10ean, 84 urte.
Jose Zunzarren Lorente, DONEZTEBEKOIA, urtarrilaren 12an, 78 urte.
Emilia Etxenike Iparragirre, IRURITAKOIA, urtarrilaren 12an, 101 urte.
Rosario Etxebere Inda, ARIZKUNGOA, urtarrilaren 13an, 92 urte.
Joaquina Zabaleta Zabaleta, LEITZAKOIA, urtarrilaren 14an, 76 urte.
Pedro Larraza Arbizu, DONEZTEBEKOIA, urtarrilaren 14an, 84 urte.
Andres Siles Camacho, BERAKOIA, urtarrilaren 14an, 59 urte.
Elisa Garbalena Goñi, LEKAROTZKOIA, urtarrilaren 17an, 86 urte.
Jose Aranburu Gogortza, LEITZAKOIA, urtarrilaren 17an, 86 urte.

SORTZEAK

Mamjara Sow Altxu, ITURENGOIA, abenduaren 27an.
Irai Bera Bereau, ITURENGOIA, abenduaren 28an.
Aiur Loiarde Gaztelumendi, GOIZUETAKOIA, abenduaren 22an.
Joel Elizaga Matxiñena, DONEZTEBEKOIA, abenduaren 24an.
Adei Arrieta Zabaleta, SUNBILLAKOIA, urtarrilaren 7an.

EZKONTZAK

Ez dago datu berrik.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Matilde Ramos Herrera, LESAKAKOIA, abenduaren 22an, 79 urte.
Ignacio Goizueta Gaztañaga, GOIZUETAKOIA, abenduaren 31n, 77 urte.
Margarita Juantorena Deskarga, EZKURRAKOIA, urtarrilaren 1ean, 87 urte.
Juan Jose Zestau Zestau, LEITZAKOIA, urtarrilaren 1ean, 67 urte.
Maite Irigoien Aleman, AMAIURKOIA, urtarrilaren 1ean, 59 urte.
Juana Sanzberro Galarregi, LEKAROTZKOIA, urtarrilaren 2an, 91 urte.
Juan Txoperena Agara, LESAKAKOIA, urtarrilaren 3an, 89 urte.



Joseba Etxeberria Agerrebere
Josetxo Bengoetxea Orkin
Patxi Zubigarai Juantorena
Pello Bengoetxea Orkin
Iruna Etxeberria Agerrebere

*Ate krisketa altxatu eta
Sartzeakin elkartera*
Josetxo, Peio, Joseba, Patxi,
Irunez oroitzen gera
 Bortz adar haundi erori ziren
 Arbol gainetik lurrera
 Zuek erori zinetenetik
 Nabiz ta hostoak atera
 Arizti deitzen diogu bainan
 Ez da lehengo haritz bera.

*Ez da erreza elkarte baten
Zerrenda bat eramaten*
 Eta zailago bortz bazkideri
 Betiko agur erraten
 Saiatu ziren elkarte honetan
 Zuten onena ematen
 Egun batean gure ondotik
 Nabiz ta urrunduzinaten
 Elkarte bontan jarraitzen duzue
 Gure bazkide izaten.

Arraiozko Arizti Elkarte

Gizonak behar omen du ondoan emakumea zu izan zara gure etxeko lore ta zutabea umiltasunetik eta maitasunetik egin duzu bidea ongi ezarritz gure artean familiaren balorea. Alaba, arreba-ahizpa, emazte ta ama bezala bete duzu soberan zure bizitzako eginbeharna gure bihotzean gelditzen den aren hutsune zabala betirako gordeko dugu oroitzapen on ta alai.

ZURE FAMILIA



Maite IRIGOYEN ALEMAN
 Amaiurren, 2018ko urtarrilaren 1ean.

PILOTA → URTARRILAREN 13AN, LAU KATEGORIATAN

Goizuetako Umore Onako II. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

Benjaminetan eta jubenetan Goizuetako elkarteko bikoteak izan dira txapeldun

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 1ean abiatu zen Goizuetako II. Umore Ona pilota txapelketa, 32 bikoterekin, eta urtarrilaren 13an jokatu zituzten finalak. Kategoria ttikienean eta handiengan, benjamin eta jubenetan, Umore Onako bikoteak suertatu ziren txapeldun.

Benjaminak: Artetxe eta Bidezabal (Ilunpe), 7 – Apezetxea eta Sargardui (Umore Ona), 18
Alebinak: Otaegi eta Bi-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Onaren II. pilota txapelketako finalistak eta antolatzaileak.

dezabal (Ilunpe), 18 – Legarreta eta Elizegi (Umore Ona), 4.

Infantilak: Etxeberria eta Goikoetxea (Eple),

5 – Apezetxea eta Mikelarena (Erreka), 18.

Jubenilak: Zabala (Zazpiburri) eta Oliden (Añorga), 20 – Aizkorbe

eta Apezetxea (Umore Ona), 22.

ZOKKETA

Aipatzekoa da finalen

ondotik hainbat sari zozketatu zituztela. Hauek izan ziren zenbaki saridunak:

-Zubimuxu aterpetxean bi lagunentzat gaua 737 zenbakiarentzat.

-Olaizola sagardotegian bi lagunentzat otordua: 2.280.

-Oxeguardan bi lagunentzat otordua: 1.888.

-Olaizola II.aren kamiseta: 3.446.

- Ezkurdiaren kamiseta: 3.758 (sariduna azaldu zen).

- Rezustaren kamiseta: 1.704.

Saridunek urtarrilaren 28ra arteko epea izanen dute saria eskuratzeko, 646 05663 telefonora deituz (Igor). Epe horretan agertzen ez bada, berriz eginen dute zozketa.

PILOTA → FINALAK OTSAILAREN 24AN JOKATZEKO

Malerrekako XVI. eskuz binakakoa abiatu da

Zazpi mailatan 188 bikote aurkeztu dira

TTIPI-TTAPA

Zazpi kategoriatan banatutako 188 bikote hasi dira Erreka elkar-teak hamaseigarren ur-

tez antolatutako Malerrekako eskuz binakako txapelketan, otsailaren 24an Donezteben jokatu diren finaletarako txartelaren bila. Hasten lehenbizikoak senior elite mailakoak izan ziren (16 bikote). Hauek asteazketan



ARTXIBOKO ARGAZKIA

376 pilotari hasi dira Malerrekako eskuz binakako txapelketaren 16. edizioan.

aritzen dira Donezteben. Bigarren mailako seniorak ere asteazketan ari dira Sunbillan. Hamabi bikote hasi dira

maila honetan.

Adin ttikiagokoak igandetan aritzen dira. Jubenilak Donezteben, kadeteak Sunbillan, in-

fantilak Eratsunen, alebinak Iruritan eta benjaminak Legasan. Denetara 32na bikote hasiak dira lehen.

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F: 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipixartela.info

701

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Baztan Abentura Park - 2 tiket
Marcos Juanena Iribarren | URROZ
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Ane Egizabal Llata | LEITZA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Jose Fco. Errandonea Zubieta | SUNBILLA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Itxaro Aranibar Eltzaurdia | BERA
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Jesus Mendiburu Arizaleta | AZPILKUETA
Baga-Biga - Liburu bat
Juana M^a Iribarren | ORONOZ-MUGAIRI
Baga-Biga - Liburu bat
Itziar Barberena Iribarnegarai | ERRATZU
Baga-Biga - Liburu bat
Bene Urrutia Aizega | SALDIAS
Ibaizabal - Liburu bat
Juan Sein Sein | IRUN
Ibaizabal - Liburu bat
Rosa Altzugarai Larralde | LESAKA
Ibaizabal - Liburu bat
Antonia Ariztia Arburua | URDAZUBI

2 CD-DVD



BAGA-BIGA
www.baga-biga.eus

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

EREIN
www.erein.eus



2 liburu

ARKUPE
www.arkupegozotegia.com



Lote bat

LI BU RU AK



Bainera bete itsaso
Martin

elkar
www.elkar.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.ibaizabal.com



www.arkupegozotegia.com

urtarrilak 25 - otsailak 8

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Ospakizunak



ELIZONDO | 2018.02.04

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna

Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak antolatuta, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen *Borobilean* ikuskizuna ikusteko aukera izanen da otsailaren 4an, 11:00etan, Baztan frontoian. Sarrerak salgai daude.

Ospakizunak



LESAKA | 2018.01.27

Nafarroako IV. Trikitixa Jaialdia urtarrilaren 27an

Lesakako Harriondoa Kultur Etxea trikitixa doinuen lekuko bilakatuko da urtarrilaren 27an. 19:30ean hasita, Euskal Herriko zazpi herrialdeetatik etorritako hainbat gonbidatu ariko dira taula gainean.

Bertsoak



NAFARROA | 2018.02.02

Taldekako bertso saioak Bardoak ekimenaren baitan

Otsailaren 2an Beran eginen den lehenbiziko saioarekin hasiko da bi urtetik behin egiten den Bardoak Nafarroako taldekako bertso egitasmoa. Martxoaren 24an bukatuko da Bardoak 2018, Lekunberrin.

Hitzaldiak

ELIZONDO

'Irautza boltxebikeak 100 urte. Oraingo Euskal Herrirako ze irakaspen?'

Urtarrilaren 26an Eneko Compains eta Iraitz Agirrerekin solasaldia Gaztetxean, 19:30ean.

Antzerkiak

BERA

'Origenes' antzeziana

Urtarrilaren 27an Kultur Etxean, 19:00etan. Sarrera bertz eurotan.

IRURITA

Helduendako antzerkia

Otsailaren 4an *Ergela* antzeziana Sara Cozar eta Joseba Apaolazarekin, 19:00etan Gizarte Bilgunean.

ETXALAR

Inausketa eta txertaketa

Otsailaren 3an Larraburu elkartearen, 09:00etan. Izenematea urtarrilaren 26a baino lehen.

DONEZTEBE

Zirko familia

Otsailaren 3an, 17an eta 24an eskoletako gimnasioan, 11:30-13:00. Izenematea: 659 797195.

Ikuskizunak

ELIZONDO

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Borobilean'

Otsailaren 4an 11:00etan Baztan pilotalekuan.

Kontzertuak

ELIZONDO

Mugaldekoak

Urtarrilaren 28an *Galdemodu*en *trilogia* diskoaren aurkezpena, 19:00etan Arizkunenean.

SUNBILLA

Malerreka kantuz

Otsailaren 3an.

BERA

Musika Eskolako inauterietako saioa

Otsailaren 7an 18:00etan Kultur Etxean.

Inauteriak

ARIZKUN ETA ERRATZU

Gizakunde

Urtarrilaren 27an.

BERROETA

Inauteriak

Urtarrilaren 27an.

LEITZA

Inauteriak

Urtarrilaren 27tik 30era.

AURTITZ, ITUREN ETA

ZUBIETA

Inauteriak

Urtarrilaren 29an, 30ean eta 31n eta otsailaren 3an eta 4an.

SUNBILLA

Inauteriak

Urtarrilaren 26tik 28ra.

ORONÓZ-MUGAIRI

Inauteriak

Urtarrilaren 25etik 27ra.

ARANTZA

Inauteriak

Otsailaren 1etik 3ra.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Lehertu da mozerro besta

Eskualdeko hainbat herritan hasiak dira inauteriak ospatzen eta asteburu honetan ez da etxean gelditzeko aitzakiarik izanen: Arizkun eta Erratzun Gizakunde izanen dute eta Sunbilla, Leitza, Berroeta, Oronoz-Mugairi, Zubieta, Ituren eta Aurtitzen mozerro bestan murgilduko dira. Ondotik, Arantza, Areso, Igantzi eta Zigak hartuko dute lekukoa, eta otsaileko bigarren asteburuan gainerako herrietan izanen dituzte inauteriak.



IGANTZI

Inauteriak

Otsailaren 2an eta 3an.

ZIGA

Inauteriak

Otsailaren 2an eta 3an.

ARESO

Inauteriak

Otsailaren 2an eta 3an.

SARA

Inauteriak

Otsailaren 10ean eta 11n.

URDAZUBI

Inauteriak

Otsailaren 9tik 13ra.

GOIZUETA

Inauteriak

Otsailaren 11tik 13ra eta 17an.

DONEZTEBE

Inauteriak

Otsailaren 8tik 10era.

LESAKA

Inauteriak

Otsailaren 8an, 11n eta 12an.

BERA

Inauteriak

Otsailaren 3an, 8an, 11n eta 12an.

ELIZONDO

Inauteriak

Otsailaren 9an eta 10ean.

ETXALAR

Inauteriak

Otsailaren 8tik 13ra.

Bertsoak

NAFARROA

Bardoak Nafarroako taldekako bertso egitasmoa

Otsailaren 2an Berako Katakun bertso-merendua, Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi eta Sakana Zirt taldeekin, 20:30ean.

Nire aukera



Beñat IRAZOKI
Etxalarko gaztea

«Aita izateak ardura handiak dakartza, baina ekarpenak handiagoak dira»

Eguraldi oneko egunak «mendian, kirola eginez» eta egun euritsuak «sutondoan, familia edo lagun artean» pasatzea bezalakorik ez dago Beñat Irazokiren ustez. Baina mendi eta sutondotik harago, «plaza bazterrean, herriko saltsetan», aukerarik galdu gabe ibilia da Etxalarko gaztea. Herrian «mugimendu nabarienetarikoa» sortzen duten egunak dira inauteriak. Inaute hitzak «gazteak baserritarrez, 'iñaute-iñaute' erranaz» irudikatzen bide ematen dio, «trikitixaren bueltan sortzen diren momentu polit horiek» datozkio gogora. Hamabortz urte inguru zituela hasi zen baserriz baserrikoan ateratzen, eta oraindik orain, «ilusioa bizi-bizi mantentzen dut».

Astelehen hori berezia da «astearen lehena izanagatik egutegian gorritz markatzen dugulako, batetik; eta astelehen ederra izanagatik, bezperakoaz urrikitzen ez garelako bertzetik». Izan ere, igandean kintoen eguna izaten dute herrian, «hori izan liteke Etxalarko inauterien berezitasuna», herritar andana biltzen da, «aspaldiko ohitura izateaz gainera, gero eta indar handiagoa du». Asteartean, berriaz, «mozorroaren atzean» ezkututzen dituzte begizuloak. Zirt edo zart, azken orduan erabakitzen dituzte jantziak, «lehen lan gehiago hartzen genuen, orduan denbora ere bagenuenez... piraten itsasontzia eta onddo ederra egin izan ditugu». Aurtengo inauteriak bereziak izanen dira Etxalarko gaztearentzat. Aspaldian amets zuen suhiltzaile izatea eta aukera sortu zaionez, horretarako prestatzen dabil ikastaroan, buru-belarri. Gainera, duela zazpi hilabete bizitzako bertze etapa bati ekin zion: aita izateak «ardurak dakartzan arren, ekarpenek zama gehiago dute. Izugarria da, eta badakizu... gustoko tokian aldaparik ez!». Halere, ziur ateraldiren bat egiteko tartetxoren bat aterako duela, «haur-aulkia eskuartearen eta liburua saskitxoan dudala bada ere». Ea biharamunean, «Atxuri aldeko lasaitasunez eta ikusmiraz» gozatzeko aukera duen, besta ondoko izerdi hotzei aurre egiteko sendagai bikaina baita bertarainoko paseotxoak!

«Astelehen berezia da, egutegian gorritz markatua eta astelehen ederra izanagatik bezperakoaz urrikitzen ez garelako»

Otsailaren 3an Leitzako Atekabeltzen bertso-merendua, Aldatzea Komeni eta Topa bardo kopa! taldeekin, 18:00etan.

Otsailaren 9an Lesakako Arrano elkartearen bertso-merendua Unibertsolariak eta Barakinak taldeekin, 19:00etan.

Ospakizunak

LESAKA

Nafarroako Trikitixa Jaialdia

Urtarrilaren 27an 17:30ean Harriondoa Kultur Etxean.

Zinema

DONEZTEBE

Erreka Guraso Elkartearen eskutik

Urtarrilaren 28an 16:30ean.

Dantzak

ELIZONDO

Bailableak

Otsailaren 11n muxikoak, jotak eta larrain-dantzak 12:45ean Elizondoko plazan. Eurria ari badu, Braulio Iriarte frontoian izanen da.

Azokak

BERA

Bertako ekoizleen merkatua

Otsailaren 10ean Ricardo Baroja eskolako arkupeetan, 10:00-13:30.

Mendi irteerak

BAZTAN

Mendigoizaleen ateraldiak

Urtarrilaren 25an Arizkundik Maulitxera (08:00).

Otsailaren 4an Irulegitik Jarara, 07:00etan abiatuta.

ETXALAR

Zanpingorri taldea

Urtarrilaren 28an Sunbillako inauterietara oinez (07:30).

SUNBILLA

Mendigoizaleen ateraldiak

Otsailaren 11n Auñamendira, 05:30ean abiatuta.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ELIZONDO. Akullegin 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 55.000 euro. ☎646 774117.

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitx prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

ANZABAL**INMOBILIARIA**

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE Aukera: 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

BERA. Bidasoa karrika 5. Pisua errentan emateko. 2 logela, 2 komun, sukalde, egongela eta trastelekua. Igogailua eta garajeko marrarekin. ☎680 549808.

ETXEBIZITZAK**errentan hartzeko**

DONEZTEBEn edo **ELIZONDO**n familia batek (4 lagun) pisua errentan hartuko luke. ☎680 103542.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

LESACA. Bittiria karrikan, lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎636 847510.

BERA. Garbi ogi&coffee kafetegia eskualdatzen da. ☎646 356983.

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako ES86 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sортzen ahal diren operazioen erantzukizunik

GARAJEAK/LOKALAK**salgai**

BERA. Agerran, 32 eta 25 m²ko lur azpiko bi garaje salgai. ☎660 854411.

**LANA****eskaintzak**

ELIZONDO. Bidegain arraindegian berehala lanean hasteko prest dagoen langilea behar du. Lan finkoa, asteartetik larunbatera goizez aritzeko. Ezinbertzekoa da gida-baimena izatea. Interesatuak deitu, dendara joan edo curriculuma bidali: info@pescadosbi degain.com. ☎606 585163 / 948 580496.

BERA. Ibardinen, sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dute, asteburuetan eta besta egunetan aritzeko. Bidali curriculuma: bentagorria@hotmail.com helbidera edo deitu. ☎948 630939.

BERA. Esperientzia duen kamioi mekanikaria behar da. Asteleheneetik ostiralerarantz aritzeko. ☎679 892032.

ARIZKUN. Zurgindegibatean bi langile behar dituzte. ☎699 953257 / 659 746794.

LESACA. Aliprox dendan, autonomo bezala harategia errentan hartuko duen norbait behar dute. Asteleheneetik larunbat eguerdira lanean aritzeko. ☎699 651202.

LANA**eskariak**

Gizonezkoa lan bila. Adinekoak zaintzen interno

moduan edo orduka, edota ganaduekin lan egiteko prest. Esperientzia adinekoak zaintzen baita ganaduekin ere. ☎622 015725.

Adinekoak zaintzeko, interna edo orduka, sukaldari laguntzaile edo zerbizari lanetarako **lan bila**. Esperientziaduna eta arduratsua. ☎606 330200.

Neska **lan bila**. Adinekoak interna moduan edo orduka zaintzeko, haurrak zaindu eta garbiketa lanetarako interesatua. ☎644 963709.

Lekarozen bizi den Maririlgo emakumea lan bila.

Administraritzak dituen eta esperientzia handia alor horretan. Administrari, ostalaritzako langile, saltzaile, haur edo adinekoen zain-tzaile edota garbiketaren aritzeko interesatua.

Frantses maila altua eta ingelesa eta euskara maila ertaina. ☎676 256975.

Gizonezkoa **lan bila**, adinekoak interno moduan edo orduka zaintzen, erakuntzan edota ganaduekin lan egiteko. Adinekoak zaintzen eta ganaduekin esperientziaduna. ☎644 471128.

Neska batek **garbiketaren** edo pertsonen **zaintzan** lan eginen luke. ☎686 947418.

28 urteko neska lan bila,

ostalaritzan edota komertzial aritzeko prest. Ostalaritzan zerbizari lanetan eta sukalde laguntzaile bezala lan egindakoa, baita komertzial bezala bezeroei arreta eginez ere. Ingeleseko **erdi maila**. ☎622 119220. Haurrak edota adinekoak **zaintzeko** lan bila, baita **garbiketaren** aritzeko ere. ☎688 425860.

Adinekoak zaintzeko lan bila. Interna moduan, orduka edota asteburuetan lan egiteko prest. Esperientzia adinekoak **zaintzen**. ☎693 694949. Adinekoak edota haurrak **zaintzeko** edo etxeetan edo instalazioetan garbiketaren lanetan aritzeko **lan bila**. Esperientzia lan horietan guztietan. ☎644 778212.

Adinekoak eta haurrak **zaintzen** eta garbiketaren aritzeko esperientziadun **neska lan bila**. ☎644 963709.

Emakume arduratsua eta esperientziaduna lan

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urtarrilaren 5etik 12ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 48 €

Zerri gizena
1,007€ kiloak.

Zerramak:
0,560 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/k Kanal
Extra 4,35

1.koa 4,13
2.koa 3,93

Urruxak: €/k Kanal
Extra 4,37
1.koa 4,23
2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 200,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,29/3,39
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,00/7,60
8-10 kilokoak: 5,20/6,00

bila: garbiketan, haurrak edota adinekoak zaintzen, edo konpainia egiteko prest, goizez edo gaez. Kotxeko karneta-ekin. ☎608 371643.

Umeak zaintzen esperientziadun neska lan bila. Bi urteko esperientzia zenbait haur eskoletan, baita udan zehar haurren zainketan ere. Urtarriletik aurrera umeren bat zaintzea nahi izanez gero, jarri harremanetan whatsapppe. ☎675 336624.

Adinekoak zaintzeko lan bila. Interna moduan aritzeko prest. ☎632 773489.

Adineko eta haurren zainketan eta garbiketan aritzeko lan bila; **esperientziadun neska**. Interna, orduka edo asteburuetan aritzeko prest. ☎664 149530.

Adinduak zaintzen, garbiketan edo sukalde lagun-tzaile aritzeko **lan bila**. Esperientzia adinekoak zaintzen. ☎676 715998.

Mutil bat lan bila. ☎671 189530.

ZERBITZUAK
zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaia - ARANTZA

MOTORRAK
salgai

Peugeot 308 HDI Sport autoa salgai, 110 CV, 95.000 km. Argi automatikoak eta abiaduraren kontrolarekin. Bizona klimatizagailua. Laino-argiak, eta hagun edo llantak alineatuta. 2010eko maiatzeko. Beti garajejan egondakoa da eta egoera hagitza onean dago. Aukera paregabekoa. ☎696 290759.



Animalientzako van-a salgai, 1.200 kilo arte. Egoera onean. ☎649 803716.



MOTORRAK
tailerrak

GANIX
Tailerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 - BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

ANIMALIAK
salgai

Suitzar arrazako lau urteko **behia** salgai. Ernari dago. ☎634 412761.

BERA. Egiluze baserrian, 20 ardi ernari salgai. ☎679 555036.

ANIMALIAK
oparitzeko

Bi hilabeteko **txakur emea** oparitzeko. Ama labrador arrazakoa. ☎616 884699.



Bi hilabeteko **hiru ardi txakur** eme oparitzeko. ☎948 510224.



Hiru ahuntz tiki oparitzeko: ama (3 urtekoa) eta bi kume (urte batekoak), denak emeak. ☎666 388063.

LEITZA. Border Collie arrazako 3 zakurkume oparitzeko. 2 hilabete ingurukoak. ☎948 610689 / 636 022311.

ANIMALIAK
denetarik

100 ardirendako ganbela bere atrapaderarekin salgai, moduloka. Tokiz aldatzeko erraza, berri-berria. ☎948 581039.



DENETARIK
salerosketak

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎948 585036.

BERA. Segui markako egurrezko tximeneta salgai. 12Kw-koa, 70 cmko zabalera eta kristalezko ateararekin. Prezioa: 200 euro. ☎644 733083.

Tximeneta salgai, egurrezko berotzeko. Base-ri, txalet edo bordarako egokia. Egoera onean. ☎667 518485.



Bigarren eskuko **sukalde industrial** salgai. Bi su eta txapa bat. Labea egoera onean. Elkarre baterako egokia. ☎687 736970.



BERAKOUDALA

TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA

-HIRIGINTZA-

Udaleko Tokiko Gobernu Batzordearen akordioa, 2017ko abenduaren 20koa: UE9ko 7. lur-zatia (9. poligonoko 419. lur-zatia, Kaxernagaina) Hiri-Jarduketako Plan Bereziaren espedientea hasiera batez onestea.

Espediente hau jendaurrean izanen da hilabete batez, dagokion iragarkia NAO-n argitaratu ematen denetik (7. NAO, 2018ko urtarrilaren 10ekoa).

Bera, 2018.01.12
ALKATEA,
Josu Iratzoki Agirre

Belar xehea fardo tti-kietan salgai. ☎618 962774.

IRUN. Taxi lizentzia eta egoera onean dagoen taxia (Toyota Prius) salgai. Lan dezenterekin. ☎679 568030.

Rack armairua salgai, 19" 9U 60x45x50 cmko neurria. Prezioa 35€. ☎948 635458.



Soinu tresneria profesionala salgai: bozgoragailuak, soinu etapa, mahaia eta efektuak, mikrofonoak, argi fokoak, kan-

KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

poko megafonia handia eta kotxean jartzeko, dispositiba aparatua, pantailak, kableak, hankak eta Rack handia. ☎609 477277.

DENETARIK
galdu-aurkituak

LESAKA. Abenduaren 24an, bizkar-larru bat desagertu zen Rural Kutxa-ren ondoko portal batean. Norbaitek ikusi badu, faborez deitu. Bizkar-larruan izena ageri da. ☎618 735539.

GOIZUETA. Azaroaren 25ean, feri egunean, beroki bat aurkitu zuten. Galdu zuenak udaletxera dei dezala. ☎948 514006.



hemen agertu nahi duzu?

IRAGARKIA
2 aldizkaritan
+ interneten

egin zure erosketa
erran.eus en

10
EURO

PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELLOZIRI



KATALINGORRIREN KATARROA


Neguak ez die onik egiten zomorroei. Begira nola dagoen gure Marigorringo, hotzeriak hartuta gaixoa. Bere laguntxoen inbidiatan dago gainera, Hego Amerikara joan baitziren eguraldi beroaren bila (Badakizue, hemen negua denean, han uda da). Ikustan al dituzu? Belardi honetan daude, eta hamasei dira: erleak, amona mantangorriak, kakalaridoak, zizareak, inurriak, euliak, tximeletak, armiarmak..




Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

ZORTZI ALDEAK

Aurkitu bi irudi hauen artean dauden zortzi aldeak.





MARRAZTU ETA MARGOTU

Goxo-goxo dago lo gure katu Xapi.
Zer amesten ari ote da?



ARROTZA



Hemen ageri diren elementuak jardun edo ofizio jakin batean erabiltzen dira normalki. Denak, salbu eta bi. Zeintzuk dira gainerakoekin bat ez datozen bi gauzak, jardun jakin horretan erabiliko ez genituzkeenak?



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,55€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



ANDRES ALZUGARAY CONTRERASEK urtarrilaren 17an 6 urte bete ditu. Zorionak Almandozko ataxi, amaxi eta osabaren partetik.



Urtarrilaren 21ean 4 urte bete ditu Doneztebeko **IRAIDE GOGORTZA ETXEBERRIAK**. Zorionak eta muxu pila etxeko panpoxari!



MIKEL SAN SEBASTIAN GAZTELUMENDIK urteak bete ditu urtarrilaren 11n. Berriz ere urrun, ehunka kilometro gure artean. Baina gure maitasunak ez du eza gutzen urruntasunik. Zorionak eta ziur egon denok etxean egon arte ez dugula etsiko. Besarkada bat familia guztiaren partetik.



Arantzako **KATTALIN** eta **ENEKO ORDOKI** osaba-ilobek otsailaren 1ean eta 5ean urteak beteko dituzte. Zorionak familia guziaren partetik eta prestatu berendu eder bat.



Zigako **ITXASO** eta **MIKEL MENDIBURU LOIARTEK** 10 urte bete dituzte urtarrilaren 21ean. Auniz urtez familiaren partetik, bereziki, Zubietako amaxi eta Zigako ataxiaren partetik. Musu handi bana!



Auniz urtez **IRAIA!** Urtarrilaren 16an 5 urte bete dituzulako, muxu haundi bat denon eta bereziki atxa, ama eta Maren ahizpatxoaren partetik!



Leitzako **ANDONI HERNANDORENA IREGIK** 5 urte bete ditu urtarrilaren 17an. Zorionak politxo! Patxo handi-handi bat aitaxo eta ama-txoren partetik.



GURUTZE, libratuko zinela uste al zenuen? Toki ederrean zabil-tza! jaja. Auniz urtez eta musu bat! Gosariaren esperoan gelditzen gara.



Lekarozko **PELLO** gure ogi banatzaileari zorianak! Urdazubi-Zugarramurdi eskolako Guraso Elkarteak Eguberrietan egindako saski ederren zozketan, bat zuri tokatu zitzaizun nik saldutako zembakian. Pablo Irazoki Olaizolaren partetik.



Goizuetako **EILA LARRALDE AROTZENAK** 5 urte beteko ditu ilbeltzaren 31n. Zorionak politta eta muxu asko batez ere zure anaia Urkiren partetik!



Zein pozik gauden!! Gure Goizuetako attona **MANUEL** eta amona **MARITXOK** 66 urte egin dituzte ezkondurik. Zorionak eta muxuak familia guziaren partetik.



Lesakako **HEGOI ZELAIETAK** 4 urte bete ditu urtarrilaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko gixon ttikiari ama, atxa eta bereziki Unaxen partetik!



Arraiozko **AIURA ARRAZTOA AGUERREBEREK** 5 urte bete ditu urtarrilaren 22an!! Zorionak gure etxeko printzesari familia guziaren partetik baina bereziki bere anaia Oinatzen partetik. 5 muxu haundi!!



IKASTOLA EREDUA HEZKUNTZA ERALDATZEN



WWW.IKASTOLA.EUS

AURREMATRIKULAZIO GARAIA:

OTSAILAREN 1 etik 7ra

LABIAGA
Ikastola Bera
Aitzate, 12 Eztegara, 32
94863.0172 948631558
31780 BERA-NAFARROA WhatsApp 608677446
bera@ikastola.eus www.labiagaikastola.eus
HEZKUNTZA KOOPERATIBA EUSKALDUNA


TANTURUMAIRU
IKASTOLA - LESAKA

Arretxea, 13
31770 Lesaka
Tel 948 637 308
tanturumairu@ikastola.eus
www.tanturumairuikastola.com


ikastolenekartea



Bortzirietako eskola publikoak

Ricardo Baroja IP (Bera)
Landagain IP (Etxalar)
Irain IP (Lesaka)
Toki Ona BHI (Bera)
Arantza IP
Igantzi IP

AURREMATRIKULAZIO EPEA:

Haur eta Lehen Hezkuntza:
otsailaren 1etik 7ra

DBH, Batxilergo eta
Lanbide Heziketa:
datak zehaztear daude



ARANTZA: HERRI ESKOLA

T. 948 634 104

Arantzako Herri Eskola

<https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/arantzaherrieskola/>



ETXALAR: LANDAGAIN ESKOLA

T. 948 635 215



BERA: RICARDO BAROJA E.P.

T. 948 625 019

www.ricardobarojaeskola.net



BERA: TOKI ONA INSTITUTUA

T. 948 625 000

iestokiona.educacion.navarra.es/



IGANTZI: HERRI ESKOLA

T. 948 637 829



LESAKA: IRAIN E.P.

T. 948 638 006

irain.educacion.navarra.es/web

GURE HERRIKO HIZKUNTZA ETA KULTURA BULTZATUZ | DOAN | INTEGRATZAILEA
 JANTOKI ETA GARRAIO ZERBITZUAREKIN | TEKNOLOGI BERRIEZ BALIATUTA
 HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA HERRI ESKOLETAN | DBH, BATXILERGOAK ETA LH. BERTAKO INSTITUTUAN
 2 URTETIK 20 URTE ARTEKO KALITATEZKO IRAKASKUNTZA JARRAIA, ELKARLANEAN ETA KOORDINATUA